




ttipi-ttapa

TOPIKON

2011ko irailaren 29a | XXXI. urtea | 551. zenbakia

www.ttipi.net



Alberto
BARBERENA

Baztango
Lasterketa Taldean
burubelarri → 52

Gartzaingo bestak

Urriaren 11tik 15era

LESAKA → 26

Kultur Etxearen obra
urrian esleituko da

ELGORRIAGA → 31

Onddo eta Zizen besta
urriaren 1 eta 2an

MALERREKA → 32/34

Urriruko Besta B.Labaienena,
Euskararen Eguna Zubietan

LEITZA → 40

Aurrera Elkartearen
V. pesta urriaren 1ean




Umoretsu hasi dira eskolan Saldiasko gazte-
txoak. Iaz bezala, aurten ere sei dira.
Gainerako ikastetxeetan ere joan den
urteko kopuru beretsutan dabilta.
Izan ere, datu orokorrei begiratuz,
2009-2010 ikasturtean eman
zen gorakadarik handiena
(duela 2 urte 4.645 ikasle eta
iaz 4.912). Aurtengo datuak
xehekiago begiratuta, gora-
kada Lehen Hezkuntzan
eta Bigarren Hezkuntzan
eman da. Hamasei urtetik
goragokoetan eta Haur
Hezkuntzan, aldiz, ikasle
gutiago dira aurten.

→ 23

IKASTURTE BERRIA | Aurten 4.915 ikasle hasi dira, iaz baino 3 gehiago

Ikasle kopurua egonkortu da iazko gorakadaren ondotik



HEZKUNTZA → 24

Nafarroako
Gobernuak
egin dituen
murrizketak
salatzeko,
irakaskuntzeko
sindikatuak greba
eguna iragarri
dute urriaren
27rako

ERREPORTAJEA → 4-5

Hauteskundeen
ondotik,
eskualde
alkateen
bortzetik bat
30 urtetik
beheitikoa da

OSASUNA → 46

Elizondoko
Osasun Zentroko
antolakuntza-
aldaketak
urriaren 6tik
aitzinerara sartuko
dira indarrean

ZOZKETAK → 59



Txartela egiteko
deitu 948 63 54 58
telefonora

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latiak, brikak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizitza luzea dute. Baitxeke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota urezantzi batean... Zeren, manera batera edo bertara, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



Gurasoei lekukoa hartuz, azken 32 urteotan Juan Belaunzaran eta Carmen Onsalo aresoarrek egindako ogia dastatu dute Areso eta inguruko etxeetan. Gaur egun gutxi

bezala, ogi berezia eskaini izan diete bezeroei, prozesu guztia eskuz eginez eta ogiak egurrezko labean errez. Orain, ordea, erretiroa hartzea erabaki dute eta horrekin

batera okindegia itxita gelditu da. «Oso lan lotua» dela aitortu arren, «pena» hartu dutela adierazi digute, batez ere, Carmenek, gurasoekin okindegian ibili izan baita txikitatik.

Juan BELAUNZARAN eta Carmen ONSALO | Aresoko okin ohiak

«Okinarena oso lan lotua da, baina ez da beste lanak baino gogorragoa»

TTIPI-TTAPA | ARESO

Noiztik egon da Aresoko okindegia zabalik?

1940. urtean Esteban Onsalo eta Joakina Erasoren nire gurasoek ireki zuten okindegia eta beraien utzitakoan nire senarrak eta nik erreleboa hartu genuen. Duela 32 urte hartu genuen beraien utzitako lana. Joan den uztailaren 31n itxi genuen, ongi merezitako erretiroa hartzeko garaia iritsi zaigulako.

Zein ezaugarri zituen zuen ogiak?

Prozesu guztia eskuz egiten genuen eta egurrezko labean erretzen genituen ogiak. Egurrezko labean erretzeak bestela baino lan handiagoa eskatzen du. Azken finean, egurra prestatu beharra dago, eta horrek egunero lana aurretik prest izatea eskatzen du. Gaur egun, uste dugu ez direla egurrezko labearekin lan egiten duten asko geldituko. Gero emaitzean, faktore askok eragiten du, eskuz egiten den prozesu bat da eta beti berdin ateratzea oso zaila da, baina batez ere eguraldiak horretan zeresan asko dauka. Baina gauza gehienetan bezala, osagai onak izatea oso garrantzitsua da.

Non banatzen zenuten ogia?

Hasiera batean Gorriti, Leitza eta Areson saltzen zen, eta azken ur-



UTZITAKO ARGAZKIA

Carmen Onsalo aresoarrek bere gurasoak erretiratu zirenean hartu zuen okindegiaren ardura, Juan Belaunzaran senarrarekin batera.

teetan, Leitza eta Areson bakarrik banatzen genuen. Hala ere, esan beharra dugu Gipuzkoatik ere jende asko etortzen zela ogia erostera. Astartez bi errealdietan genituen eta asteburuetan, berriz, hiru errealdi.

Zaila izan da negozioa aurrera ateratzea?

Dena eginda zegoen eta azken finean, gurasoek utzitakoari eutsi besterik ez diogu egin. Egia esateko, hasi ginenetik garaiak asko aldatu dira eta ez da lan erraza

OGI BEREZIA

«Guztia eskuz egiten genuen eta egurrezko labean erretzen genituen ogiak. Horrek bestela baino lan handiagoa eskatzen du. Azken finean, egurra prestatu beharra dago, eta horrek egunero lana aurretik prest izatea eskatzen du. Emaitzean, faktore askok eragiten du, eskuz egiten den prozesu bat da eta beti berdin ateratzea oso zaila da»

izan. Baina 32 urtez lan egin badugu, ogiak harrera ona izan duela esan beharko dugu. Gaur egun, edozein tokitan eros daiteke ogia, baina zorionez, guk ez dugu gorabehera handiegirik nabaritu. Ez dugu ahaztu behar ogia oinarritzko elikagaia dugula.

Nolakoa izaten zen zuen egunerokoa?

Lanean goizean 03:00-etan hasten ginen. Aurreneko gauza labea piztea izaten zen eta masa egiten hasten ginen. Masa eskuz lantzen ge-

nuen eta landutakoa harrutzen uzten genuen. Bitartean labea garbitzen genuen eta masa prest zegoenean labera sartu. Ogia labean erre bitartean, hurrengo errealdia prestatzen genuen. Ogia erreta zegoenean, labetik atera eta hurrengo errealdiarekin lanean jarraitzen genuen. Oso lana lotua zen. Goizetan okindegian lan egiten genuen eta arratsaldetan hurrengo egunean behar ziren gauzak prestatu behar izaten genituen.

Orain itxi egin duzue. Ez da erreleborik agertu?

Erretiroa hartzeko itxi dugu. Okinarena ez da beste lanak baino gogorragoa, urtean jaiegun gutxi ditugula eta lan egiteko ordutegi txarra duela, besterik ez. Baina oso lan lotua da, eta gaur egungo okindegiak bestela lan egiten dutenez, inork ez du horrelako lanik egin nahi. Itxitakoan pena handia hartu dugu, batez ere nik, txikitatik ezagutu dudalako, nire gurasoekin beti hemen lan egin baitut.

Itxi ondotik, zertan aldatu zaizue bizimoduak?

Batez ere goizeko ordu horietan jaiki behar ez izateak lo egiteko ohitura aldatu digu, eta horren ondorioz, egunean zehar gauzak egiteko denbora gehiago dugu.

GIZARTEA → ALKATE GAZTEAK

Eskualdeko alkateen bortzetik bat 30 urtetik beheitikoa da

Maiatzeko hauteskundeen ondotik sartu diren alkate berri batzuk hagitz gazteak dira

Oier Eizmendi Leitzako alkatea, Pello Etxabide Lesakakoa, Amets Inda Sunbillakoa, Ur Algero Aresokoa eta Pablo Miranda

Goizuetakoa gazterik sartu dira alkatetzan. 30 urtez beheitikoa dira guztiak eta lehendik alkate lanean aritu gabeak.

G. PIKABEA

Azken hauteskunde hauek haize berriak ekarri dituzte eskualdera. Herri aunitzetako udal-letxeetara alkate gazteak ailegatu dira, eta bereziki Bildu koalizioaren izenean. TTIPI-TTAPAK hartzen dituen Nafa-

rroako 25 udalerrietatik hemeretzitan izendatu ziren maiatzaren 22an alkateak eta horietatik hamabi sekula alkatetzan egondu gabekoak dira. Aunitz gazteak dira; Areso, Goizueta, Leitzakoa, Lesaka eta Sunbillakoa, adibidez, 30 ur-

tez beheitikoa dira eta Arantza eta Baztangoa ere 40 urte azpitik dabilta.

Peio Etxabide eta Oier Eizmendi Lesaka eta Leitzako alkateek 22na urte dituzte, Lesakakoa abenduan 23 eginen ditu eta Leitzako

koak ekainean, kargua hartu baino bi egun lehenagotik bete zituen 22 urte. Amets Inda Sunbillako ordezkariak, berriz, 28 urte ditu, urtarrean eginak. Eskualdeko alkateen artean gazteenetakoak dira, hiruak Bildurekin aurkeztuak, eta egun batetik bertzerera herriko gazte arrunt bat izateko, herriko alkate izatera pasatu dira eta horrek aldaketa ekarri du

euren bizitzara. Batzuek ordura arte zuten egitekoa utzi eta alkatetzari dedikatzen diote orain egunerokoa; bertzeek, berriz, alkate arduraz gain, lehenago lanari ere eusten diote. Ez dute euren burua politikari gisa ikusten, baina maiatzeko hauteskundeetan emaitza onak jaso zituzten euren herrietan eta ilusioz hasi dute ibilbide berria.

OIER EIZMENDI, LEITZAKO ALKATEA

«Gaur egungo gazteria gero eta individualistagoa eta pasotagoa da, nahiz eta herri txikietan ez den horrenbeste nabaritzen»

Azken aldian hedabideetan norbait azaldu bada, hori Oier Eizmendi Leitzako alkatea izan da. Ez berak nahita, Espainiako Auzitegi Nazionalak inputatuta deklarazioa hartu diotelako baizik. Baina hori aparte utzita, «persona alaitzat» dauka 22 urteko gazteak bere burua: «umorea gustuko dut eta nire alderik onenetakoa dela iruditzen zait». Baina bestetik, «lanak aurrera atera behar direnean serio jarri eta lan egiteko 'ahalmena' baduela ere esan digu. Lagunen laguna dela ere gaineratu digu, baita «konfidantza azkar hartzen» duela ere.

«Herri honen normalizazio politikoan nire ekarpen txikia egiteko aukera ona irudituta» eman zuen baiezkoa zerrendaburu izateko proposatu ziotenean: «Espainiako Gobernuaren politika tarteko, herrian aurkeztu ezin zen jende asko zegoen eta norbaitek izan behar zuen alkate. Niri proposatu zidaten eta buelta batzuk eman ondoren aurkeztea erabaki nuen».

Alkate izateak aldaketa «haundi samarra» ekarri omen du bere bizitzara. Izan ere, herriko ordezkari izendatu arte, Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak bukatu eta Ibarako enpresa txiki batean hasi zen lanean: «09:00etan sartzen nintzen lanean eta 13:00etan atera etxera bazkaltzera joateko. 15:00etatik 18:00etara ere aritzen nintzen. Behin etxera iritsita lagunengana joaten saiatzen nintzen, gero etxera joan, afaldu, telebista pixka bat ikusi eta lotara». Orain, alkate izanagatik Ibarako enpresan jarraitzen du eta eguerdian eta arratsaldean lanetik ateratakoan egiten du udaltxeko buelta: «bukatzeko ez dut ordutegirik izaten, eguneko



Oier Eizmendi Leitzako alkateak 22 urte bete zituen kargua hartu baino bi egun lehenagotik.

lanak amaitu arte geratzen naiz. Normalean 21:00etatik aurrera izaten da etxera iristerako». Bi lanek ez diote bere gauzarako denbora gehiegirik uzten: «egunak oso luze bihurtzen zaizkit eta gustuko dudana egiteko ez dut denbora asko izaten». Baina duena aprobetxatzen saiatzen da «lagunekin egon eta gustuko gauzak egiteko». Saskibaloia eta zinema ere gogokoak dituela aipatu digu. «Astebukaeretan koadrillakoek parrandarako gonbidapena egiten didate, baina ni indarberritzen saiatzen naiz».

Gaur egungo gazteria «bizi dugun egoera sozio-ekonomikoa tarteko, gero eta individualistagoa eta pasotagoa» delakoan dago alkate gaztea, nahiz eta, «herri txikietan, zorionez, ez den horrenbeste nabaritzen». Leitzaren kasuan, herri mugimendua da Eizmendiri bere herritik gehien gustatzen zaiona, eta «une zailetan aurrera ateratzeko daukan indarra» ere bai. Lau urte hauetako helburu nagusia, berriz, «gauzak ondo egiten saiatzea izanen dela», adierazi digu.

PEIO ETXABIDE, LESAKAKO ALKATEA

«Gauzak bertze modu batera egiten ahal direla pentsatzen dugulako eman nuen zerrendaburu izateko baiezkoa»

Mendiko lanetik udaletxeko lanera. Horixe egin du Peio Etxabide 22 urteko Lesakako gazteak –aurten 23 urte beteko ditu–. Izan ere, ekainaren 11n alkate izendatu zuten arte, mendian aritzen zen lanean. Orain, ordea, eszedentzia hartu du eta alkatezari eskaintzen dio bere egunerokoa. Pentsatzekoa da eguneko zeregina aldatu zaiola; eta «dena diferentea» dela erran digu: «Lehenengo lanarekin nahiko goiz ateratzen ginen etxetik eta ilunduta ailegatzten ginen etxera. Oraingoak ez du lehengoarekin deus ikustekorik, orain paper kontuak dira». 09:00 aldera joaten da Herriko Etxera eta eguneroko kontuekin joaten zaio goiza, «batzuetan 15:00 arte han izaten naiz, goizago batzuetan eta beranduago bertzeetan. Ez dugu ordutegi finkorik. Eta arratsalde gehienetan ere zerbait egin beharra izaten da». Baina mendiko lanak ematen ez zion denbora libre ere badu: «Orain astetartez lagunekin egoteko eta gustuko gauzak egiteko denbora gehiago izaten dut».

Mendia da Etxabideren afizio haundienetako bat: «betidanik gustatu izan zait». Mendian lan egiten zuen orain arte, baina bertzela ere, mendira joatea gustatzen zaio. Bizikletan ibiltzea ere gustuko omen du, baita lagunekin egotea ere. Eta noski, adin horrekin lagunekin besta egitea ere bai. Hala baieztatu digu berak. Izaeraz, «nahiko lotsatia» izan arren, jendearekin egotea tokatzen ari zaien honetan, «irekitzen» ari dela kontatu digu.

Ilusioz hasia du ibilbide berria gazte lesakarrak, nahiz eta aitortu digunez, «gauza batzuk nahi ez genituen bezala tokatu zaiz-



Pello Etxabide Lesakako alkatea 23 urte beteko ditu urte bukaeran.

gigun». Horren adibide, Kultur Etxearen proiektua aipatu digu: «Kultur Etxea egitekotan bertze modu batera planteatuko genuke, jendearen beharrak ongi ikusiz. Eta udaletxean sartu garenean ikaragarriko proiektua aurkitu dugu eta nahiko lotua, gainera». Bere irudiko, «azken urteetan Lesaka bezalako herri baten tizat gaiza haundiegiak egin dira eta aitzinetik egin dena orain ordaintzen ari da. Zor handia du Lesakak». Egoera ekonomikoa «txarra» dela iritzita, inbertsio haundiegirik ezin izanen dutela egin jakinarazi digu, baina badituzte bertzelako proiektuak: «euskarara bultzatu, lehen sektorea indartu, auzolana martxan paratu...».

Gaur egungo gazteria «bakoitza bere gisara dabilela» uste du Lesakako alkatea, eta «zuzenean zerbaitek ez badigu eragiten ez gara mugitzen, ez dugu konpromisorik hartu nahi». Baina bera, gaztea izanagatik, lanerako gogoz dago, «gauzak bertze modu batera egiten ahal direla pentsatzen dugulako».

AMETS INDA, SUNBILLAKO ALKATEA

«Soberan ez dut deus ere ikusten herrian, baina egitekoak badirela iruditzen zait: eskola berria, biribilgunea...»

Bibliotekonomia eta Dokumentazioan diplomatua da Amets Inda, ekainaren 11z geroztik Sunbillako alkatea den 28 urteko neska gaztea. Zinegotzi izateko aurkeztu zuen bere burua, eta azkenean zerrendaburu izatea tokatu zitzaion. %59,16ko partehartzea izan zen hauteskundeetan, botoen %90,74 jaso zituen bere taldeak. Kargua hartu zuenetik, alkatezari dedikatzen dizkio bere orduak, eta ikasle izatetik alkate izatera pasatzeak bere bizitzan «aldaketa handia» ekarri duela aitortu digu: «Egunero bada zeregina, goizetan udaletxera joan eta bertze edozein lanean bezala egitekoak daude. Sunbillan denak elkarri laguntzen saiatzen gara, eta beraz, beti zerbait egin beharra izaten dugu. Horrez gain, arratsaldetan Udalak parte hartzen duen erakundeetako bilerak izaten ditugu». Kontatu digunez, «momentuz» ez omen du alkate lanean zailtasun haundirik aurkitu «taldekideak nik ez dakizkidan gauzetan laguntzen saiatzen direlako». Zailtasunik ez, baina bere gustuko gauzak egiteko denbora librerik ere ez omen du izan: «hasierako hilabete hauetan ez gehiegi, baina gauzak lasaituko direnaren itxaropena dut», dio. Alkate izanagatik ez du politikari bezala ikusten bere burua: «bertze herritar bat bezala naiz, baina erakunde publiko baten bitartez gainontzeko herritarrentzat egin daitekeen guztia egiten saiatzen dena».



Amets Inda Sunbillako alkatea 28 urte beteko zituen urtarilean.

Gaztea da oraindik Inda, baina badu gainontzeko gazteen inguruan bere iritzia ere: «batzuk mugitzeko prest eta aldaketak bultzatzeko gogoz ikusten ditut, baina bertze batzuk hagitak akomodatuak».

Dena den, Sunbillako alkatea izateaz aparte, Ametsen badiu bere zaletasunak: «egunero zerbait berria ikastea gustatzen zaion pertsona» dela erranez aurkeztu digu bere burua, eta «irakurtzea, musika entzutea, sukaldatzea, bizikletan ibiltzea eta bidaiatzea» dira bere gustuko afizioetako batzuk. «Jendearen artean dagoen giro ederra» da bere herritik gehien gustatzen zaiona, eta lau urte hauetan helburu nagusia «jendea ahalik eta gehien laguntzea» izanen dela aipatu digu.



Nire txanda
Luis GARDE

Amildegiaeren ertzean

Eguerdiro, lanetik etorri eta gero, telebistako berrien ikusle eta entzule bazkaltzen dut. Hau da, eguerdiro amildegiaeren ertzean bazkaltzen dut. *Merkatuoen mugarik gabeko gosea, arrisku-prima, boltsaren erorketa, errezesioa, krisia, depresioa, erreskatea, Trichet, Merkel...* Hiru egunetik bi notiziak txar-txarrak, beldurtzeko modukoak, izaten dira; hirutik bat arnasa hartzea tokatzen da: ez-dakit-noren adierazpen itxaropentsuak, datu positibo bat, burtsaren errebotea... Orduan, *lasaitasuna itzuli da merkatuetara*. Biharamunean berriz amildegiaeren ertzerat itzultzeko. Konproba dezakezue errepikapen honen maiztasun zehatza. Batzuetan aitzineko eguneko zinta sartu dutela iruditzen zait, hain dira errepikariak ekonomia egoerari buruzko berriak.

Ezustez ezuste, gero eta ohituago gaude egoerara, milimetroz milimetro ere amildegitik gero eta hurbilago. Nola bukatuko da hau guzti? Hori ez da Ekonomiako Nobel saridunek ere ez dakite. Horra doa, animatzeko, *jotica* bat: Mundua amiltzen bada, amil dadila; Nafarroa, bere *gubernico*arekin, beti *p'álante*.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Maisu-maistrak haserre

Etxean, karrikan edo lagunartean ikas dezaketena ahantzita beraiei egotzen diegu seme-alaben hezkuntza (zerbait gaizki egin dutenean, batez ere). Haur batekin (zer erranik ez dozena batekin) ordu erdi baino gehiago ematen dugunean sortzen zaigun ezinegona alde batera utzita, txan-txak egiten ditugu beraiein oporrei buruz. Baina langileak dira eta bitartekoak murriztu dizkiete.

Nabarmentzekoak



Rosa ERRANDONEA
Berako baserriak liburuan

Bera baserri baserri izenburupean, herriko zortzi auzoetako baserrien argazkiak eta bertan bizi direnen jakingarriak biltzen dituen liburua aurkeztuko du urriaren 21ean.



Ander IRIZAR
Talorik onena Iruñekoak

Leitzako VI. Talo Egunaren barrenean, hiru-garren urtez talo lehia-keta egin zen. Iruñeko Ander Irizarrek irabazi zuen «betiko errejeta, baina dekorazio ezberdina» zuen talo batekin.



Eneko SARALEGI
Gazte maillean txapel-dun

Euskal Herriko gazte mailako aizkolari txapel-duna izan zen orain bi urte. Iaz, 6 segunduren-gatik aldegin zion txapela berreskuratu zuen Leitzan, irailaren 11n. 18 urte ditu.

Atzera begira → 2001.10.04 / TTIPI-TTAPA 311. zbk



Txapel-dun handienaren agurra duela hamar urte

«Pilota profesionala utzi du XX. mendeko txapel-dunik handienak» izenburupean, Julian Retegi eratsundarraren erretiroaren berri eman zuen TTIPI-TTAPAK. Irailaren 20an jokatu zuen azken partida Retegi II.ak Adarragan eta Abel Barriola lagun zuela, 18-22 galdu zuen Aimar Olaizola eta Armendarizen kontra. Baina emaitza zen gutxienekoa, partida horrekin adio erran baizitzaion kirol honek eman duen izarririk diztirtsuenari. Profesionaletan egin zituen 27 urtetan 22 txapel ofizial jantzi zituen, horietatik erdiak lehen mailako buruz burukoak. «Mano-mano aritzeko pilotari konpletoa izan da, onena» zioen Antton Maizek.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joana Guereniain...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Altsasuko antzerkia, eta Espainiaren erridikulua

Mikel RODRIGUEZ

Euskal Herriko gatazka bere miseriak tapatzeko erabili izan du betidanik Espainiak. Garai batean tiroak, bonbak, molotov koktelak eta gisakoek betetzen zituzten hango prentsa zorrotzaren orrialdeak. Gaur egun, horiek desagertu direnean, aski dute herri ttiki batean pankarta bat, pegatina bat edo auskalo zer agertzea, notizia eta eskandalu bihurtzeko. Begira zer gertatu den berriki Altsasun. Bertako gazteek aski umore onarekin estatuko indarrak eta Espainiako erregea parodiatu dituztelako, *El Mundo* egunkari inpartzial, serio eta demokrata agertu da, Nafarroako Gobernua, Polizian eta bertzelako erakundeetan alarma piztu eta denen arreta horrat bideratzeko. Krisi ekonomikoak, ustelkeriak eta agintarien gaitasun ezak hondatuta dago Espainia, baina aski da Euskal Herriko edozein ttikikeriarekin txinparta piztea, arreta egiazko arazoetatik desbideratzeko. Duela hamar urte horrekin ez zuten ezta hamar lerroko notizia bat idazteko izanen ere, baina aspalditik ikasia dugu Espainiako prentsak eta estatuak erridikuluaren muga gainditua duela. Zortzi mila biztanleko herri batean karrakako antzerki bat egin, eta Justizia ministroak solastu du horrerri buruz, eta eskuin muturreko Manos Limpias sindikatuak Auzitegi Nazionalean salatu du. Normala iruditzen zaie hori Espainian? Indarkeria omen zen Euskal Herriatik arbuia zuten gauza bakarra, eta, orain, umorea ere 'terrorismo' bihurtu nahi dute. Guttierrez Felipe II.aren Armada Garaiezina pikutara joan zenetik (izen aproposa paratu zioten gainera), Europa guziak egin du irri Espainiaren lepotik (tira, orain guttiago, futbolearen onenak baitira, eta futbola gauza inportantea da), baina euskaldun ziztrin horiek ez daitezela gehiegi haizatu. Gure arteko espainolistek ere, Madrillgo nagusiek Altsasuko herritarren aurka proposatutako salaketa eta zigorrak ontzat jo dituzte, haien talantea argi utziz. Euskal Herriko espainolistak urteetan demokrazia lezioak ematen aritu dira independentistek, moraliki haien gainetik zeudela aldarrikatuz, baina, orain, alde baten indarkeria ia arrontean desagertu denean, karta guziak goiti begira gelditu dira, eta ikusi da espainolista gehienak betiko berberak direla, karrikan egindako antzerki baten aurka ematen dakiten erantzun bakarra Polizia, auzitegiak eta zigorrak direla erakutsiz.

«Krisiak, ustelkeriak eta agintarien gaitasun ezak hondatuta dago Espainia, baina aski da Euskal Herriko edozein ttikikeriarekin txinparta piztea, arreta egiazko arazoetatik desbideratzeko»

Arrainek ura ikusten dute?

M^a Carmen BASTERRETxea-Gabriel VALIN (Auzolan proiektua)

Orain duela egun batzuk, Donostiako Aquariumean, lagun batzuekin aurkitu ginen, eta Gatazka Globala dela eta mintzaten aritu ginen. Gatazka honen emaitzak, sentsazioak eguneroko bizitzan jende arruntari antsietatea, estutasuna, estresa, ziurtasun falta eta bakardadea sortzen dituela adierazi genuen. Elkarrizketa honetan gure lagunek galdetu ziguten ea «arrainek ura ikusten duten?». Galdera hau errekurtsio metaforiko bezala erabili zuten islatzeko edo erakusteko kaltea gaurko eredu kulturala, soziala eta ekonomikoa dela. Eredu honen esanahia «Ura Arraintzat dela» baina arrainek ura ez dutela ikusten. Gatazka Globalaren zergatia, eta ura ez ikustearren arrazoia «Eredu Kulturean» atxikituta dagoela. Ez jakite honen zergatia duela mende batzuetan kokatzen zaigu. Beraz, «Eredu Kultural Zapaltzailea» inposatu ziguten; eredu hau «Eredu Patriarkala» zen eta da. Bere oinarria propietate pribatuan datza. Sistema produktibo hau gaur eguneko kapitalismo aurrerakoa deritzona da. Beraz, sistema aurrerakoa talde txiki baten eskuetan dagoena dugu eta populazioa sistema honen zerbitzari bihurtzen gaituzte. Sistema honen oinarriko baloreak lehiaketa, dominazioa, norgehiakoa eta indibidualismoa beharrezkoak dira kapitalismo aurrerakoa mantentzeko. Egoera honen ondorio eguneroko bizitzan antsietatea, urduritasuna, estresa, agresibitate, bortxakeria, bakardadea eta barruko nahigabea dira. Eredu patriarkala duela mende gutxi inposatu ziguten. «Euskal Herriko Eredua» «Eredu Patriarkalaren» aurretik «Eredu Matrilineala» zen. «Eredu Matrilineala» Europako lehen kulturetan sortu zen, eta honen zergatia gure arbasoek komunitatearen eta Herriaren bizitza ziurtatzeko eraiki zuten. Lehenbiziko euskaldunek «Ama Lurrari» behaketa egin ondoren eredu matrilineala sortu zuten. Hasierako behaketa honetatik baloreak eskuratzen dituzte eta balore hauekin bizitza soziala, pertsonala eta sistema produktibo propioa osatuz. Euskal gizonentzat balore hauek eskuzabala izatea da, «Ama Lurrak» janaria eskaitzen duen bezala. «Ama Lurrak» lanaren bidez zaintzen digun bezala; babestea berak babesten gaituen bezala. Bai ugalketarako eta baita komunitatea defendatzeko indartsu izateko ere. Euskaldunek behaketaren bidez Euskal Emakumearen jarrerak «Ama Lurraren» ezaugarri antzekoak zituela jaso zuten. Esko zabala, ama, umeen eta familiaren zaintzaile, elikatzen eta babesten duena, kulturarekiko ahozko transmisioa eta abar. Ezaugarri honengatik emakumea euskaldunentzat «Ama lurra» bezala jakintsua dela barneratu zuten. (...) Gaurko gatazka globalari aurre egiteko, Euskal Herriari bizi garenolan proaktiboa antolatzea eta bideratzera derrigortzen gaitu bai Eredu Sozialean eta bai Ekonomikoan ere. Beraz, «Auzolana» eta «Biltzarra» antzinatek datozen egiturak izanik gaurko gizartearen egoera gainditzeko egitura beharrezkoetan bilakatzen dira. Egitura hauek eredu matrilinealean sortu ziren batez ere gure Herriaren bizitza eta iraupena ziurtatzeko. Akuariuneko arrainek aldaketaren beharra ikusiko balute agian aldaketa hau ezinezkoa dela pentsatuko dute. Baina gure Aquariumetik itsas askatasuna 20 metro tara aurkitzen da.

Irakurleak mintzo

Euskal
Artzainak
Ameriketan

Laura IGANTZI MITXELENA

*Lesakan bildu ginela
zazpi urte igaro dira
Hura izan zen neretzat
besta honen hasiera
Gutti juntatu ginen
hogeitaz artzain edo horrela
Bainan nere bihotzean
gordetzen dut goxoena
Arrazoia jakin nahi zue?
hagitz errez da esatea
Elkarte xume haretan
nere aita zegoela*

*Hurrengo urtean berriro
elkartu ginen Lesakan
Zuendako gehienentzat
hori izan zen lehena
Eskerrik ordun banitun
laguntzaileak ondoan
Sunbillako artzainak eta
Miren ta Jesus Goldaraz
Doloresen kemena eta
nere amaren indarra
Zuei esker kontu nitun
egun hartako negarrak.*

*Aldudes, Gernika eta
hurrengo Elizondo
Ondotik Burgete eta
Sunbillan baita ere ondo
Aurten Eugi-Zubirin,
Aezkoa, Artze eta Erro
Urteik urtera biltzen
ditugu artzain gehiago
Batzuk bidean gelditzen
zaizkigu urtean zeharo
bainan elkartearen baitan
gelditzen dira betirako.*

*Guzti hau antolatzeko
badago jende andana
Badakizue nor zareten
hartu zazue nere eskerra
Zuei esker atera da
gure elkarte aurrera
Holakoa merezi du
hemen dagoen jendea
Goraipatu nahiko nuke
egin duzuen papera
Ohore zuri atta eta
Ohore euskal artzaina.*

Eskerrik asko

Lurdes JUANTORENA, Oier
EIZMENDI, Saioa IRAOLA

Lurdes, Saioa eta Oier gara, Leitzako txupinazoaren kontura Madrileko Auzitegi Nazionalera deituak izan garen herritarrak, idatzi hau egin dugu gertatutakoaren azalpen txiki bat emateko eta jasotako babesa eskertzeko.

Arrazoi desberdinak tarteko aurtengo Leitzako pestetako txupinazoa berezia izan da gu hiruntzat: agintaldi berriko aurreko txupinazoa zelako eta Bilgune Feministak botatzuelako. Baina, abuztuaren 10eko festen hasierako ekitaldiak zoragarri joan baziren ere, hurrengo egunean komunikabideetan ezjakintasunetik kontatutako kronika irakurtzeko aukera izan genuen. Kronika hau Yolanda Barcinak eta *Diario de Navarra* elkarrekin prestatuko Leitzaren eta bertako herritarren kontrako eraso berri bat izan zen, gertatutako itxuraldatu eta euren interesen arabera erabiltzeko.

Ondorengo egunetan izan genituen berri guztiak prentsaren bidez jasotak izan ziren, auzipezuak ginela eta Madrilerara joan behar genuela Espainiako Auzitegi Nazionalen deklaratzera «terrorismoari gorazarre» egitea leporatuta, besteak beste. Komunikabideetatik berriak jaso eta 3 egunetara jaso genituen zitazioak. Gure ustez hau ere onartezina da. Honen argierakusten du ko-



Bota bertsoa

Eneko FERNANDEZ (Baztango bertso eskola) • Doinua: Martxa baten lehen notak

Murrizketak zerbitzu publikoetan

Irakaskuntzan zer gertatzen den jendea dabil galdezka ondoko hau da maixu soil batek egiten dun azterketa ez da bi ordu gehigo lanean ez jarduteko apeta ez da pribilegiatu batzuei egindako murrizketa estatuaren estrategian jarri behar dugu arreta zerbitzu publikoei eraso gibelean du gordeta beraz, altxa dezagun ahotsa elkartasunez beteta, gizarte osoan ongizatea arriskuan dago eta.

Osasungintzan aixurrak sartzen ausartu ziren aurrena lotsarik gabe, bertze arlotan sartuko dute hurrena kapitalaren tentakuluek ziprizintzen dute dena, langilegoan aurka egiteko beti daukate baimena. Altxa dezagun pareta handi bat hau geldituko duena justuago den gizarte bat da jokoan dagoena gizarte gisa erantzuteko ailetu zaigu orena denok batera joatea baita irtenbiderik onena.

munikabide gehienak indar politikoaren menpe daudela. Eta bide batez, deklaratu aurretik eta ondoren jasandako intoxikazio mediatikoa salatzen dugu. Berriro ere testuingurutik ateratako esaldi hutsalei garrantzia eman baitiete.

Egunak, ez zirela berehal pasatzen, ezta gure gaineko zein Leitzako herritarren gainean komunikabideetan esandakoak, baina gure herriak, herritarrak, lagunak, familiakoak berriro ere erakutsi dugu elkartasunak eta herritarren arteko babesak ez duela etenik. Adibide ditugu aurreko asteetan eginiko mobilizazioetan jendeak eman duen babesa, norberari animoak eta babesa eskaintzera etorri zaizkigun herritarrak, atxikimendua eman duten herritarrak, eragileak, sindikatuak zein alderdi politikoak e.a. Eskerrik asko bihotz-bi-

hotzez!

Jasotako babesa ikaragarria, zoragarria eta ezinbestekoa izan da: hirruak, burua tente, irribarre txikia ahoan eta bihotza lasai Auzitegi Nazionalera joateko. Eta halaxe egin dugu buelta. Lanean jarraitzeko gogoz eta etortzen denari aurre egiteko indarrez.

Besterik gabe, eskerrik asko guztiagatik eta ahalik eta lasterren honekin amaitzea espero dugu. Besarkada estu bat guztioi.

Pirritx eta Porrotx
Lur dantzalekuan

Izaskun ZUBIALDE

Irailaren 18an Lur dantzalekuan Pirritx eta Porrotx beraien antzezlan berriarekin izan genituen. Ulertua dudanez, Baztango Ikasto-

lak antolatutako ikuskizuna izan zen.

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiot ikastolari horrelako ikuskizuna antolatzeagatik, urtea joan eta urtea etorri (ez da lehenengo urtea bertan egoten garenak eta). Baina kritika txiki bat ere egin nahiko nuke. Pasa den urtean bezala, aurten ere jende sobera zegoela iruditu zitzaidan, edota tokia txiki egia zela. Haurrek ez zuten eserita egoteko tokirik eta ordu eta laurden belau-nika egon behar izan zuten, eta hori aurreko aldean geundela, zenbait guraso (haurrak bakarrik ez baitira joaten) lu-rean eserita egon behar izan zuten (ama batzuk gainera haurdun zeuden). Bestalde baliteke ni hipokondriaka xamarra izatea baina ume kopuru hori ikusita zera pentsatzen nu-

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**Tel.: **948 63 54 58**Faxa: **948 63 54 57**

Irakurleak mintzo

en: «hemen zerbait gertatuz gero, nondik aterako ditugu haur guzti hauek».

Nire galdera hau da: zergatik Elizondoko herriak horrelako frontoia izanik ez da bertan egiten horrelako ikuskizuna? Aforo aldetik askoz handiagoa da eta denentzat toki gehiago izanen zen, haurrak lasai dantzatu ahal izango zuten eta gurasoak eserita egon, segurtasun aldetik ere askoz errazagoa izango zen...

Ez dakit baina ea datorren urterako gomen-dio hau aintzat hartzen duzuen, nik uste askoz eskertuko genukeela.

Mila esker.

Aroztegiak bi solas

Joseba OTONDO BIKONDOA (Aroztegia eta gero zer? taldeko kidea

Aroztegiako aferak zorionez gaurkotasuneko gaia izaten jarraitzen du; eta zorionez diot, zeren aitzineko legealdian NaBairen eta UPNren erabateko adostasunarekin egitasmo espekulatuak horri behin betiko onespina eman baitzitzaion. Nioen moduan gaurkotasuneko gaia da, baztango udaletxe berriak Bilduren eta Ezkerraren gidaritzapean egitasmoaren inguruko txostena galdegin duelako, horrela, proiektua gibe-

rat botatzeko dauden aukerak zein diren jakiteko. NaBai eta UPN proposamen horren aurka azaldu ziren, baina gainera, NaBaik, alimaleko zurikeria ariketa batean gaiaren inguruko herri-galdeketa eskatu zuen. Alimaleko zurikeria ariketa bai, zeren egitasmoaren inguruko herri galdeketa dagoneko egin baita, 2009ko urriaren 9an, eta bertan parte hartu zuten leharroztarren 67% aurka agertu zen, %26 alde eta %7 txuri. Oraingo NaBaikoek diotena zera da: beraiek NaBai 2011 direla, aitzinekoari buruz desberdinak; ah, bai? Orduan zergatik babestu zuten hauteskunde kanpainan aitzineko udal taldeak

egindako guztia? Eta zergatik aurkeztu ziren aitzineko udal-gobernuaren proiektu politikoaren jarraipenaren berme gisa?

Beti ere, NaBairen herri-galdeketa eskarari Aroztegiako etxegintza egitasmoaren erabaki eremua Baztan izatea aski eztabaidagarria da. Etxegintzak herri bakoitzeko beharrei erantzun behar die, beraz, herri bakoitzari dagokio haren gaineko eztabaida.

Akitzeko bidean bi kontu gehiago: alde batetik Aroztegia eta gero zer? taldekoek aitzineko udaletxearen behin betiko erabakia errekurritua dugula eta afera auzibideetan dagoela. Eta bertetik, *Diario*

de Navarran 2011ko eriaroaren 8an argitaratu zutenez, Aroztegiako egitasmo espekulatuak nagusietako bat iruzur fiskalean harrapatu zutela, eta epaiketa sahiesteko 2,4 milioiko kalte ordaina ordaindu behar izan ziolan Estatuko Zergen Agentziari. Horrelako enpresa-gizon «finekin» tratuan ibili zen aitzineko udala? Eta horrelako enpresa-gizon «finen» proiektu urbanistikoetaz fidatu behar al dugu baztandarrek?

Oraino tenorez gauden Aroztegia gelditu zagon!



HAURRENTZAKO MALABARE TAILERRA
Urriaren 7an, ortziralarekin, 17:00etan, Herriko Plazan

KANTALDIA, AIRE AHIZPAK
PIANO ETA TXISTU EMANALDIA
Patxi Hernando eta Josu Goia
Urriaren 14an, ortziralarekin, 20:00etan, Elizan

TXISTU KONTZERTU DIDAKTIKOA, IRUNGO BANDA
Urriaren 21ean, ortziralarekin, 14:30ean, Kultur Etxean

BERTSO AFARIA
Lesaka eta Leitzaren arteko bertso desafioa
Urriaren 22an, larunbatarekin, 21:00etan, Herriko Ostatuan

BERTSOLARIAK
Lesakatik Joar, Terre eta Josu, eta Leitzatik Luze, Zili eta Iñigo
Gai jartzailea: Julen Zelaieta
(Txartelak erosi aitzinetik!)

ETXALARKO 2011
KULTUREGUNAK

ANDRE TA JABE

Azken hamarkadetan zehar, hainbat aldaketa harrigarri ikusi ditugu lanean eta gizartean. Horien adibide dira emakumezkoak lan-merkatuan era masiboan sartu izana eta hezkuntzara heldu izana. Aurre-rapauso horiek direla eta, asko emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak laster desagertuko zirela pentsa genezakeen, baina hori ez da horrela izan. Berdintasun «formalaren» eta «legalaren» estalkiaren azpian desberdintasun handia dago.

Gizartearen egiturak oinarri androzentrikoetan finkatuta daude oraindik, biztanleriaren erdia emakumezkoek osatu arren, munduko pobrezia %80a biltzen dute, eta baita analfabetismoaren, langabezia eta jarduera ezaren indizeak altuenak ere.

Emakumeek esparru publikoan parte hartzeko prozesuarekin batera ez da gertatu gizonek esparru pribatuan parte hartzeko prozesurik. Horrez gain, ez dira sortu, behar diren zainketa zerbitzuak. Ondorioz, emakumezkoek oraindik etxeko lanetan arduratzen dira osoa beren gain uzten duen rola betetzen segitzen dute. Emakumeen eta gizonen ohituren eta arduren aldaketek epe ertain eta luzeko prozesuen emaitza izan behar dute. Zainketaren etika berria eratu behar da. Etika berri horretan balioztat hartuko da emakumeek eta gizonen batera hartzea beren gain esparru pribatuak ardurak.



Emakumeek boza ematearen kontrako kanpaina, AEBn 1911n.

«Emakumeek etxeko lanei lau ordu eskaintzen dizkiete, gizonezkoek aldiz bat bakarrik»

(INE Estatistika Institutu Nazionala, 2002)

BERDINTASUNAREN DIAGNOSTIKOA

Orokortasunetik hurbiltasunera pausua emateko, aurten Berdintasunaren Diagnostikoa Bortziritan egiten ari gara, etorkizunean landu behar diren irizpideak eta alorrak definituz. Landu beharreko ekintzak, lau taldetan

DATUA

%80

biztanleriaren erdia osatu arren, emakumeek munduko pobrezia %80 biltzen dute

sailkatzen ditugu: Emakume eta Gizonek Hezkidetzeta eta Erantzukidetasunaren aldeko itunak, formazio saioak, baliabideen sortzea eta sentsibilizazio jarduerak. Diagnostikoaren bertze helburua, gizarte eragile edo Berdintasunarekin sentsibilizatuak dauden pertsonak bereganatzea da, elkarrekin jarduteko. Jakinmina edukiz gero, gure lan dinamikan parte hartzera animatzen zaitugu. Ez dugu bukatu nahi, TTIPI-TTAPA aldizkariari eskerrak eman gabe. Orri baten 2/3a eskaini digute, hilabetero dauzkagun berri eta nobedadeak zabaltzeko. Mila esker!

Bortziritako Gizarte Zerbitzuak • ssb@lesaka.net • Tel: 948 635036

Prensatik bildutakoak



«Goizuetak ez dauka zorrik ezta inolako krediturik ere, eta hori da garrantzitsua. Beraz, Udalaren egoera ekonomikoa ez da txarra. Hala ere, etorkizuna nahiko iluna da, orain arte, mendiaren ustiapena zelako herriaren diru iturri nagusia, baina egindako aurreikuspenen arabera, lauzpabost urtetan amaitu egingo da hori».

«Nafarroako Gobernuak ez digu pinu gehiago landatzen uzten zuhaitz hauek gaixo daudelako, beraz, beste irtenbide bat bilatu beharko dugu».

Pablo MIRANDA

Goizuetako alkatea
D. NOTICIAS, 2011.09.19

Eskeintzen ditugun... ez da erabilgarri plataforma igogailu berriak auki berriak...

Behetik

Aztoraga Iakki, 14 • T: 943 368 781 • 671 073 886
www.behetik.com

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etiberritasun eta jarduera espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumakortasunak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltzio, 77. Behetik - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713



Udazken
Neguko
Moda 2011

BL

arropa-denda

BEOLA ETXEA • Ibardingo gaina, 30 • BERA T. 948 630 709

DENBORALDI BERRIA!
gizon eta emakume arropa

Bench.

ARMANI

HH
Just Heritage


REGIS

smash!

emeraldman

OSAGARRIAK, BITXIAK, BOLTSOAK ETA OINETAKOETAN AUKERA ZABALA

UDAZKEN-NEGUKO MODA BERRIA DAGOENeko ZURE ESKURA!!!



OSAGARRIAK

Udazken-neguan bitxi handiak eramanen dira



Aurreko denboraldian bezala, bitxiak XXL formatuan ikusiko dira orain ere. Bitxi handiak, testura desberdinak bateratzen dituzten diseinu ausartekin, kolorearen orekarekin jostatuz eta harribitxi ugarirekin.

Neurri handiko eskumuturrekoak (brazalete=besokoa), diseinu kargatuak dituzten belarritako estra-luzeak, lepoko handiak diseinu bitxiekin, eraztunak kolore ugarietan eta harribitxi haundiekin apainduak.

Ordularietan oinarrituko tonuak bueltatuko dira. Modelo ugaritan aurkeztuko dira aurten, txikiak, haundiak, kirolean ibiltzekoak, ultrafemeninoak, unisexak, plastikozkoak...

BOLTSOAK

Estilo ugariko modeloak ikusiko dira aurten. Ez maxi ez mini boltsoak, aurten neurri ertaineko boltsoak izanen dira nagusi. Sugearen larrua imitatzen duten estanpatuak ikusiko dira, larru naturalean zein sintetikoan. Kolore biziak ere eramanen dira, neguko arropen kolore ilunei ukitu argia emateko: urdinak, purpurak, arrosak, gorriak, laranja, mostaza eta hori kolorekoak.

GERRIKOAK

Emakumearen gerriaren goikaldean eramanen dira eta modelo desberdinak ikusiko ditugu. Gerriko elastikoak, tonu neutro zein koloretsuetan, zabalak zein meharrek, belarri haundi eta karratuekin eta zenbaitetan, harribitxiz egindako detaileekin.



LEPO-ZAPIAK EDO FOULARRAK

Neurri handiko lepo-zapiak estanpatu ugarirekin: loreak, figura geometrikoak, hindu inspiraziokoak edo animalien larruaren itxura duten *animal print* estanpatua dutenak. Kotoizkoak, zetazkoak edo gazazkoak.

KAPELAK

Geroz eta indar gehiago hartzen ari den ohitura da txapelak eta txanoak erabiltzearena. Aurten estilo ugaritako txapel, txano eta kapelak ikusiko dira.



Hegal zabaleko maxi-kapelak edo *boho* kapelak asko ikusiko dira, 70. hamarkada gogoratuz. Testura, kolore eta neurri ugaritan aurkituko dira.

Look hiritarragoa lortzeko, ohialezko txanoak ere eramanen dira kolore argietan, indarrean dagoen estilo militarri jarraituz.

Artilezko txanoak ez dira inoiz modatik pasatzen. Aurten motibo etnikoak dituztenak nagusituko dira, ukitu bohemioa emanez *look*ari.

Larruzko kapelak, errusiar txanoen estilokoak, belarri-babesarekin ere ikusiko dira noizbehinka.

HAURREN MODA

British eta College estiloak nabarmenduko dira

Nesketan indar handia izanen dute soineko kamiseroak

Bi estilo erabat desberdin nagusituko dira aurtengo udazken neguko haurren modan. Alde batetik, British estiloa eta College estilo klasikoek garrantzi handia izanen dute. Bertzetik, estilo hiritarra ere ikusiko dugu, ukitu bohemiaorekin, txapel eta botinei garrantzia emanez.

Estanpatuei dagokionez, motibo geometrikoak nagusituko dira. Horrela, koadrozko estanpatuak atorretan, galtzetan, jaketan, gonetan eta osagarrietan aurkituko ditugu. Aldiz, jertseetan irudi geometrikoak dituen *Jacquard* izeneko puntuzko ehuna nagusituko da.

Jaka eta berokietan, larrua eta ilea izanen dira ezaugarri nagusienak, *jeansak* eta bota altu edo botinekin konbinatuz.

Belusa erruz ikusiko da udazken neguko arropetan, bereziki galtzetan, neska zein mutiletan. Nesketan indar handia izanen dute soineko kamiseroak kolorezko leotardoekin konbinatuak.

Mutikoetan, jertseak *oxford* atorrak edo ator marradunen gainetik ikusiko dira. Estilo militarreko parkak eta galtzak ere bere garrantzia izanen dute



30 marka baino gehiago, prezio guztietakoak

Bertan eskuz egindako soinekoak

Bodyak, barruko arropa, leotardoak, gaitzerdiak, seaskak, oinetakoak (XTI Kids, Elite Kids)

DESIGUAL MARKAREN ESKLUSIBA

mirentxu

Serapio Mugika, 15
IRUN
943 618 033

Ordizia, 5
ORDIZIA
943 881 273

JACKET
€39⁹⁵

JANS/POINTE
€14⁹⁵

Mikel Goñi KIROLAK



KIROL MODA
Kirola egiteko behar duzun guztiak
Markarik hoberenak!



**EMAKUME eta
GIZONENDAKO MODA**



50 euroko erosketarengatik
5 euroko bonoa SIMPLY
Supermerkatuan

NAFAR MENDI Merkataritza Zentrua
ARRAIOZ (BAZTAN)

ILEA-EMAKUMEZKOAK

Udazken neguan txirikordak atzealdean eramanen dira

Kolorei dagokionez, tonalitate naturalak nagusi izanen dira


Udazken neguan txirikorda deseginak, motosak hainbat maneratan bilduak eta ile luzea eramanen dira.

80ko hamarkada iradokitzen duten ile luzeak boladan egonen dira, ilea liso eramanez edota kizkur/uhin arinekin.



Messy izeneko orrazkera bilduak ikusiko dira, ilea alde batera bildu, ile motots batzuk aurpegiaren bi aldeetan solte utzita eta bildutako ilea harrotua, deseginaren efektuarekin. Alde batera orraztuak, marra erdian eta erdi deseginak.

Txirikorda edo trenzak alde batera bilduak eraman beharrean, orain arte egiten genuen bezala, udazken neguan atzealdean eramanen dira, bizkarretik erortzen. Beti deseginak, harrotuak.



Mototsak hainbat maneratan ikusiko ditugu, ba-juak ile-marra erdian eginda, alde batera bilduak eta deseginak, edo altuak gomina ukituarekin.

Ile soltea zein bilduarekin, udazken-neguan ile-marra erdian eramatetik alde batera eramatera pasako gara.

Ile motzetan *Bob* izeneko ile mozketa nagusi izaten segituko du. Udaberri udan bertsio asimetrikoan agertzen bazen, udazken neguan punta berdinduekin eta kopeta-ile haundiekin ikusiko dugu.



KOLOREA

Koloreei dagokionez, tono naturalak nagusi izanen dira, bereziki marroi koloreak eta ile gorriak, beti norberaren ile kolore naturalera gehin hurbiltzen den tonalitatea bilatuz.

DIADEMAK


Diademak erruz ikusiko dira, bitxi moduan *look* erromantikoa goak lortzeko, hainbat koloretan eta efektu trenzaduekin *High Class* mototsak (haundiak) inguratuz edota zetazko zintetan, lazoak eginez edo turban- te moduan lotuz.

Zapelak gerroz eta garrantzi handi- goa izanen dute, batez ere egun be- rezietako orrazkeretan.



GIZONEZKOAK

Gizonezkoei dagokionez, ile motxa nagusi izaten segitzen badu ere, kopeta-ileak, ile-gando- rrak eta tupeak aurreko denboraldian baino gehiago ikusiko ditugu.





LASER DEPILAZIOA

Laser depilazioa vs fotodepilazioa

Azken urteotan laser-depilazioa edo fotodepilazioa hitzen baitan hartzen diren hainbat depilazio-teknika agertu dira, elkarren artean nahasgarri gertatzen ahal direnak. Fotodepilazioa hitz generikoa da eta, berez, argien bidez egiten diren depilazio sistema guztiak definitzen ditu. Eta laser-depilazioa, aldiz, ilearen gainean era selektiboan jokatzeko ahalbidetzen duen argi bidezko depilazio sistema bat da, ehunak edo azala mindu gabe. Laser bidezko edozein depilazioaren xedea ile folikuluaren suntsidura izaten da. Horretarako, ilearen pigmentuaren (melanina) inguruan beroa sortzen da eta ile horren folikuluak suntsitzen da. Dena den, era desberdinetan jokatzen dute:

LASER-DEPILAZIOA

Kolore bakarreko argi purua (monokromatikoa) igortzen du, lerro zuzenez, eta argia osatzen duten fotoi guztiak norabide berean bidaiatzen dute.

ARGI PULTSATUA

Fotoi mota ugari osatutako argi mistoa (polikromatikoa) igortzen duen laserra da. Argi izpia norabide guztietan jaurtitzen da.

Laser-depilazio motak

ALEJANDRITA LASERRA Kolore gorriari dagokion 755 nm-ko uhin-luzerako argia igortzen du. Beste ekipoen aldean bi abantaila garrantzitsu eskaintzen ditu: argi pulsu laburrak igortzen ditu eta spot diametro handia du. Pulsu laburrak kalibre txikiagoko ilea edo ile fina tratatzeko funtsezkoak dira. Bestalde, tratamenduko spot-ek munduko depilatzeoko laserrik azkarrenean bihurtzen dute.



DIODO LASERRA 800 nm-ko uhin-luzerako argia igortzen du (gorri iluna). Bi abantaila garrantzitsu dauzka: bere azalaren hozte sistema aurreratua eta bere pulsu luzeak. Ezaugarri biek larruazala babesteko ahalbidetzen dute. Eta, aldi berean, udan beltzarandutako azalak edo arraza beltzeko pertsonak depilatzea ahalbidetzen digu.

SOPRANO LASERRA 800 nm-ko uhin-luzerako argia igortzen du (gorri iluna), diodoak egiten duen bezala. Ia minik gabeko laserra da eta beltzarandutako azaletan erabiltzea ahalbidetzen du segurtasun osoz.

MAKILLAJEA

Udako fluor koloreen ordez tonalitate naturaleko makillajeak udazkenean



Aurpegia natural agertuko da, makillaje hauts guti emanez eta masailak gorri ukituarekin, bisaiaren formak azpimarratuz.

Begietan *smokie eyes* efektuak indarrean segituko du, nahiz eta udan nagusi ziren tonalitate urdinak desagertzen joanen diren tonalitate marroi eta beltzek indarra hartzeko. Zilarrezko kolorea duten hautsak ere ikusiko ditugu, halako ukitu dizdiratsua emanez.

Begietako delineatzaileak indarra hartzen du berriz, kolore gris eta beltzean. Betileak nabarmen handituak izanen dira, *Twiggi* inspirazioaren tendentzia segituz. Betile artifizialak ere maizago ikusiko ditugu, 60. hamarkadako itxura imitatuz.

Horrez gain, bekainak asko markatuko dira, gizonezkoen bekainak baidiran.

Hala ere, udazken neguko makillajearen ezaugarriarik nagusia atenzioa edo harreta ezpainetan kokatzea izanen da. Ezpainak kolore indartsu eta sendoz margotuko dira aurtengo udazken neguan: gorri kolore bizikoak, granateak eta baita moreak ere. Gainera, ezpainak perfilatua agertuko dira, ohikoa dena baino gehiago.

Masajea eta zelulitisa



Emakumeetan zelulitisaren agerpena laguntzen duten faktoreen artean daude honako hauek: antisorgailuak hartzearen alboko efektuak, emakumeen gorputzat berez sortzen dituen hainbat hormona, sedentariismoa, likidoen erretentzioa, janari ohitura ez egokiak, arropa estuegia erabiltzea... Izan ere, munduko

emakumeen %90ak ba omen du zelulitis arazoren bat.

Hortaz, masajeak hartzea gel edo krema antizelulitikoak erabiliz, ariketa fisikoak egitea eta elikadura ohitura egokiak hartzea lagungarri izanen dira zelulitisaren aurkako tratamenduak efektua izateko. Alabaina, aldaketak ez dira berehala agertuko baina, poliki-poliki, hasiko dira nabaritzen. Holakoetan, berehalako efektua egiten duten tratamendu bakarrak kirurgiarekin zerikusia dutenak izaten dira. Hori bai, tratamendu kirurgikoak (masoterapia edo liposukzioa) erradikalagoak dira eta ekonomikoki garestiagoak ere.

Jaimerena
ileapaindegia

GIZONEZKOAK
EMAKUMEZKOAK

ESTETIKA
SOLARIUM-A

Jaimerena

Tel. 948 581 773 - Santiago, 19 - bilakas - ELIZONDO

Arbata zahala!

ARRATE & ESTETIKA ZENTROA

Laguna, lagungo urtean baina merkeago!!
eskatu prezio zerranda!!

- Bigotea 30€
- Bigotea eta barbilu 55€
- Harika erdiak 125€
- Harika erdiak eta ingu edo zula 130€
- Harika erdiak, ingu eta besapeak 175€
- Harika osoak 200€

Zimuren aurkakoa 60€/ses.
Zelulitisaren aurkakoa 35€/ses.
Argitzeko tratamendua 40€/ses.

ESKATU PREZIOEN ZERRENDA

Intzakerik, 7 | DONEZTEBE (Nafarroa) | 948 455 296

ESTIBALIZ
estetika zentrua

Liposukzioaren
alternatibarik haberena.
Salo bakoitzean
1 eta 4 cm arteko
balumen gaitzea

KABITAZIOA 35€ bakoika

T: 948 581 360
606 738 466
Xalbador, 14
ELIZONDO
Zarpigunizte, 6
DONEZTEBE



TENDENTZIAK

Udazken-negurako heldu diren joera nagusiak

Denboraldi berri honetan nagusituko diren joeren erreposoa egin dugu hemen. Hona hemen!

Modaren munduan beti galdetzen dugu ea zer den eramaten dena, eta orain hauxe da erantzuna: dena. Udazken-neguko denboraldian tendentzia ugari egonen dira, baina honako hauek nagusituko dira:

LARRUA ETA GARDENTASUNA

Ez dago emakume atsegin eta goxoaren itxura zabaltzen segitu beharrik, nahikoa izan genuen aurreko udan. Orain, emakumezkoak indarrez hartuko ditu larrua eta itxurarik fetixistenak.

40, 50 eta 60 HAMARKADETAKO MODA

Hamarkada batekin aspertzen bagara, beste batera egin dezakegu salto. Denboraldi honetan hiru hamarkada hauetako moda nagusituko da. Hamarkada bat soilik aukeratzen dutenak 40ko hamarkadako estiloa hautatuko dute. *Ladylike* estiloa gustuko dutenentzat arras berezia.



MOD BERRIA

New mod edonon izanen da, eta ezinezkoa dena birformulatzeko gus-tuan oinarritzen da estilo hau. Estilo honetan 60ko hamarkada indartsu sartuko da. Soinekoak eta berokiak izanen dira onena.

SUGEAREN ESTANPATUAK

Lehian, sugearen estanpatuak leopardoaren estanpatuari irabazi dio. Hala ere, azken hau mokasinetan ikusten segituko dugu.

ESTANPATUAK TANTOEKIN

Udazken honetan, marren ordez tantoak dituzten estanpatu berriak iritsiko dira. Tantoek irabazi egin dute eta tamaina ugaritan ikusi ahal izanen ditugu: gardentasunekin edo gardentasunik gabe, soinekoekin, *topekin*... Izugarritzko aniztasuna egonen da.

AZALAK

Udazken-neguko denboraldiko moda azalez beteko da. Beroki ikusgarrienak datoz berriro: azal handiak, apaindurak lepoan, papar-hegaletan edo mahuketan.

URRE KOLOREKO JANTZIAK

Azalen antzera, jantzi urreztatuak luxuaren baloreetatik hurbil egonen dira.

MODAKO KOLOREAK

Zerrenda zabala da baina, orohar, hauexek dira nagusituko direnak: gorria, berdea, urdina, arrosa, morea eta beixa, besteak beste. Gauerako, aldiz, beltza izanen da nagusi.

EMAKUMEEN MODA

Bakero zabalak ala estuak?

Azken aldian bakero estuak nagusi diren arren, aurten 70. hamarkadako galtzak izanen ditugu gure artean, eta bi estiloak lehian egonen dira



Bakeroak modan daudela ukaezina da, denboraldi guztietan erabili izan ditugu eta horrela segituko dute. Gaur egun, ordea, ez da hain erraza bakeroak aukeratzea, izan ere, aukera hain da zabala hauek guztiak aurkituko ditugula dendetan: *boyfriend, slim fit, regular fit, straight cut...* Gorputzaren arabera egokitzen da estilo bakoitza.



Aurreko urtean gorputzera lotuta geratzen diren galtzak jantzen genituen, eta orain ere jantzen segituko ditugu. Aurten, aldiz, 70. hamarkadako janzkerara itzuliko gara, galtza zabalak.

Azken aldian famatu asko ikusi ditugu galtza zabalak jantzita, eta horietako batzuk dira Blanca Suarez, Melanie Griffith eta Sonia Vergara. Hainbat jende galtza estilo hauen kontra dagoen arren, arras erosoak direla aitortu beharra dago.

Galtza estuak, aldiz, gutxiago ikusiko ditugu orain dendetan, baina jendeak galtza hauek jantzen segituko duela argi dago. Eta jendeak jantzen dituen bitartean, gure artean izaten segituko dute.



JUAN J. PIKABEA
SENARGAIENTZAKO TRAJEA
ZURE NEURRIRA
 15 egunez

Neurri handiak
 Galtzak eta hokeroak 70 arte
 Atoerak 56 arte
 Jertseak
 NEURRIA ERDIAKO GALTZAK

Amexila s/g - DONEZTELE - 948 453 070



ELIZONDO
HERRI ERDI ERDIAN
 948 580 209
 Larunbeak aratsaldotan irekia

VIRGILIO
 FAMILIA
 UGARIENDAKO
 %10eko deskontua

**UDAZKEN-NEGUKO
 KOLEKZIO BERRIA**



GIZONEZKOEN MODA

Nola jantziko dira mutilak datorren negu honetan?

Kolore biziak grisarekin konbinatuta eta estilo militarra izanen dira neguko joera nagusiak



Udazken/neguko denboraldian nesken artean nagusituko diren joeren berri eman ondotik, mutiletan zer nolako jantziak ikusiko diren aztertuko dugu.

Diseinatzaile ospetsuenek kolorearen aldeko apustu garbia egin dute 2012ko neguari begira eta estilo militarrek sekulako indarra hartuko du. Gainera, jantzi militarrek beste estilo batzuekin konbinatuta eramanen dira.

Jaka, txaleko eta osagarri militarrek moda ibiltoki garrantzitsuenetatik pasatu dira dagoeneko. Bestalde, *preppy* estiloak ere protagonismoa hartu du mutilen artean.

Aipatu bezala, koloreak indartsu segituko du gurean eta arropa distiratsuak ere erakusleiko gehienetan ikusiko dira. Jantzi zuriekin eta beltzeekin konbinatuko ditugu koloredun arropak, baina, baita grisarekin ere. Kolore grisak trajeetan, berokietan eta gaueko jantzietan ere indarra hartuko du. Beraz, kolore bizidun jantzien eta arropa grisen arteko konbinazioa moda-modan egonen da.

HERCHI
 MODA HOMBRE
 Surogo Mujka, 11
 20302 IRUN
 T. 943 612 626

CAPELETTI
 Mendol Merkatal Zentzue
 20302 IRUN
 T. 943 624672



OINETAKOAK

Emakumeen oinetakoetan estilo maskulinoa ikusiko da

Oxford itxurako zapatak, mokasinak, bota militarrek...



Gehien ikusiko direnak mendiko boten itxura duten oinetakoak izanen dira. Gainerakoan, estilo eta forma ugartan ikusiko dira: puntuzko ehundurarekin apainduak, botaren goiko aldean ilez edo *borreguitoz* estaliak, lokarriekin, larruzkoak, *kuña* altuko zolekin, zapalak...

Proposamen femeninoagoak ere ikusiko ditugu. Aurten platarfoma arras markatuetan oinarrituko diren *kuña* izugarri altuak tendentzia izanen dira.

Aurreko urteetan bezala, bota altuak indarrean segituko dute, belauneraino edo pixka bat altuagoak, eta takoi zabalarekin, 70. hamarkadako estiloa segituz. Botinak altura desberdinetan ikusiko dira, *kuñarekin* edo zapalak.

Takoidun zapatetan, azkeneko urteotan hainbertze ikusi ditugun *saloiko* takoi altuko zapatak, eta *peep toe* zapatak (punta irekiak) ere indarrean segituko dute. *Stilettoak* ere bueltatuko dira, takoi altu eta finarekin eta haien ezaugarri esanguratsua den punta zorrotza pixka bat borobilduagoa dutela.

GIZONEZKOAK



Gizonezkoen oinetakoetan indarrean segituko du estilo hiritar eta modernoak, ukitu klasikoarekin, erosotasuna galdu gabe.

Mokasinak, botinak eta *Oxford* estiloko zapatak aunitz ikusiko dira dotore jauntzi nahi denerako. Larruzkoak, antezkoak edo gamuzazkoak izanen dira, eta beti kolore naturaletan. Hala ere, ausartenek *animal print* izeneko estanzazioak eramateko aukera izanen dute, lehoiabar edota sugearen larruaren itxura dutenak.



VENTA
PEIO[®]
MERKATARITZA GUNEAK

www.venta-peio.com (0034) 902 210 800



Marka hoberenak

Udazken-neguko kolekzioa dagoeneko dendetan



Marka hoberenak guztientzako

Gizonezkoak | Emakumezkoak | Haurrak 0 - 14

HEZKUNTZA

IKASTURTE BERRIA → IKASTETXEETAKO DATUAK

4.915 ikaslek hasi dute ikasturtea, iaz baino hiru gehiagok

D eredia da nagusi

TTIPI-TTAPA

4.915 ikaslek ekin diote ikasturteari Baztan, Bortzirriak, Bertizarana, Malerreka, Leitzalde, Urdazubi-Zugarramurdi, Sara eta Senperen. Iazko datuekin alderatuz, gora-

kada Lehen eta Bigarren Hezkuntzetan eman da eta beherakada Haur Hezkuntzan, Heziketa Zikloetan eta Batxilergoan. Kopuru absolutuaren kasuan, joan den urtean baino hiru ikasle gehiago dira. Hizkuntza ereduetan, D ereduak segitzen ikasleen aukeraren nagusia izaten, nabarmen.

BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

BIGARREN HEZKUNTZA		
A eredia	B eredia	D eredia

BAZTAN	37	0	236
Lekaroz-Elizondo	37*		236*

* A ereduko 2 eta D ereduko 3 behar bereziko taldekoak dira.

BORTZIRIAK	18	34	236
Arantza IP			4
Bera (Toki Ona)	18	34	202*
Bera (Labiaga Ikastola)			30

* Hiru ikasle behar bereziko taldekoak dira.

LEITZALDEA	0	0	147
Goizueta			10
Leitza (Amazabal)			137

MALERREKA	8	0	174
Doneztebe (Mendaur)	8		174

XARETA	151	58	8
Senpere (Arretxea)	151	58	
Urdazubi-Zugarramurdi			8

GUZTIRA	214	92	801
---------	-----	----	-----

2011-2012 Guztira: 1.107	↑ % 2,98
2010-2011 Guztira: 1.075	

BATXILERGOA

BATXILERGOA		
A eredia	B eredia	D eredia

BAZTAN	14	0	112
Lekaroz-Elizondo	14		112

BORTZIRIAK	0	0	75
Bera (Toki Ona)			75

LEITZALDEA	0	0	34
Leitza (Amazabal)			34

GUZTIRA	14	0	221
---------	----	---	-----

2011-2012 Guztira: 235	↓ % 8,91
2010-2011 Guztira: 258	

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

2011/2012

HAUR HEZKUNTZA		
A eredia	B eredia	D eredia

LEHEN HEZKUNTZA		
A eredia	B eredia	D eredia

BAZTAN	11	0	234	32	0	471
Almandoz IP			5			13
Amaiur IP			12			19
Arizkun IP			17			35
Arraioz IP			7			8
Azpilkueta IP			2			8
Baztan Ikastola			61			106
Elizondo (S. Fco. J.)	11		77	32		166
Erratzu IP			8			22
Gartzain IP			3			10
Irurita IP			26			44
Oronoz IP			9			25
Ziga IP			7			15

BERTIZARANA	0	0	11	0	0	18
Legasa IP			8			1
Narbarte IP			3			17

BORTZIRIAK	7	12	283	17	66	480
Arantza IP			14			34
Bera (Ricardo Baroja)			78			113
Bera (Labiaga Ikastola)			52			90
Bera (Jesusen Bihotza)	7	12		17	66	
Etxalar IP			22			46
Igantzi IP			20			45
Lesaka (Irain IP)			49*			85
Lesaka (Tantirumairu)			48*			67

* 2 urtekoak barne

LEITZALDEA	0	0	132	0	0	218
Areso IP			9			14
Goizueta IP			21			40
Leitza IP (Erleta)			102			164

MALERREKA	3	5	163	19	8	276
Beintza-Labaien IP			2			5
Doneztebe (S. Migel)	3	5	119	19	8	190
Ituren IP			14			35
Saldias IP			1			5
Sunbilla IP			27			41

XARETA	84	154	79	185	205	98
Sara (Publikoa)		7		4	34	
Sara (St. Joseph)		47		20	32	
Sara (Olhain Ikastola)			38			37
Senpere (Publikoa)	29	65		72	89	
Senpere (Amotz publ.)	25			39		
Senpere (Zaldubi ikas.)			23			40
Senpere (St. Joseph)	30	35		50	50	
Urdazubi-Zugarramurdi			18			21

GUZTIRA	105	171	902	253	279	1.561
---------	-----	-----	-----	-----	-----	-------

HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOAK			
Prest.	HL KP	Erdi M.	Goi M.

BAZTAN	12	32	34	28
Lekaroz-Elizondo	12	32	34	28

BORTZIRIAK	0	0	23	26
Bera (Toki Ona)			23	26

XARETA	0	0	0	171
Senpere (Laborantza)				171

GUZTIRA	12	32	57	225
---------	----	----	----	-----

2011-2012 Guztira: 302	↓ % 19,25
2010-2011 Guztira: 374	

HAUR HEZKUNTZA

2011-2012: 1.178	↓ % 1,67
2010-2011: 1.198	

LEHEN HEZKUNTZA

2011-2012: 2.093	↑ % 4,29
2010-2011: 2.007	

HIZKUNTZA EREDUAK

A eredia	Erdara hutsean
B eredia	Mistoa
D eredia	Euskara hutsean

HEZKUNTZA

HEZKUNTZA → SINDIKATUEN DEIALDIA

Murrizketen kontra protestak egiten ari dira eskualdeko irakasleak

Urriaren 27rako greba deialdia egin dute irakasleek

TIPI-TTAPA

Krisi ekonomikoaren ondorioz, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak aurten guttiago gastatuko duela iragarri du. Sindikatuak salatu dute Gobernuak 250 irakasle lanpostu kendu ditue-

la eta horrekin geletan behar baino ikasle gehiago egonen dela diote, eta aldi berean, ordezkapenak egiteko ere irakasle guttiago izanen direla. Gobernuak, bere aldetik, 112 lanpostu kendu dituela errana du.

Langile murrizketaren kontra, sare publikoko irakasleak protestak egiten ari dira eta horixe egin dute eskualdeko irakasleek ere. Horrez gain, grebarako deialdia ere egi-



ARGAZKIAK: UTZITAKOIA ETA ONDIKOL

Goian Toki Ona institutuko irakasleak protestan eta beheitikoan Elizondoko institutukoak.

na dute Afapna, ANPE, APS, CCOO, CSIF, ELA, EILAS, LAB eta UGT sindikatuek. Urriaren 27ra-

ko deitu dute greba, baina ez da mobilizazio bakarra izanen: lanuzteak ere iragarri dituzte eta

manifestazioa ere bai. Hala ere, sindikatuak adierazi dute negoziatzeko prest daudela.

BERA AGENDA URRIA

Eskualdeko garerako erdibititako gehiago: 012 telefonon www.berakoodala.net

7 ostiratsua

POEMA BERRIAK ETA ZENBAIT ZAHAR KIRMEN URIBEekin solasean
BERA | Herri Nazioetako | 10:00etan
Antzezlea: Nafarroa Kultur Eskola

21 ostiratsua

LIBURU AURKEZPENA
Bera garerako jasotzeko
Bera de ezarriko du salteko
Irakasle Mary Etxebarria

BERA | Kultur Eskola | 11:30etan
Antzezlea: Nafarroa Kultur Eskola

22 ostiratsua

XXXI LIZUNIAGAKO IGOERA
BERA | 17:00-Jantzeratua
11:30etan herrikoak irabazteko (Aurten, ostiratsua, lehenengo jantzeratua) eta Herri Nazioetako irabazteko (20.00etan) 20.00etan
Agindua: herrikoak irabazteko 20.00etan jantzeratua | 11:30etan irabazteko 17:00etan jantzeratua

23 ostiratsua

XXV. LURRAREN EGUNA
BERA ALTZATE | Egun guzian zehar
Herrikoak irabazteko eta jantzeratua irabazteko
Herri Nazioetako irabazteko eta jantzeratua irabazteko
Herri Nazioetako irabazteko eta jantzeratua irabazteko
Antzezlea: Gure Toki Ona

28 ostiratsua

HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA
4-7 urte irabazteko
BERA | Herri Nazioetako | 10:00etan

KULTURA → ARGITALPEN BERRIA

‘Bera baserriz baserri’ liburua aurkeztuko du Rosa Errandoneak urriaren 21ean

Argazkiekin eta jendearen datuekin osatu du liburua

TTIPI-TTAPA

Herriko zortzi auzoetan barna ibili ondotik, liburua argitaratu du Rosa Errandonea herritarak: *Bera baserriz baserri*zenburupean, hain zuzen. Liburua argazkiekin eta baserrietan bizitako jendearen datuekin osatu du eta urriaren 21ean, ortziralarekin, aurkeztuko du Kultur Etxean.

Boluntarioak behar ditu Elkarrizan-ek

Lanean segitzen du Elkarrizan boluntarioen taldeak, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntzare-

kin. Uda honetan, erraterako, hainbat jarduera egin ditu: baliabide mugatuko familietako gaztetxoei ikasketekin lagundu, adinekoei euren etxeetara edo ospitale-tara lagundu, zahar etxekoei konpainia egin... Eta ikasturte berriarekin, gaztelaniako klaseei ekinen zaie. Horretarako, Beralandeta uzteko eskatu zaio Udalari eta erretiratuak dauden bi irakasleekin eskolak emanen dira, astean bi aldiz, irailetik ekainera. Udazkenean sentsibilizazio kanpaina bat ere egitekoak dira, boluntarioak behar dituztelako.

Berdintasun diagnostikoa

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea Berdintasunaren inguruko diagnostikoa egiten ari da Bortzirietan, Berdintasunerako Nafarroako Institutuaren (INA) laguntzarekin. Programari arrola di bat eman nahi dio eta diagnostikoaren bidez, hainbat gizarte eragilearen partehartzea lortu nahi izan da, eta bertzetik, dauden beharrak eta etorkizuneko lan ildoak finkatu. Horretarako, gizarte eragile horiekin bilkurak egin dira eta konklusioak argitaratuko den azken bilera urriaren 3an, astelehena, 17:30ean egingen da Beralandetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Illeketako bestak

Eguralditxarra eginagatik, ez ziren ospatu gabe gelditu Illeketako bestak. Giro ederrean joan ziren auzotarrek antolatutako bestak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zia erreka garbitzen

Euren borondatez, joan den irailaren 17an Zia erreka garbitu zuten herriko hainbat gaztek. Ordukoa da argazkia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errugbi partida ikusgai

Bada urte saila Berako errugbi taldea desagertu zela, baina Berako errugbizaleek hitzordu interesgarria izan zuten irailaren 17an Agerrako futbol zelaian. Baztan Errugbi Taldea eta Arratiko Zekorrek Errugbi Taldea aritu ziren aurrez aurre, aurre-denboraldian antolatutako partidari, Gure Txokoa elkartearen laguntzarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Labiaga ikastolaren ingeles udalekuak arrakastatsuak

Hamalaugarren urtez Labiaga ikastolak antolatu dituen ingeles ikastaroak arrakastatsuak izan dira aurten ere eta lau begirale aritu dira lanean 56 hurrekin. Aurtengo berrikuntza, jendearen erantzunari esker, uztailean eta abuztuan ere udalekuak antolatu direla izan da. Labiagako ingeleseko udalekuak irekiak dira eta Bortzirietako hurrez gain, Gipuzkoa aldeko haurrak ere ikastolara inguratzeko ongi pasatzera eta dakiten ingeleseko praktikatzera.

HERNANDE TELEBISA
HC
ERAKUNTZA LANAK OIORKORREAN
 Zuzenberritasun
 azkarrekin, komunikatzen...
 Abuztutarako
 lehiaketa, garapen...

HC BERA (Nafarroa)
 670 064 744
 948 630 554
 albertalaboa@gmail.com

LESAKA

UDALA → 3,6 MILIOIKO AURREKONTUAREKIN

Kultur Etxea komentua ukitu gabe egin gogo du Herriko Etxeak

Espainiako Gobernuak onartua duen subentzioarekin ordainduko lirateke lanak

Aitor AROTZENA

Kultur Etxearen eta liburutegiaren proiektuaz solasteko herri baztarrak deitu zuen irailean 16an Bilduk Herri-

ko Etxean. Gaiak interesa piztu zuen eta 60 bat lagun elkartu zen.

Lehenik, proiektuaren aurrekariak eta gaur egungo egoeraren berri eman zuten Bilduko zinegotziek. Jose Emilio Del Rio zinegotziak aipatu digunez, «Nafarroako Gobernuak ez du proiektu honetarako dirulaguntzarik emanen, Herriko Etxeak ere ez du dirurik eta beraz, Madriletik jadanik onar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaztetxea aldarrikatu du Gazte Asanbladak

Gazte Asanbladako kideak azken hilabeteetan inoiz baino indartsuago dabil-tza gaztetxearen gibeletik eta Bittiriko bestetan jendearen aitzinera atera ziren antzerki baten bidez hau aldarrikatuz. Koadrila eta adin guztietako jendearen arteko harremana sendotzeko aukera emanen lukeela uste du Gazte Asanbladak eta «herriari bizia emanen dion lekua lortu nahi dugu».

tua dagoen 3,6 milioi euroko dirulaguntza bakarrik izanen genuke, eta hori dena hilabete baino lehen aitzinera segitzea erabakitzen baldin badugu».

Pedro Burguera arkitektoak proiektu osoaren berri ere eman zu-

en. Zehazki, 4,8 milioi euroko aurrekontua duen proiektua zen hasierakoa eta garai bateko karmeldarren komentua egokitzeaz gain, ondolan bertze eraikin bat eginen litzateke, liburutegia, aretoak eta auditorioarekin. Guzirako di-

urrik ez dagoenez, Herriko Etxearen asmoa komentuari ondoko eraikin hau egitea izanen litzateke, komentua ukitu gabe eta horretarako lanak lehiaketara ateratzeko asmoa du, 3,6 milioi euroko hasierako prezioan.

ELKARTEAK → BIGARREN URTEZ SEGIDAN

Urriaren 31rako aurkeztu behar dira Beti Gazteko argazki lehiaketako lanak

Beti Gazte elkartearen 70. urteurrenean, argazki lehiaketa berreskuratu zuen joan den urtean eta aurtengoan ere segida eman nahi dio ekimenari. Honela, nahi duten afizionatu guzietan har dezakete parte eta lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Beti Gazte elkartearen (Beheko Plaza 9, 31770 Lesaka), gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Argazkien gaia librea izanen da, baina sari berezia izanen da kirol argazkirik hoberenarentzako. Paperean egindako argazkiak aurkeztu beharko dira, zuri-beltzean edo kolorean eta digitalki manipulatu gabeak. Argazkiekin batera, CD bat bidaliko da, aurkezturiko argazkiak edukiko dituen,

JPEG formatoan, 300 pppko guttieneko bereizmenarekin. Egile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal ditu eta berak erabakiko du argazkiaren neurria, nahiz eta horietako bakoitzak gehienez 30x40 zentimetroko kartulinean jarrita egon beharko duen.

Hiru sari emanen ditu Beti Gazte elkarteak. Lehenbizikoa, 300 euro eta trofeoa, bigarrena 200 euro eta trofeoa eta hirugarrena 100 euro. Gainera, sari berezia izanen da kirol argazkirik onarenentzat.

Antolatzaileek izendatuko duen epaimahaiak azaroaren 6an emanen du erabakia eta egun berean hasita, azaroaren 6tik 30era, erakusketa izanen da Beti Gazte elkartearen egoitzan.

ELKARTEAK → JUBILATUAK LANEAN

Errioxara bidaiaria antolatu du San Fermin elkarteak

Urriaren 6rako Errioxara ateraldia antolatu du Lesakako San Fermin erretiratuen elkarteak. Goizean 07:30ean abiatuko dira plazatik eta bidean gosaldia ondotik Naxera bixitatuko dute. Ondotik, Baños del Río Tobiara joanen dira, upategi eta ertzete fabrika bisitatzera. Labastida bisitatu ondotik, bertan bazkalduko dute. Txartelak 25 eurotan erosteko aukera hilaren 30a arte izanen da. Autobusa bete eta 30 pertsona gehiago apuntatu balira, bigarren autobusa ere paratuko litzateke.

Bertze aldetik, jubilatuentzako soinketa ikastaroa antolatu du aurten ere San Ferminek. Urriaren 17tik maiatza bitarte emanen dira klaseak, astelehen eta ortzegunetan 16:00etatik 17:00etara. Izen ematea Elkartearen egin behar da.

Memoria tailerra ere doan eskainiko da urriaren 5etik abenduaren 21era.



EHIZA → USO POSTUEN ADJUDIKAZIOA

Udalak 35.490 euro bilduko ditu larmendiko ehiza postuengatik

Bigarren enkantearekin, zertxobait igo da kopurua

Klase partikularrak

Ikasturte hasierarekin batera, klase partikularrak paratu dira martxan. Aukera zabala da: trikitixa (Itsaso Elizagoien), kenpo (Modesto Ordoiki), ingelesa (Roger), artelanak (Santiago Jorge), Musika eta mugimendua (Maite Lasa), pandereta (Alaitz eta Maitane), perkusioa (Iruneta Itsaso), txalaparta (Lander Utrera), katekesia (Pello eta katekistak), ttikientzako euskal dantzak (Altxata, Anabel), pilota (Altxata, Joxe Mari), euskal dantzak (Altxata), futbola (urtariletik maiatzera) eta patinaia (urtariletik apirilera). Izena emateko jarri arduradunekin harremanetan.

Iruneta Itsaso

Udalak 35.490 euro bilduko ditu larmendiko ehiza postuen truke, irailaren 9an sexta garaia bukatu eta seitik batean hobetutako postuengatik irailaren 13an egindako enkantearen ondorio. Honela, hasierako enkantean eskainitakoa 1.435 eurotan hobetu da eta Udalak hasieran egindako tasazioa baino 4.480 euro gehiago eskaini dituzte eskopeta ehiztariek. Postu bakarra gelditu da hutsean.

POSTUAK	TASAZIOA	TANTOAK	ERREMATEA
1.	855 €		855,00 €
2.	855 €	2	875,00 €
3.	2.055 €		2.055,00 €
4.	1.600 €		1.600,00 €
5.	2.055 €		2.055,00 €
6.	1.600 €		1.600,00 €
7.	2.055 €		2.055,00 €
8.	3.045 €	22	3.265,00 €
9.	2.075 €		2.075,00 €
10.	2.075 €	78	3.329,17 €
11.	3.045 €		3.045,00 €
12.	1.355 €	261	4.530,84 €
13.	1.355 €	85	2.205,00 €
14.	855 €		855,00 €
15.	855 €		855,00 €
16.	855 €		855,00 €
17.	855 €		855,00 €
18.	855 €		0,00 €
19.	855 €		855,00 €
20.	1.355 €		1.355,00 €
21.	1.355 €		1.355,00 €
GUZTIRA	31.010 €		35.490,00 €



ARGAZKIA: PATXI RIBERA

Ikasturte hasiera

Uda akautzeakin batera berriz ere eguneroko martxa hartu dute Landagain eskolan. Bortz ikasle berri hasi dira aurtengoan, eta guztira 65 izanen dira ikasturte berrian. 10 irakasle eta bertze hainbat laguntzaile (orientatzailea, idazkaria, logopeda...) ariko dira ikasturtea ahalik eta hobekien aitzinera eramaten.



ARGAZKIA: IRUNETA ELIZAGOIEN

Urritzokietako bestak

Eguraldiak batere lagundu ez bazuen ere, Urritzokietako auzokoei ederki pasatu zituzten aurtengo bestak. Nahiz eta goizeko trikitilarien kalejira eta bazkal ondoko jokoak euriagatik bertan behera gelditu ziren, umorea eta giro ona ez ziren faltatu bazkaltzera hurbildu ziren 57 lagun artean.

ERROTAZAR
harategia
Berrak
produktuak
Etegeta, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

KOXKONTA *Jatetxea*

Elaboratua eta aserburua merende, korta, ententseletako berkeletak, jantzerentzako berkeletak...

T. 948 627 519 • 948 627 503 • 609 801 657
Olsanga autoa, 1 • LESAKA

IGANTZI

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

Haur eta helduentzako hainbat ikastarori emanen zaie hasiera urrian

Gorputza mugitzeko eskaintza bat baino gehiago dago

TTIPI-TTAPA

Udako oporraldiaren ondotik, irail hasieran itzuli ziren neska-mutikoak eskolara. Aurten bederatzira lehenbiziko aldiz eskolara doazena, eta guztira 65 ikasle. Eskolako ordutegitik kanpo horietako aunitzek eta herritar helduegok ere bertzelako ekintzak egingen dituzte. Urriatik aitzinera horretarako aukera eskainiko baita.

MULTIKIROLA

Iazko erantzun ona ikusita, eskolatik multikirola antolatu da aurten berriz. Urriko lehenbiziko astean hasiko dira kla-

seak eta asteazken eta ortziraletan izanen dira, 16:00etatik 17:00etara. Landuko diren ekintzak eskubaloia, uretako kirolak, herri kirolak, atletismoa eta patinaia izanen dira. Hamazazpi neska-mutikok eman dute multikiroletan izena eta Urdi enpresako norbait etorriko da klaseak ematera.

MUSIKA ESKOLA

Musika eskolaren eskaintza ere izanen da, baina lerro hauek idazterakoan ezin izan da xehetasunik bildu.

KENPO KAI, GIMNASIA, PILATES ETA BATUKA

Kenpo Kai Berako Koro Iriartek eskainiko du. Mantenimenduko gimnasiaz, berriz, Ana Larretxea aranztarra arduratuko da eta astelehenetan (20:00-21:00) eta ortzegunetan (18:30-19:30) eskainiko da urria-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Multikirolen barne, herri kirolatan aritzeko aukera izanen dute aurten ere gaztetxoek. Multikiroletan lehiarik gabe kirola egitea da helburua. Nafarroako Herri Kirol Jolasetan baino ez dira bertze taldeekin lehiatzen.

ren 3tik aitzinera.

Pilates eta batuka Etxalarren bizi den Rebeca Aranzadik emanen du. Astelehenetan 18:30etik 19:30era pilates eskainiko du eta asteazketan 20:00etatik 21:00etara batuka. Azken hau berrikuntza da aurten.

Irisarriko proiektua

Foru Legearen arabera, plan berezietan Ingu-rumen ondorioen adierazpena egin behar da eta berriki horixe egin da Harrobiak Irisarrin egin nahi duen turismo eta aisialdiaren gunearen planarekin.

Irisarriko proiektuaren plan berezia hasiera batez otsailaren 23an onetsi zuen Udalak eta apirilaren 1ean Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik, ez zen alegaziorik aurkeztu. Au-

reikusitako jardueren artean hauek aipa daitezke: Irisarri Jauregia zaharberri eta hotel-apartamenturako egokitu; lau eremu sortu ostatu emateko unitate sakabana-tuak eraikitze (gehienez hoge); abeltzaintzako hiru nabeak egokitu nekazaritza eta abeltzaintza, turismo eta aisialdi jardueretarako; borda bat egokitu etxebizitza partikularra izateko; kisu-labea egokitu eta aparkalekuetarako eremua moldatu.

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren arabera, plan berezia bateragarria da natur inguru-nearen kontserbazioarekin, eta Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuak ere aldeko txostena emana du. Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak, bere aldetik, Ingu-

rumen ondorioen adierazpena egin du, baina baldintza batzuk bete behar dira: proiektuaren xehetasun azterlan bat egin behar da eraikuntzen diseinuek, aparkalekuek, tirolinak eta ur eta elektrizitate hornidurak eta saneamenduak sortzen dituzten ingurumen ukipenak jasoz; interes bereziko zuhaitzak ukitzea ere saihestuko da; lur mugimenduen xehetasunak ere jakinarazi behar dira; elektrizitatearen hornidurari dagokionez, transformazio zentro berriek eta aireko linea elektrikoaren tartearak dakarren elektroizio arriskua saihesteko eta hegaztiak babes-teko neurriak kontuan hartuko dira eta zuhaitzak moztu aitzinetik, Oihanak Kudeatzeko Atalari jakinaraziko zaio.

ANSONEA JARDUAK
Eguzki menua
Menu begetarianoa
Menu makrobiotikoa
Plater konbinatuak
Bakatak • Erraztasak

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Berants, 2 - Alkaga Industrialea
LESAKA (Iamara Beratik)
Tel: 948 625 535 - Fax: 948 625 505

USOA
Nekazaritza kooperatiba
Bertan egindako perisuaik, bertze markak eta ekologikoak.
Ongarriak - Bardin trusnak
Insektizidak - Edanak - Hazlak.
Botikak (jerezitatekin)
Etkez ebeko banaketa egiten da.
Kalifikazioa eta ibagailuendako gasolioa
Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

XIRALI
ANSONA JARDUAK
Tel: 948 631 076

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

Bortz haurrekin hasi du ikasturtea Pelle-Ttiki haur eskolak

Udan ere gurasoak auzolanean aritu dira egitasmoak aitzinera egin dezan

Nerea ALTZURI

Aitzineko alean eskolako informazioa helarazi genizuen. Pelle-Ttiki haur eskolan, berriz, irailaren 12an lanean hasi ziren hilabete bateko atsedendialdiaren ondotik. Koldobike Gorostiza hezitzailearekin, Haizea Arenas Etxeberria, Helene Alzuri Lujanbio, Asier Mutuberria Pagola, Beñat Iriberrri Casquero

eta Xabier Leiza Maeztu ttikiek osatu dute momentuz ikasturte hasierako taldea eta urrian Karmele Oiartzabal Iturria hasiko da. Talde ttiki eta polita dela ezin uka. 09:00etatik 13:00 bitarte jolasean gauza berriak ikasten gustura pasatzen dute. Eta horrela hezi eta hazi eginen dira gure haurtxoak!

Gainera, aski xokoko loretsua gelditu da Pelle-Ttiki. Abuztuan, auzolanean margoketa lanak egin dituzte gurasoek. Bertzalde, haur eskolaren proiektuak luzez irauan dezan, hainbat ekimenetan jarraitzen dute gurasoek. Arantza Rock egunean ogitartekoak saldu ziren Pelle-Ttiki



ARGAZKIA: KOLDOBIKE GOROSTIZA

Beñat, Xabier, Haizea, Helene eta Asierrek goiz atseginak pasatzen dituzte Pelle-Ttikin.

haur eskolaren alde. Lerro hauek baliatuz, jarduera honetan zein berzte edozein ekintzetan parte hartu duzuen guztiak eskertu nahi ditu Pelle-Ttiki haur eskolak, jasotako laguntzagatik.

Kultur egunak prestatzen

Udako parentesiaren ondotik, Euskara Batzordeak ere lan ibilbidea abiatu du. Irailaren 21ean bilera izan zuten eta berzte puntuen artean, udazkeneko kulturaldia aipatu zuten. Aurten,

urriaren 29tik azaroaren 1era bitarte izanen dira Kultur Egunak. Aspaldiko urteetan bezala, azaroaren 1ean Baserritarren Eguna izanen da Ekaitza Elkartearen eskutik. Hau ere, prestaketan hasia da eta beraz, herritarrak egun horretan parte hartzeko animatu nahi dituzte. Aitzinerago, etxez etxe gonbidapen gutuna hartuko dugu seguruenik.

Bertzalde, bertso afaria, solasaldia... horrelako ekimenak tartekatuko dira kulturaldian. Ha-

la ere, zehatz mehatz ekitaldien berri, hurrengo aleetan emanen dugu.

Ipuin kontalariak

Irailaren 23an, Bortzrietako Euskara Mankomunitateak eta IKA-k antolatutako *Egizu Lo* ipuin liburuaren irakurraldia egin zen Lesakan. Bortzrietako gurasoek parte hartu zuten eta herriko ordezkariak ere hantxe izan zen: Sonia Iturria, Andoni Zulaika, Koldobike Gorostiza, Amaia Apaolaza, Ana Larretxea eta Idoia Etxeberria.

expert  **BORTZIRIAK**

**%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN**

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

DONEZTEBE

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

526 ikaslek hasi dute ikasturte berria institutuan eta eskolan

Ikasleen %92 inguruk D eredia aukeratu du

TTIPI-TTAPA

Udako oporraldiaren ondotik, San Migel eskolan eta Mendaur institutuan itzuli dira egunerokora. Guztira 526 lagunek hasi dute ikasturtea, iaz baino 18 ikasle gehiagok. Ikasle horietatik 127 Haur Hezkuntzakoak dira, 217 Lehen Hezkuntzakoak eta 182 Bigarren Hezkuntzakoak.

Hizkuntza eredu eudagokienean, ikasleen %91,8ak D eredia aukeratu du, %5,7ak A eredia eta %2,5ek B.

HAUR HEZKUNTZA

3 urteko 40 neska-mutiko lehenbiziko aldiz joan dira aurten eskolara, 39 dira D erudian eta bakarra B erudian. 4 urtekoak 45 dira, 40 D erudian, hiru B erudian eta bi A erudian. 5 urtekoak, azkenik 42 dira, 40 D erudian eta bana B eta A eruduetan.

LEHEN HEZKUNTZA

Lehenbiziko mailan 30 dira D erudian, bi B erudian eta hiru A erudian. Bigarren mailan 41ek D eredia aukeratu dute, batek B eredia eta hiruk A eredia.

Hirugarren mailan 39 dira D erudian eta bina

B eta A eruduetan. Lau garren mailan, berriz, 27 neska-mutikok egin dute D eruduaren alde eta bakarrak Bren alde.

Bosgarren mailan 27 dira D erudian, lau A erudian eta bakarra B erudian. Seigarren mailan, azkenik, 28 dira D ere-

duan, zazpi A erudian eta bakarra B erudian.

BIGARREN HEZKUNTZA

Bigarren Hezkuntzako lehenbiziko mailan 39 dira D erudian eta bortz A erudian; bigarrenean 42 dira D erudian eta hiru A erudian; hirugarren

eta laugarren mailetan guztiak D erudian ari dira, 29 hirugarrenean eta 44 laugarrenean.

Eskubaloi entrenatzaileak

Azken aldaketarik ez bada, hauek izanen dira denboraldi honetan Errekako eskubaloi taldeetako entrenatzaileak.

- Senior mutilak: Patxi eta Felipe Ganboa eta Iban Mindegia.
- Kadete mutilak: Txomin Mindegia, Jabier txo Almandoz eta Juan Telletxea.
- Infantil mutilak: Jesus eta Pilar Olalla.
- Infantil neskak: Iban Ezkurra, Xanti Uterga, Bittori Mendiburu eta Itziar Jorajuria.
- Alebin neskak: Delia Portillo eta Garaxi Sanz.
- Alebin mutilak: Jesus Olalla hasi da entrenatzen, baina infantilekin ere ari denez, ezin du partidetarajoan. Iñigo Etxeberria laguntzeko prest dago baina berekin batera bertze bo-luntario bat behar da.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Joakin Illarregi eta Jesus Mangado nagusi mus txapelketan

Arkupeak elkarteak antolatutako mus txapelketaren azken fasea jokatu zen irailaren 9an Elgorriagako balnearioan. Herri gehienetan, aitzinetik jokatu ziren hasierako faseak eta horietan garaile izandakoak bildu ziren Elgorriagan, 32 bikote. Azkenean, Doneztebeko Joakin Illarregi eta Jesus Mangadok lortu zuten txapela, eta Bixente Jauregi eta Mikel Bildarraz leitzarrak suertatu ziren azpitxapel-dun. Hirugarren postua Timoteo Iguzkiagirre eta Santiago Iparragirrentzat izan zen eta laugarrena, Tomas Goia eta Eusebio Gonzalezentzat. Bi bikote hauek arantzarrak dira.

ANTZAZELAKI
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
948 631 117 • Fax: 948 631 167
Iranga erria: BERA
www.antzazelaki.com
info@antzazelaki.com

Antzinaideak, angeiak, oma antzinaok, lehoak, asak, arkuak, piztoak, bamiak, edoizak, moldurak, zokaloak, hlanak, mazzak

ERREKALDE
PLATEZ KANBISTAK
948 631 117
Fax: 948 631 167

TTAPA: 948 630 254 BERA

BRANDONKA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidaxoa, 76 • atea 21-22 • 31780 BERA

arropak • etandirak
muntak • nardikoak
toallak • kortinak
alfubrak

Goya

ZUBIONDO
Jatetxea
Alasta karrika
BERA NAHARRA

OSPAKIZUNAK → KOFRADIAK ANTOLATUTA

Onddo eta Zizen Kofradiaren besta haundia asteburuan ospatuko da

Igandean kofrade berriak izendatuko dituzte

onddo eta bertzelako produktuak dastatzeko aukera paregabea izanen dute. Halere, hitzordu nagusia igandekoa izanen da.

TTIPI-TTAPA

Aurten XVIII. edizioa beteko du Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiaren egun haundiak. Larunbat eta igande honetan, urriak 1 eta 2, herrira joaten direnek

LARUNBATA, URRIAK 1 BAINUETXEAN

- 18:30ean inaugurazio bainua.
- 20:00etan Juanito Mariez kurrena gogoan XI. kazuela lehiaketa.
- Ondotik musean ari-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Onddoak dastatzeko aukera izanen da aurten ere asteburu honetan.

tzeko aukera eta musika izanen dira.

IGANDEA, URRIAK 2

- 10:00etan meza.
- Ondotik kofrade berrien izendapena eta Arangurengo abesbatzaren emanaldia.

- 11:00etan joaldunak karrizak karrizak ibiliko dira.
- Aldi berean, Migeltxo Saralegi harrijasotzaileren erakustaldia, aizkolariak, txistulariak eta txaranga herriko plazan.

- 12:00etan Nafarroako produktu eta onddoen dastaketa bainuetxean, Arangurengo abesbatzak alaituta.
- 14:00etan luntx miko-logikoa balnearioan.
- 17:00etan ibilbide ludiko-termala.

D O N E Z T E B E

4 A P A R T A M E N T U

L O R A T E G I P R I B A T U A R E K I N

Zure etxea, zure bizitza

Lindutx Bazar, s.l.

Migeltxo Saralegi

Tel. 948 580 344
www.lindutx.com

Zure etxea, zure bizitza

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → EKITALDIAK URRIAREN 7AN ETA 8AN

Egitarau osatua prestatu dute gazteek Euskararen Egunerako

Larunbatarekin egingen den bertso bazkarira joateko, igande hau baino lehen apuntatu behar da

Fermin ETXEKOLONEA

Iragarri bezala, urriko bigarren larunbatean, urriak 8, ospatuko da aurtien Euskararen Eguna. Bezperan ere izanen dira ekitaldiak, bi egunetarako egitarau ederra prestatu baitute gazteek.

OSTIRALA, URRIAK 7

- 19:00etan pintxo lehia-keta. Parte hartzaileek Errandonea ostatura eramane beharko dituzte euren pintxoak.
- 20:30ean mintzaldia. Patziku Perurena idazleak eta Andres Iñigo euskaltzainak *Bi kantu, hainbat histori* hitzaldia eskainiko dute Estalpean, *Iturengo Arotza* eta *Berdabioren bertsoak* kantuetan oinarrituta.
- 22:00etan mus txapelketa Errandonea ostatuan.

LARUNBATA, URRIAK 8

- 10:30ean kalejira herriko txistulariekin.
- 11:00etan joaldunak.
- 12:30ean aizkora apustu: alde batetik, Mikel



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko talogileak joan den urteko Euskararen Egunean.

Indakotxea *Palaxio* eta Joxeantonio Loiarthe-herriarrak ariko dira eta bestetik, Leonardo Goñi eta Raul Kastro.

- Goiz osoan herriko artistauen erakusketa plazaan.
- Horrez gain, gazta eta magra bat ere egonen dira, bi horien pisua zein den hurbilduz apustu egiteko aukera eskainiz. Pisura gehien hurbiltzen denak irabaziko du.
- 14:30ean bertso bazkaria Julio Soto eta Julen Zelaietarekin. Apuntatzeko azken eguna igande hau, urriak 2, da. Errandonea ostatuan, Herriko Ostatuan eta Santxo okindegian egin behar da. Aipatu, hurrendako menu berezia ere izanen dela.
- Ondotik poteoa trikiti-

lari eta bertsolariekin.

- 16:30ean errotara bisita eta haurrendako talo tailerra.
- 19:00etan herriko dantzarien saioa.
- 20:30etik 22:00etara Saguxar taldearekin dantzaldia.
- Atsedendian magra eta gazta txapelketako irabazleak jakinaraziko dira.
- 23:00etan rock eta ska kontzertuak Matxinbrada eta Escandalo Publiko taldeekin.
- Gauerditik aurrera Saguxar taldearekin dantzaldia.

Ikastaroak

Aurreko urteetan bezala, aurten ere eskulan ikastaroa eskainiko da eskolaren goiko solairuan. Urriatik maiatzera izanen da eta norbaitek in-

formazio gehiago nahi badu Ainhoa Mutuberriangana jo behar du.

Gaztegunea

Larunbat honetan, urriak 1, zabalduko ditu ateak Gaztegunek. Honen lotuta, esan, asteburuetako txandak gurusoek txandaka egitea erabaki dela. Joan den urtean, bi langile kontratatu ziren, baina aurten gastua murrizteko gurasoak arduratuko dira.

Loiarthe aizkora

Irailaren 25ean jokatuko zuen Joxeantonio Loiarthe Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala. III. Mailako Euskal Herrikoa, berriaz, igande honetan izanen du Aizarnazabalen (Gipuzkoa). Lerro hauen bitartez, animoak.

ITUREN

Lau haurrek hasi dute lehen aldiz ikasturtea eta zortzi institutura joan dira

Arkaiz MINDEGIA

49 neska-mutikok hasi dute ikasturte berria Pulunpa eskolan eta horietatik lau dira motxila hartu eta lehenbiziko aldiz eskolara doazenak: Maialen, Inge, Oihan eta Urki. Dena den, aipatzekoa da Zubietako bi haur kanpoan gelditu direla. Nafarroako Gobernuak irakasle bat kendu du eta horregatik gelditu dira kanpoan. Horren kontra helegitea aurkeztua da, baina oraindik zain egon beharko da. Bertetik, Iturengo eskola utzi eta Doneztebeko institutura joan direnak zortzi dira: Hodei, Andoni, Oihan, Duba, William, Olaia, Iratxe eta Ane. Bertzelako berrikuntzak ere badira ikasturte honetan. Arantza Diez da eskolako zuzendaria eta irakasle berriak ere badira: Jon (musika), Oihane (logopeda), Ane (orientatzailea), Garbiñe (lehen zikloko tutorea) eta Aitor (ingelesa).

Bi anai filmaren estreinaldia

Gure inguruetan grabatutako Imanol Rayaren *Bi anai* pelikularen estreinaldiak zabaldu du Zinemira saila Donostiako Zinemaldian. Irailaren 21ean Victoria Eugenia antzokian egin zen Euskal Zinemaren Galan izan zen hori.

Javier Manterola
Taldeko instalazioak
buztintza • gasa
kalifikazioak
Tlf: 629449902 • BERA

BIDASOA
BIDAKAL • BIDEKAL
BIDEKAL • BIDEKAL
BIDEKAL • BIDEKAL
T.F. 650 971 442
BERA

F. LANCHAS
Akabola eta hermatzaila
parket eta parket flutatzaila
jartze
Mota gutxiako solai
Tel: 946 630 755 M: 607 406 781

OSPAKIZUNAK → HERRIKO DANTZARIEN ESKUTIK

Dantza jaialdia egingen da larunbat honetan hirugarren aldiz

20:00etatik aitzinera ikasitakoa jendaurrean eskainiko dute herritarrek

Maider PETRIRENA

Larunbat honetarako, urriak 1, dantza jaialdia antolatu dute herriko dantzariak. Aurten goa egiten duten hirugarren urtea da eta Lapurdi, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako dantzak dantzatuko dituzte jendaurrean: Kontradantzak, Arretxinga, jota eta porrusalda, Korteko dantza, Tuterako jota, Gorulari, Makil Ttiki...

20:00etan hasiko da saioa eta frontoian izanen da.

Ikastaroak urritik aitzinera

Ikasturte berriarekin batera, hainbat ikastaro paratu dira martxan.

Horietako bat dantza jazza izanen da, astelehen arratsaldetan (16:00) Rebeca Aranzadik eskainiko duena. Interesa duenak hurrengo helbidera idatzita edo telefonora deituta apuntatu behar du: rebecaranzadi@gmail.com edo 607 744199.

Horrez gain, Udalaren lokalean haurrendako eta helduendako bertze ikastaro bat eskainiko da: onura kognitiboak, harremanak hobetu eta gizarteratzeko gaitasuna, oreka pertsonalaren onurak,



ARGAZKIA: NIEBES BIURRARENA

Herriko dantzariak orain dela bi urteko jaialdian.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Akitu da igerilekuko denboraldia

Irailaren 15ean itxi ziren igerilekuko ateak. Hiru sorosle izan ditugu uda guztian eta aipatu digutenez, hagitz gustura egon dira gure herrian. Uztaileko hilabetea nahiko kaxkarra izan da, baina irailakoarekin konpentsatua gelditu da. Miren Mangado sorosleak haur zein helduentzako igeriketa ikastaroak eman ditu.

portaerarekin lotutako onurak... Horiek izanen dira landuko diren puntuetako batzuk.

Ortzegun honetan zortzi, urriak 6, hasiko dira klaseak eta 25 euro ordaindu beharko da hilabetean. Haurrendako saioak ortzegunetan 17:30etik 18:45era izanen dira eta helduendako ortzegunetan 18:45etik 20:00etara. Dena den, beharren arabera moldatzen ahal izanen da ordutegia.

zalain
FOTOKOPIAK - BERRIKOPIAK

Zalain autoa zig
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalain.com

zalain

LEGARRA

Egunkariak | aldizkariak | liburak | oporrik | bitarteko bitartekoak | enkoademazkoak | plastikozkoak | tax publikak

ZERBITZU BERRIAK!!

FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
USB-lik zuzenean inprimatzen dugu

Tel. 948 63 70 30 - Alkiza, 9 - LEZAKA

HAUTESKUNDEAK

Azaroaren 20an egingen dira udal eta kontzejuetako hauteskundeak

TTIPI-TTAPA

Zerrendarik aurkeztu ez zelako, maiatzaren 22an hauteskunderik izan ez zen herrietan bigarren aukera bat izanen dute azaroaren 20an. Udaletxe eta kontzejuetako ordezkariak aukeratzeko izanen dira.

TTIPI-TTAPAK hartzen duen eskualdeari dagokionean, sei dira maiatzean Udalak osatu gabe gelditu ziren herriak: Arano, Donamaria, Elgorriaga, Ituren, Beintza-Labaien eta Urroz. Horrez gain, Narbarte, Legasa eta Oieregin ere ez zen kontzejuetarako hautagairik aurkeztu. Bertizaranako hiru herrietan kontzejuko lehendakaria eta lau bokal aukeratu beharrak dituzte.

Urri erdialdera bukatuko da zerrendak aurkezteko epea.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → GOIZEAN GOIZETIK EKITALDIAK IZANEN DIRA

Hainbat nobedade izanen ditu Ittur-Ondo elkarteak antolatuta urriaren 8an eginen den Urriruko Bestak

Beintzako Ostalarien 22. urteurrena dela eta, goizean ere ekitaldiak izanen dira

Amaia MINDEGIA

Urriaren 8a egun berezia izanen da. Alde batetik, Ittur-Ondo elkarteak Urriruko Besta antolatu du aurten zortzigarren aldiz eta gainera, berrikuntza batzuk ere prestatu ditu. Baina egun horretan Beintzako ostatu-aterpetxeak bere 22. urteurrena ere ospatuko du eta horren harira, Beintzako ostalariak aterpetxean egin diren haunditze lanak ikustera joateko gonbidapena luzatu dute, baita goizean eginen diren ekitaldietan parte hartzeko ere. Ikusi iragarkia.

ARRATSALDEAN GEHIAGO

18:00etatik aitzinera Zubietako Joaldunak karrikaz-karrika ibiliko dira eta 19:00etan herriko aizkolarien saioa izanen da. Ondotik, 06:00etan Jaime Mindegia prestatzen hasitako afariaren txanda izanen da. Kanalean 200 bat kilo pisatzen dituen aretzea prestatuko da, eta 21:00erako prest egon behar du. Aurten ere karpa barruan izanen da afaria eta guztira 200 lagunendako izanen da.

Afaltzeko orduan zozketa bat eginen da;

Nafarroako produktuen zare eder bat.

Herritar gehienak ez ezik, inguruko herrietatik ere jende andanahurbilduko da egun horretan Beintza-Labaienera. Aurten, gainera, erakustaldi berezia izanen da afaltzeko tenorean. Izan ere, sabeldantza giroan afalduko dugu bertara inguratzen garenok. Zentzeko Rebeka Ericak eta Iruñeko Adasha dantza taldeko kideak bere sabeldantza mugimenduekin alaituko dute aretzejatea. Ikuskizun polit eta ezberdin honetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte Ittur-Ondok.

Azkenik, Iruritako Frantxixko akordeoilariarekin dantzaldia izanen da goizaldera arte.

Bai egun horretan bai aurretik laguntzen ariko diren elkarteko kide eta herritarrei ere bere esker ona azaldu nahi izan die elkarteko batzordeak.

Afarirako txartelak elkartearen, herriko ostalariaren eta Baleztena dendan izanen dira salgai, urriaren 2ra arte. Eskertuko da txartelak epe barruan erostea, antolatzailerak jakin dezaten zenbat jende bilduko den.

Patxaran dastaketa

Ittur-Ondo elkarteak larunbat honetan, urriak 1, afaria antolatu du patxaran dastaketaren aitzakiarekin. Edozein inguratzen ahal da afaltzera egun horretan; kon-tuan hartu dastaketa afalaitzinean izanen dela.



A. MINDEGIAK
UTZITAKO ARGAZKIA

Afaltzeko tenorean sabeldantza ikusteko aukera izanen da.

Ostatu-aterpetxearen 22 urteko ibilbidea



Orain 24 urte berritu zen Beintzako Ostalariak, egun duen itxura hartuz. Bi urte geroxeago, 1989an, oraingo ostalariak hartu zuten, eta Udalak behitiko solairua zesioan utzita, aterpetxe bihurtzeko lanari ekin zioten: ikastetxeak, mendizaleak, asteburuko koadrillak eta familiak...

Hamar urte geroago, Aterpetxe Turistikoen legedia zabaldu zen Nafarroan eta Beintzako izan zen onartu zen lehenetarikoa, 30 plazarekin. Bitartean, Orbela enpresa sortu zuten, aterpetxe kudeaketaz gain, bertan antolatzen ziren aktibitateak (mendi ibilaldiak, ikastetxe egitarauak, udalekuak, zerbitzuak...) bideratzeko. Aterpetxearen martxa ona zela eta, bigarren eraikuntza alokatu zuten ostalariak, bertze 16 lagunentzako, denetara 46.

2010ean aterpetxea berritu zen, plaza guztiak elkartuz (orain 44 ditu), aktibitateentzako gela berriak sortuz

eta ostalarien etxebizitza egokituz.

Gaur egun ia 1.800 lagun pasatzen dira urtero Beintzako Ostatu-Aterpetxetik. Gehienak ikastetxe edo udaleku taldeak dira; eta batez ere euskaldunak, inguruan disfrutatu eta gustura sentitzen direnak. Urteotan aterpetxe proiektua indartu egin da eta gaur egun, lau lagun ari dira lanean, urte sasoiaren arabera, eta monitorea udan...

Etorkizunera begira, «krisiaren muturra» somatu duten arren, ez zaie itxaropenik falta: proiektu berriak dituzte esku artean eta gainera Udalak Aizkolarien Etxea-Museoa abiatu du.

Urriaren 8an 22 urte beteko ditu eta eurek dioten bezala, «krisia eta etorkizuneko zalantzak alde batera utzita, orain elkarrekin ospatzera gonbidatzen zaituztegu, 22 urtetan bizitzaren bidean elkartu eta gure gorabeherak ezagutu dituzuen lagun horiek».

**ORBELA
BEINTZAN
22 URTEZ**

KONBIDAPENA

URRIAK 8

10.30/13.00: Talo dastaketa + ardoa/sagardoa

11.00etan: Hour jolasak, musika, txaiaparta eta... sorpresa!

Beintzako Ostalariak

GIZARTEA → UDAZKENEAN SARTUTA

Neguko hotzeko prestatzen

Jendea ari da lotea etxera ekartzen

Markel LIZASOAIN

Hilabete batzuk dira lotea bota zutela, eta ari da jendea, txandan-txandan, etxera egurra ekartzen eta etxeko zokoren batean edo ahal den lekuan pilatzen; dotore asko batzuk, betiko klase-ara beste batzuk. Edozein aldetara ere, polita egiten du egurrak etxeko atarian: «Heldu den neguko, seguru gaude», pentsatuko du batek baino gehiagok.

Aurten, Tantadi alde horretan bota dute lotea (jendeak Tantada esaten

dio), Hautsideko erreka ondoan; non den, zehatz, ez dakigu, dakienari ez baitiogu galdetu. Inguru hartan, behinik behin, eta, jakina, pagoak berak ez baitira etortzen, bila joan behar. Motozerra eta aizkorak ongi zorroztu, erre-gaia eta gosaria hartu, eta tratorearekin mendira. Bi edo hiru buelta berdin egin behar izaten dira, eta lanak akitzekin, beti izaten da zer kontatua: eskapadaren bat, loterekin konforme ez, egur konkoren bat erreka zulora joana eta hau eta beste. Askok nahia-go, halere, mendiko freskuran izerditu belarrari buelta ematen ari baino.

Egurra etxera ekarri-ta, ez dira lanak akitzen:



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Gisa guztietara ikus daiteke egurra etxe inguruan pilatuta.

gurdia hustu, aizkorarekin txikitu eta pilak egin. Horiek denek sukaldea berotzeko balioko dute gero, negua goxoxeago egiteko, baita gaztainak erretzeko ere. Morkotsak

ari dira gorritzen eta irekitzen; eta, ongi bidean, sanmigeletako izanen dira lehenbizikoak; orduan, askorik ez da falta gaztaina jateak egiten hasteko: su eder bat egin,

ganbaratik zartagina sukaldera ekarri, gaztainaz bete, labatza jautsi, zartagina labatzean sartu, eta hari soinua atera, gaztainak txipli-txapla-ka hasi arte.

BERA Zure inguruko klase gaztelako txakurrak (xakorra, zioarra, armarra, labaxo...) eta pirritak zuzentzeko garbitu nahi baduzu, daite! Termite eta Pipien tratamendurik.

GOIKO Inbentarioa Gerturizkoan Erabiltzen

Tel: 948 631 536 - Zuzen, 17 - BERA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!

Barrira arazi taldeak

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertuta **DOKUMENTU-POLTSA** bat (horretan dago optik)

probeta zerbaita 15996

TTIPI-TTAPA

udana salazones

LAC LINEA-1150 SERVICIO

300-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztius Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prestat

Kalitatea: Berrata, 9 - 23. poligono - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 530

Alberto RETEGI abokatuia

948 630 763 - Altxate, 17 - BERA

carrho gortzeak

gortzeak zure inguruan

948 630 763 - Altxate, 17 - BERA

www.carrho.net

NARBARTE-OIEREGI

TELEBISTA → NITRO TELEBISTA KATEAK ESKAINTZEN DITU

Telebistaz pilota partidak ezin ikusiz daude aspaldian narbartearrak

Nitro kateak ematen dituen partidak ikusteko bertze herrietara joan behar du jendeak

Gure herrian pilota maite dugu eta jendea-ri ikustea gustatzen zaio. Hortaz, arazo hau konpontzea dagokionak beharrezkoa dena egitea nahi genuke. Horrela segituz gero, telebistan autoen lasterketak ikusten hasi beharko dugu.


TTIPI-TTAPA

Dagoeneko denbora dexente pasatu da Nitro telebista katea larunbat arratsaldetako pilota partidak ematen hasi zenetik.

Inguruko herrietan Nitroren bidez partidak ikusteko aukera baldin badute ere, Narbarten ikusi gabe jarraitzen dugu eta jendea bertze herri batzuetara mugitu beharrean izaten da pilota saioak ikusi ahal izateko.

Hauteskundeak


Maiatzeko hauteskundeetara ez zen kontzejuetako batzordea osatzeko hautagairik aurkeztu ez Legasan, ez Narbarten eta ez Oiregin ere. Hala, zerrendarik aurkeztu ez zen kontzejuetan ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak deitu ditu berriz Nafarroako Gobernuak. Azaroaren 20an izanen dira eta hiru kontzejuetan lehendakaria eta lau bokal aukeratu beharko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Asiako liztorrak Oieregin

Ohikoa bihurtzen ari zaigu Txinatik etorritako liztorrak gure zonaldean ikustea. Iada hamar hilabete pasatu dira lehenbiziko kabi topatu zenetik eta ordutik bertze 60 aurkitu dira. Azkena, Oieregiko Txino parean dagoen etxola batean topatu da. Diotenez, hauetako 30 liztorrek hiru ordu baino guttiago behar dituzte 30.000 erle hiltzeko. Beraz, ez da harriztekoa erlezainen artean sortu den kezka. Liztor kabi hauek tamaina ttikikoak baldin badira nahikoa da eskopetaz tirokatzea kabi txikitzeko. Baina kabiak tamaina haundikoak badira kabi barruan 500 bat liztor daudenez tirokatuz gero, txikitu beharrean hedatu egiten dira. Momentuz, hausnartzen ari dira tamaina haundiko kabiarekin zer egin.



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEHUNDEHRI | BERRATSAN (OSE) | LESANA | ELIZONDO (BAZTAN) | LETTZA | BÉTELI
DORRETEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUNA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

HAUTESKUNDEAK → BIGARREN DEIALDIA

Urriaren 1etik 15era izanen da Kontzejurako zerrendak aurkezteko epea

Maiatzeko hauteskundeetara ez zen hautagairik aurkeztu

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 22ko hauteskundeetan ez zen Kontzejurako hautagairik aurkeztu eta hori dela eta, bigarren deialdia egin du Nafarroako Gobernua. Azaroaren 20an izanen dira.

Larunbat honetan, urriak 1, hasita hilaren 15era bitarte hautagaien zerrendak aurkezte-

ko epea zabalduko da. Ea oraingoan animatzen den jendea.

Legearen arabera, bigarren deialdi horretan ere hautagairik aurkezten ez bada, Foru Komunitateko Administrazioak kudeaketa-batzorde bat izendatuko du batzarraren bidez gobernatzen diren kontzejuetan.

Gogoratu, azken urteetan Kontzejuan egon den lantaldea hauxe izan dela: lehendakaria Aitor Zelaieta da eta bokalak Iban Urriza, Asier Irisarri eta Dabid eta Laura Andresena.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederra Sanagustinetan eta Santa Leokadian

Urtero bezala, Sanagustinak joan eta Santa Leokadia bertan izan dugu eta giro paregabea izan dugu batean nahiz bestean. Aipatu, zikiro jatea izaten dela partehartze haundiena duen ekintza eta aurten ere horrela izan dela. 128 lagun elkartu baitziren bazkarira eta giro polita izan zen. Bertzalde, igande arratsaldeko aizkora apustuak eta idi probak inguruko jende aunitz bildu zuten. Azkenean garaipena gazteen aldekoa izan zen. Aurtengo bertze berrikuntza suzko zezena izan zen. Larunbat eta igande gauean atera zen eta honek ere ikusmin handia sortu zuen. Leokadiko bestari buruz, erran, larunbatean eman zitzaizela hasiera bezperari dagokion ohiko afariarekin eta jende aunitz hurbildu zela. Igandean, berriz, meza eta aizkora apustuaren ondotik bazkaria eta musika izan ziren.

Udazken-negua

Tafalla, 13 • IRULEÑA • 948 230 634

60
Onen Enpresa
Zure erosketarengatik
urteurreneko oparia

- edredoi fundak
- edredoi nordikoak
- ohe estalkiak
- albornozak
- maindireak
- mantelak
- kuxinak
- toailak

ERATSUN

FESTAK → LOKARIKO AMABIRJINAREN FESTAK

94 lagunek parte hartu dute aurtengo festetako zikiro jatean

Lehenengo eguneko emakumeen afarian 40 lagun elkartu ziren

Fernando ETXEBERRIA

Irailaren 8ko goizean botatako txupinazoarekin hasi ziren Lokariko Amabirjinaren jaiak. Ondoren txistulariekin kalejira eta Meza Nagusia izan ziren. Aizkora apus-tua ere egun berean egin zen, eta Eratsun eta Larretxea, Rekondo eta Saralegiren aurka aritu ziren. Garaipena leitzarentzat izan zen.

Arratsaldean bi pilota partida jokatu ziren eta etxeko pilotariak, Bendoirok, ezin izan zuen markagailuan 22ra ailegatu. Ondoren, beste urte batez, Modestok jarri zituen herritarrek dantzari. Gauean, aurreko urteko ohiturari segituz, 40 emakumezko elkartu ziren afaldu eta txutxumutxuekin gozatzeko.

Ostiralarekin, mus txapelketa jokatu zen eta Pello Juanena eta Patxi-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Giro ederrean joan dira aurtengo festak ere.

ku Retegik osatutako bikoteak irabazi zuen. Tolare eta Benjamin azpitxapeldun gelditu ziren.

Larunbatekin egin zen zikiro jatean 94 lagun elkartu ziren, eta Anjel herriko akordeoilaria giroa alaitzeaz arduratu zen. Nabarmenezkoa da aurretik mahaiak para-

tzen eta ondoren zerbitzatzen aritu zirenen lana.

Doneztebeko Erreka Dantza Taldearen emaldia ere ikustekoa izan zen, eta jendeak erantzun ona eman zuen, bai-ta gogotik txalotu ere. Ondoren, Obanauke taldearekin dantzaldia izan zen goizaldera arte.

Igande arratsaldearekin beste bi pilota partida jokatu ziren eta festak akitzeko Modesto akordeoilariak dantzaldia eskaini zuen.

Musutruk aritzen diren bi lagun lan ere nabarmenezkoa da: Ezkurrako Cipriano aizkora apusturako egurra jar-

tzeaz arduratu zen eta Julianek pilota partidetarako materiala prestatu zuen. Tantuak kontatzeko tresna aski moderno ere jarri zuen lurrean, eskolako tiza edo klera eta guzti.

Mariezkurrena familiak ere aipamen berezia merezi du. Izan ere, etxeko bajera herritar guzti-entzat zabaldu zuen, otorduak eta edariak eskaini eta mus txapelketa egiteko. Arretaz eta atsegintasunez zerbitzatu zuten.

Eratsungo festetara kanpotik joaten direnei arreta pizten diena, hala ere, pilota partidak frontoi zaharrean jokatzen direla da, nahiz eta frontis altuegia eta ezkerreko paretak garai bateko elizaren paretari itsatsia duen, eta hiru leihoekin, gainera. Duela urte batzuk inauguratu zen frontoi estalia, baina herritarrek zaharra nahia-go dute. Hartara, publikoak kantxatik hurbilago gelditzen delako eta jendeak etxeko balkoi eta leihoetatik partidak ikusten ahal dituelako.

APARAN, S.A.
BRINDOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzomerak
- Ate aruntak eta sukai-de mogleendakoak
- Pintura eta bernitzak
- Banurako mogleak eta osagariak
- KIT mogleak: esku-erremintak, itabi

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

JUAN J. PIKABEA

%10 eko. DESKONTUA
merke batzuetan eko.

OSPAKIZUNAK → EUSKAL HERRI MAILAN EGITEN DEN FESTAREN HIRUGARREN EDIZIOA DA

Dena prest dago larunbat honetan eginen den Kizki Egunerako

Sagarrak kizkiarekin biltzeko erronka 12:00etan hasiko da

Baserritarren zapi eta zapelarekin joateko deia egin da

TTIPI-TTAPA

Astigarragak 311, Oiartzunek 354, Goizuetak 355 baietz! Horixe izanen da larunbat honetan, urriak 1, eginen den Kizki Eguneko erronka. Aurreko alean aipatu bezala, Kizki Eguren hirugarren edizioa ospatuko da eta kizkiarekin sagarrak biltzeko bildu nahi da jendea. Horren aitzakian, egun osoko ospakizuna antolatu da:

- 11:00etan azoka: sagarra eta sagardogintzarekin zerikusia duten produktu eta tresneriaren azoka plazan.
- 12:00etan Kizki erronka. Kizkiak hiru eurotan egonen dira salgai.
- Giroa alaitzeko plazan Umore Ona dantza taldea, txalapartariak eta musika izanen dira.
- 13:00etan kizki kontaketa. Errekor berria ospatzeko sagardoa edanen da txotxetik.
- 14:30ean bazkaria. Bazkarirako txartelak 16 eurotan egonen dira salgai eta 14 urtez azpikoena 10 eurotan. Kizkia eta bazkarirako

txartela 18 eurotan eskura daiteke. Txartelak Amaia kafetegian salgai (948 514242).

- 17:30ean sagardogintzako herri kirolak: desafioa Oiartzun, Astigarraga eta Goizuetaren artean.
- 19:00etan trikitilariak herriko kaleetan barna.
- Baserritarren zapiarekin eta zapelarekin joateko deia egin dute antolatzaileek.

Ikastaroetan izen-ematea

Ostegun honetan, irailak 29, bukatuko da ikastaroetan izena emateko epea.

Yoga, eskulanak, gimnasia eta harria eta egurraren taila dira aurtentzako aukerak. Dauden ikastaroak eta jendearen erantzunaren arabera aterako dira aurrera ala ez. Ikastaroak urriaren hastekoak dira eta interesatuek Udaltzariak deitu (948 514006) beharko dute, osteguneko 13:30 baino lehen.



ARGAZKIAK: ISKIBI KANPINA ETA OLATZ MITXELENA

Euriz eta umorez betetako Euskal Jaiak

Eguraldiak ez zuen askorik lagundu Iskibi kanpineko Euskal Jaian, baina ez zuen horregatik giroak hutsik egin. Aurreikusitako jokoak ez ziren egin eguraldi txarragatik, baina eguerdiko talo jatea giro ederrean joan zen, dultzainero eta trikitilariak alaituta. Arratsaldean asto lasterketa egin zen herriko bi gazte eta kanpineko bi langileren artean. Fernando eta Xumar aritu ziren alde batetik, eta Dabid eta Jose Manuel bestetik. Azkenean, esprint baten ondotik bi herritarrak nagusitu ziren. Euskal Jaiekin batera itxi zuten denboraldia kanpinean eta hurrengo urtean segitzeko asmotan direla adierazi digute arduradunek.

J. RAMOS
zolak akutzilatu eta barnizatzen dituzte
Saketekoa: 617 616 073 - LESAKA

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
Zure laguntza eskertuta
DOKUMENTU-POLTSA
bat (jantzi eta oinetak)
15996

616 513 497
GARRAIOAK,
ESKABAZIOAK,
KONTENEDOREEN
ZERBITZUAK
Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 30 m³
Mota guztietako hondakinak biltzen dira
Tel/Fax: 948 45 13 89
C/ Ametzia, 1 - 31740 Doneztebe (Nafarroa)

LEITZA

OSPAKIZUNAK → AURTEN BOSGARREN ALDIZ

Aurrera Kirol Elkartearen pesta larunbat honetan egingen da

Aurrerako ikurrarekin blusa beltza janztera animatu dute antolatzaileek

- 09:00etan txistularien diana.
- 11:00etatik 13:00etara haurrentzat rokodromo, tirolina eta zaldi ibilaldia plaza inguruan.
- 10:00etan Aurrerako Kirol Jolasen eskutik futbol partida plazan.
- 11:00etan pilota eskolakoen saioa plazan.
- 12:00etan dantzarien saioa plazan.
- 13:00etan Incansables txarangarekin poteoa.
- 14:30ean Aurrerako bazkideen bazkaria karrapen.

TTIPI-TTAPA

Aurten bosgarren aldiz, Aurrera Kirol Elkartearen pesta haundia ospatuko da larunbat honetan, urriak 1. Goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak:



ARGAZKIAK: PABLO FEO / ELENE ARRAZOLA

Iruñeko Ander Irizarrek irabazi du talo lehiaketa

Eguraldi bikaina eta giro ederra izan zen irailaren 11n Talo Egunean. Hainbat ekitaldi izan ziren eta horien artean, berezienean, talo lehiaketa. Aurtengoan, Iruñeko Ander Irizar atera da garaile. Bigarren saria Ylenia Villabona herritarrek lortu zuen eta hirugarrena Maite Bereziartua azpeitiarrak. Ondotik sailkatu ziren Euge Berriola, Izaskun Sarasa eta Adriana Nagorek aurkeztutako taloak. Baina talo lehiaketaz gain, beste hainbat ekitaldi izan ziren: talo tailerra, baserriko animaliak eta lan tresnak ikusgai, Villabona eta Saralegi familien taloak eta Leizta eta Lekunberriko jatetxeek taloak oinarri zuten platerak aurkeztu zituzten.

- 16:30ean futbol partida Arkiskislen: Aurrera eta Amigó taldeak.
- Bazkal ondotik bazkideen ingurutxoak.
- Ondotik Incansables txaranga eta buruhandiekin poteoa.
- 21:30ean luntxa Aurrera eta pestarekin jarraitzeko Jose Mendizabalekin dantzaldia.

2011KO PESTAK → AUZITEGI NAZIONALEAN DEKLARATU DUTE HIRU HERRITARREK

Jasotako babesak eskertu dute Saioa Iraola, Lurdes Juantorena eta Oier Eizmendik

Pestetako txupina-zoaren harira, Espainiako Auzitegi Nazionalak deklaratzera deitu zituen Oier Eizmendi alkatea eta Saioa Iraola eta Lurdes Juantorena herritarrak, «terrorismoari gorazarre» egitea egotzita. Irailaren 8an hartu zioten deklarazioa Madrilan eta orain epaiaren zain daude.

Hiru herritarrek jasotako babesak eskertu nahi izan dute: «ikaragarria, zoragarria eta ezinbestekoa izan da: hiruak, burua tente, irribarre txikia ahoan eta bihotza lasai Audentzia Nazionalera joateko». Baina aldi berean, gertatutako salatu dute: «pesten hasierako ekitaldiak zoragarri jo-

an baziren ere, hurrengo egunean komunikabideetan ezjakintasunetik kontatutako kronika irakurtzeko aukera izan genuen. Kronika hau Yolanda Barcinak eta *Diario de Navarra* elkarrekin prestatutako Leitzaren eta herritarren kontrako eraso berri bat izan zen, gertatutakoa itxuraldatu eta euren interesen arabera erabiltzeko», diote hiru lagunek prentsara bidalitako idatzian. Komunikabideetatik berriak jaso eta hortik hiru egunetarako jaso omen zituzten zita-zioak eta hori «onartezina» dela diote. «Honek argi erakusten du komunikabide gehienak indar politikoen menpe daude-

la». Bide batez, «deklaratu aurretik eta ondoren jasandako intoxikazio mediatikoa» salatu dute.

Oier Eizmendi alkateak TTIPI-TTAPAri adierazi dionez, «gertatu den guztia nahiko aspergarria eta nekagarria izan da, festetako egunak ere nekagarriak izan ziren, zure izena eta aurpegia egunero prentsan ikus-tea ez da erraza izaten, gauza berdinak behin eta berriz azaltzea ere neka-

garria izaten da, baina zorionez horrelako gauze-kin ez naiz asko urduritzen eta kontua nahiko lasai eramatea lortu dut». Momentu «gogorak eta zailak» izan direla aitotu digu, eta orain epailearen erabakiaren zain dauden honetan, berri gehiago izan arte ez bueltarik ematea erabaki omen du: «alferrik baita zure buruan kontu berari bueltak aritzea erabakia zure esku ez dagoenean».

Eizmendik argi du «dena muntatu duten zirku mediatikoaren ondorio izan dela». Gaineratu digunez, «Bilduk lortutako emaitzak batzuentzat benetan mingarriak izan dira eta nondik edo handik

Bilduren aurka egiteko beharra daukate, eta oso garbi geratu da gure aurka egiteko egunkarietan atera ziren itxuraldatutako berriak izan dituztela oinarri. Helburu politiko batzuekin idatzitako berriak izan ziren txupina-zoaren ondorengo egunean azaleratu zituztenak eta epaiketak ere bide beretik jarraitu du».

Horrekin batera zera esan digu: «ez nuke aipatu gabe utzi nahi herri honen izatea apurtzeko batzuek daukaten grina, eta presoenganako herri honek duen elkartzuna delitu dela jendartean sinistarazteko gogoia. Baina jakin dezatela ez dutela lortuko».

«ZIRKU MEDIATIKOA»
«Muntatu duten zirku mediatikoaren ondorio izan da dena»

Oier EIZMENDI alkatea

EHIZA DENBORALDIA → EHIZTARIAK PRESTATZEN

Ehizako hiru postu berri egingo dira beste hiru zahar kenduta

Garagartzako hiru postuak kenduko dira

Ainhoa eta Kontxi

Azkeneko urteetan inork erabiltzen ez zituela eta, Garagartzako hiru postu kendu eta beste hiru egitea erabaki zen Ehiztarien Elkarte azken bileran.

Kentzekoak ziren hiru postuak azken urteetan ez ziren errotazioan sartzen eta horregatik, leku hobea izango dela iritzita, Errekalkotik

Arriurdiñeta bitartean egin dira haien ordezko beste hirurak. Postu berriak egiteko hilaren 24an elkartu ziren zenbait ehiztari.

«Gora-gora Santio urian pasiak»

«Urian pasiak». Horrela izan dira aurtengo Santio luzeak Julio Soto bertsolari gazteak bertsotan ederki adierazi zuen bezala.

Santioetan suspentitu ziren ekitaldiak burutzeko asmoz irailaren 17an festen luzapen bat



ARGAZKIA: IGNACIO EGURZA

12 neska-mutikok hasi dute ikasturtea

Udarako oporraldiaren ondoren irailaren 7an hasi ziren herriko haurrak Goizuetako eskolara. Joan zen urtean hamar ibili baziren egunero aurrera eta atzera, ikasturte honetan beste bi haurtxo gehitu zaizkie; Uxue eta Iraia. Hauekin hamabi ume txo ibiltzen dira joan-etorrian. Azken urte hauetan gorakada handia izan du Arano bizenleria txikienenak eta espero dugu aurrerantzean horrela jarrai dezan.

egitea erabaki bazen ere, eguraldiak oraingo honetan ere ez zuen abagune handirik utzi.

Goizeko pilota partidak jokatu ziren frontoia zerrautsaz eta ahal zen bezala lehertu ondoren eta Goizueta nagusitu

zen Aranoarren aurretik. Ondoren bertsolariak aterrun batean hasitako saioa eurratan bukatu zuten, eta arratsaldeko puzgarri eta herri kirolak berriz ere atzera bota behar izan ziren euria zela eta.

Honen guztiaren ondorioetako bat zera da: aranoarrek, horrelako kasuak errepika ez daitezen soluzio bat behar dutela, eta askoren ahotan entzun den soluzio hori frontoi estaliarena izan da.

ARESO

GIZARTEA → BIZKAIAN JOKATU DA LEHIA

Euskal Herriko Artzain Zakur Txapelketan bigarren izan da Antonio Alustiza

Nazioarteko Txapelketan aritzekoa zen joan den asteburuan

Juana Mari SAIZAR

Antonio Alustiza eta Ttikizakurrak Uharte Arakildik Bizkai aldera egin zuten salto irailaren 18an, Euskal Herriko Artzain Zakur Txapelketan parte hartzeko. Abadiñoako Jose Urien artzainaren

Bizkai zakurrak egin zuten lanik onena Axpen (Atxondo). Aresoarrak eta Ttikizakurrak bigarren postua lortu zuten. Beraz, berriro zoriontzia besterik ez zaigu gelditzen.

Irailaren 25ean Oñatin (Gipuzkoa) egitekoa zen Nazioarteko Txapelketan ere parte hartzekoak ziren Alustiza eta Ttiki.

Depuradorak egiten

Coyser enpresa ari da herriko bi depuradorak

egiten, bat industrialdean eta bestea herri sarrean. Eguraldi ona aprobetxatzen ari dira lana aurreratzeko eta herriko gazte bat ere hartu dute, langile beharrean zirela-eta.

Trikitixa eta pandereta ikastaroa

Gorka Arraiagoren eskutik, trikitixa eta pandereta ikastaroa martxan jarri da herrian. Ikasturtea urrian hasiko da eta oraingoz eskolan eman-



ARGAZKIA: WWW.ARESO.INFO

Udazkenean, ehiza denboraldia prestatzen

Ehiza garaia dela-eta, lehenengo subasta hilaren 17an egin zen eta iazko dirua baino gehiago bildu zen. Ale hau argitaratzerako jakingo da zenbateko kopuruz ari garen eta hurrengoan emango dugu horren berri.

go dira klaseak. Hala ere, gerora begira udaletxeko gaineko lehenengo solairua osatzen denean, hara pasatzeko asmoa dago.

Otoitzaldia

Asis sareko otoitzaldia hilabeteko azken ostegunetan egiten denez, oraingoa irailaren 29an izango da, 19:30ean.

BAZTAN

HEZKUNTZA → OSPAKIZUNAK

Igande honetan Oronozen eginen da herrietako eskolen besta

Goizean herrian barna ibilaldia eginen da, ondotik bazkaria eta akitzeko dantzaldia

bazkari autogestionatua eginen da frontoian, eta akitzeko dantzaldia izanen da akordeoiarekin.

Bidelagun jardunaldia

Bertzearen larruan jartzen izenburupean, Bidelagun elkarteak foma-zio tailerrak antolatu ditu urriaren 7rako. Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean izanen dira saioak eta edozeinentzat irekiak izanen dira.

- 16:30ean: *Gizarte beraldatzeko tresnak boluntariotzaren ikuspegitik* hitzaldia Cesar Garzia Rincon, Homo Pro-socius Gobernuz Kanpoko Erakundeko lehendakariaren eskutik.
- 17:30ean: atsedena eta kafea.
- 18:00etan: Haiti-Etiopiari buruz, kooperante baten esperientzia kontatuko du Rosario Iraola hizlariak.
- 19:00etan boluntariotzaren konpromiso ar-

TTIPI-TTAPA

Aurten Oronozek hartuko du Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta. Igande honetan, urriak 2, izanen da eta bertze urte batez *Gure eskola publikoa, euskalduna eta herrikoa* aldarrikatuko dute.

Urdazubi-Zugarra-murdi, Amaiur, Azpilkue-ta, Erratzu, Arizkun, Gartzain, Irurita, Arraioz, Ziga, Almandoz eta Oronozko eskoletako gurasoek antolatuta, 10:30ean emanen zaio bestari hasiera. Ordu horretan eskolatik abiatuta herrian barna oinezko ibilbidea eginen da. Ondotik



ARGAZKIA: BAZTAN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA

Jendetza Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioan

Azken urteetan bezala, ikasturte hasieran Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak gonbidatu zituen Baztan Ikastolak Lur dantzalekura. Aldi honetan, Pupu eta Lore jaioberriak aurkeztera etorri ziren. Jendearen erantzuna handia izan zen, izan ere, ia mila lagun elkartu ziren irailaren 18an Lur aretoan. Argazki-kan Ikastolako Guraso Elkarteko zuzendaritzako kideak Porrotxekin.



ARGAZKIA: RAKEL GOÑI

Bisitari berriak Arizkun

19 bisitari izan zituzten irailaren 17an Klarisen komentuan, 19 zikoina han agertu baitziren teiltatu gainean.

lo berriak: kartzelako boluntariotza eta hegoaldeari laguntze-

ko boluntariotza programen aurkezpena egiten du Isidro Hergue-

das Bidelagun elkarte-ko kideak.

- 20:00etan amaiera.

ANYXIONIA
Inmobiliaria

Konpromisoa, profesionalismoa eta serbitzioa.

Brasil 10, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
anzabal@anyxionia.com • www.anyxionia.com

ANZABAL INMOBILIARIA

• Zuzen Arizkunetik Auzo, Elizondora, Irujo eta Nafre eremuetan.
• Lan-eremuetatik Bermeo eta Arguñu herrietan.
• Alkotatutako etxeak. Errenta gaitasuna. BEZA...
• Inbentarioa. Baserri, bertza, erro, etab... salmenta eta alkatua.
• Zuzenbidea.

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

GARTZAINGO PILARIKA BESTAK → URRIAREN 11TIK 15ERA

Pilarika Egunaren bezperan emanen zaie hasiera bortz eguneko beste

Haurrek Kulkirekin jolasteko aukera izanen dute beraien egunean



OHARRA

Baztanzopetarako eta zikiro jaterako txartelak Fransene, Kortarixar eta Saioa ostatueta salgai, urriaren 5era bitarte.

koak. **20:00etan** triki-bertso poteoa. **22:00etan** Mutildantzak trinketea. **Segidan** patata tortilla jatea. **23:30etik aitzinera** dantzaldia SANTXOTENArekin.

ASTIERTIA 11 Bezpera

19:00etan txupinazoa eta ezkil jotzea. **21:30ean** Baztanzopak trinketea. **00:30ean** dantzaldia KUPELA taldearekin. **07:00etan** zinger jatia.



ARGAZKIAK: ION ARRETXEA

Kirola eta besta, biak bateratzeko aukera izanen da aurten ere Pilarika bestetan.

LAUNBETA 15 Herritarren Egune

10:00etan dianak eta argi soinuak. **11:30ean** herritarren arteko desafio. **14:00etan** zikiro jatea. **Ondotik** boletoen zozketa eta sari bana-keta. **19:00etan** dantzaldia JOXEANJELe-kin. **21:30ean** Mutildantzak trinketea. **22:30etan** pintxoak afaltzeko. **Ondotik** gauda JOXEANJELe-kin eta herriko besten azken hatsa.

ASTIAZKENA 12 Pilarika Egune

10:00etan dianak eta argi soinuak. **12:00etan** Meza Nagusia Aixteiko ermitan. **Ondotik** luntxa. **14:00etan** bazkaria trinketea. **19:00etan** Gartzaingo II. Patata Tortilla lehiaketa, SANTXOTENAK alaituta. **21:30ean** Mutildantzak.

22:00etan lehiaketako tortilla hoberenak afaltzeko.

argi soinuak. **16:30ean** haurrendako herri jolas eta herri kirolak KULKI-rekin. **18:30ean** txokolatada haurrendako, SANTXOTENAK alaituta. **20:00etan** Mus Zimizte txapelketa. **22:00etan** gazte afaria.

ORTZILERIA 14 Gazte Egune

10:00etan dianak eta argi soinuak. **11:30ean** futbito txapelketa herritarren artean. **14:00etan** gazte bazkaria. **17:00etan** gazteendako jo-

ORTZEGUNE 13 Haurren Egune

10:00etan dianak eta

MENDI
ostata
Santiago 25
948 500 312
ELIZONDO

SOULE
Hosta arropa
T. 948 432 444
F. 948 432 444
www.soule.com

MENDIA
Santitas
T. 948 453 050 - AMAJUR
www.mendia.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 39 2G ELIZONDO
T. 948 531 444 M. 630 204 811

Suteia-Zaldain
instalazioak
IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK
Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820

BAZTAN

UDALA → HERRITARREN PARTEHARTZEAREKIN

Gizartea, euskara eta hezkuntzako udal batzorde irekiak ere lanean hasi dira

Gizarte batzorde irekiak urriaren 19an egingen du hurrengo bilera, hezkuntzakoak azaroan eta Euskarakoa aste honetan biltzekoa zen

TIPI-TTAPA/M. OTEIZA

Kultura eta hirigintzako batzordeak behin hasiz gero, gizarte zerbitzuetako, euskara eta hezkuntza batzordeak ere ikasturtearekin batera hasi dira lanean.

GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuetako batzordea bi aldiz elkartu da. Partehartzea haundia izan da eta bakoitzak bere egoera, beharrak eta nahiak agertzeko aukera izan du. Hortik aitzinera, azpitaldeak eginez lanean hasiko da. Hurrengo bilera urriaren 19an 13:00etan izanen da.

HEZKUNTZA

Hezkuntza batzordea buruilaren 21ean bildu zen lehenbiziko aldiz, eta CRANAKo apustu energetikoa izan zen hizpide, energia murrizteko Baztango ikastetxeek eta Udalak proiektuarekin bat egiteko pro-

posatuz. Hurrengo bilera azaroaren 15ean izanen da, 18:30ean.

EUSKARA

Euskara Batzordea ere hasia da lanean. Guttienez hilabete behin bilduko dela hitzartua du eta euskaren normalizaziorako bideak eta irizpideak herri mailan ikusi, eztabaidatu eta proposatzea, euskararen inguruan egiten diren lan guztiak koordinatzea eta ekimen eta aktibitateen bidez euskara berreskuratuz, garatu eta erabilerara bultzatzea izanen dira bere helburuak. Dena den, orain lehentasuna udaleko lanpostuen hizkuntza eskakizunak ezartzeari emanen zaio, langileak euskaldundu nahi baitira.

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko gonbidapena ere jaso du Udalak. Astearte honetan, irailak 27, bilera egiteko zuen Euskara Batzordeak.

Iruzur kasuak

Brokak, labanak, diskak edota bertzelako tresnak zorrozteko zerbitzua eskaintzen dutela erranez, iruzur egiten ari den talde bat dabilela jakinarazi du Foru Poliziak. Irail hasieran Baztango enpresa batean egin zuten iruzurra



ARGAZKIA: ONDIKOL

Imanol eta Marik 57 urte egin dituzte esposaturik

Imanol Gaztelumendi Zabaletak eta Mari Bikondoa Plazak 57 urte egin dituzte elkarrekin esposatuak. Eta modu berezian ospatu nahi izan zuten urteurrena: zahar gutziak elkartuz bazkaria egin zuten zahar etxean eta postrea, flana, kafea eta kopa Marik berak egin zituen. Guztira 150 lagun bildu ziren, baita langileak eta mojak ere. Kanpotik ere etorri zen jendea. Girorik ez zen falta izan, suziriak botatzeaz gain, txistulariak ere aritu baitziren. Mari bera akordeoiarekin ere aritu zen.



ARGAZKIAK: RAKEL GOÑI

Elbeteko bestak giro ederrean

Gurutze Sainduaren Egunarekin hasi ziren bestak eta giro ederrean joan ziren. Bortz egunez adin guztietako herritarrek izan zuten ongi pasatzeko aukera.

eta gehiagotan ere ibiliak dira.

Titanoiarekin egindako zorrozketan modu «berritzailea» eskaintzen dute, eta frogatzen duen txanpon bat moztzen dute labana edo guraize

batzuekin. Baztango kasuan, proba egin eta erreminta saila eraman zituzten aurrekonturik egin gabe. Ondotik, neurritzeko faktura aurkeztu zuten. Lana egindakoan, diru kanti-

tate haundiak eskatzen dituzte, telefonoz egindako mehatxuen bidez.

Enpresa, komertzio edo ostalaritzan eskaini izan dute zerbitzu hau eta horrekin kasu emateko ohartarazi dute.

AZPIEGITURAK → LEKAROZ

Lekarozko komentuko obrak aldaketak eragin dizkio trafikoari

ARGAZKIA: MAITE OTEIZA
Lekaroztarrek Iruritatik sartu eta atera behar dute herrira.



Maite OTEIZA/TTIPI-TTAPA

Kaputxinoen egoitzak bota ondotik, obrak hilabetetan geldirik egon dira, baina gan den abuztuan berriaz ere martxan hasi ziren.

Oraingo fase honetan, markatzea eta urbanizatzea izanen dira lan nagusiak. Hala, gelditzen zena bota (arrosa koloreko etxea, bertzeak bertze) eta errepidearen bi aldeak inguratzen zituen paretat botatzean dena espazio librea geldituko da.

Honen ondorioz, trafikoak aldaketak izan ditu. Lekaroztarrek Iruritatik sartu eta atera behar dute, eta institutura gantetorri egiteko errepide nagusiko bidegurutzetik hartu behar da, ia-ia Gartzain parean.

Erratzuko errebestak urriaren 8an

Hasiera batean irailaren 24an ospatzeko ak ziren errebestak Erratzun, baina azkenean gibelaratzea erabaki dute eta urriaren 8an eginen dira. 12:00etan bertso poteoa izanen da herrian barna eta 14:30ean zikiro jatea eginen da. Zikiro jatera joateko txartelak Iparla ostatuan, Albantzenea tabernan, Altxuko dendan eta Zubipunta ostatuan eskura daitezke.

Arratsaldean, 18:00etan, Agerralde akordeolariarekin dantzaldia izanen da eta gauean gaupasa.

"Merezi duzu" Nomina Zerbitzua
www.ruralvia.com

badabil

NOMINA HONEKIN DENAK DIRA ABANTAILAK

ELIHEN NOMINA RURAL KUTXAN KORRAJIZEN DUTEN KUERTEN BADIUZITE JADA BALDINTZA FINANTZARIO BAKAR HAUEN:

- Nomina Kontua kamioerik gabe.
- Nomina-izuztasunak dohaiarik.
- Nomina mategia konpurturik gabe.
- Zoodunena eta kreditu turistikoa jasotzen leuotarik gabe eta arteko kuotak %100 eta %50 arteko beharpenak hurrenez hurren emateko egindako erabilpen mailaren arabera.
- %10eko deskontua Etakiztara, Birtza eta Iparla Auzoetan.
- Zordunbete bidezko diru-eratzeko dohaiarik eta mugagabeko Nazioarteko kargu-ordain erantzulezko zerbitzu kutxazartean.
- Osoko kudeaketa, erabilizko zure jostuaz zordunbete.

HELBIDEKITU ZURE NOMINA RURAL KUTXAN ETA ONURATU ABANTAILA GUZTI HAURETAZ.

DEN-DENA MEREZI DUZU

BAZTAN

OSASUNA → ZERBITZUA BERRANDOLATU EGINEN DA

Elizondoko osasun zerbitzuetan aldaketak izanen dira urriaren 6tik aitzinera

Eskaera nagusiei ahalik eta hobekien erantzun nahi zaie

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Osasun Etxea Nafarroako Oinarritzko Osasun Laguntza Hobetzeko Plan berrian sartuko da urriaren 6tik aitzinera, zerbitzuak berrantolatzeko eta «pazienteek egin dizkiguten eskaera nagusiei ahalik eta hobekien erantzuteko». Berrantolaketaren helburu nagusiak, hitzordua, beharrezkoa bada, eskatzen den egunean berean izan dadila ziurtatzea, telefono bidezko atentzioa hobetzea, behar bakoitzerako arreta mota egokiena ematea, Osasun Etxera behin eta berriz etorri beharrik ez izatea nahitaetza ez bada, osasunerako hezkuntza eskaintzea, eta nork bere burua zaintzen erakustea dira.

Egindako aldaketak direla-eta, bertzelakoa da orain hitzordua eskatzeko prozedura.

ESKAERAK SAILKATU ETA LEHENTASUNAK FINKATU

Paziente bakoitzari aholkurik egokiena eman ahal izateko, harreralekuan ari diren langileek zer arreta behar den galdetuko diote pazienteei.

HELBURU NAGUSIAK

Lehentasunak finkatu, hitzorduak antolatu eta telefono bidezko arreta hobetu nahi dira.

Horrela, kontu aunitz telefono bidez konpontzen ahaliko dira, kontsultara joan beharrik gabe.

Administrariak zuzenean emanen dute erantzuna, eta, beharrezkoa bada, harremanetan jarriko dute eria medikuarrekin, erizainarekin edo gizarte-langilearekin.

HITZORDUAK

Eriari ahalik lasterren kasu egiten zaiola ziurtatzeko, pazienteak beharrezkoa iruditzen zaion guttieneko informazioa eman behar dio administrariari. Honela, berahala laguntza behar duten larrialdiak, egun berean hitzorduak edo ustez behintzat 2-4 egunez esperatzen ahal duten erien hitzordu arruntak bereiziko dira. Administrariarekin batera, eriak berak erabakiko du hitzordua egun bererako behar duen ala ez.

Prebentzioa eta hezkuntza ere indartu nahi dira. Hala, erizainek protagonismo handiago izanen dute egokiak baitira hasierako sintomak baloratzeke.

TELEFONO ZERBITZUA

Osasun Etxeak telefono zerbitzu berria izanen du, telefono guztiak



ARGAZKIA: LEGARRAK UTZITAKOA

Oronoztarren desafioa lasterka

Giro polita sortu zen irailaren 17an Oronoz-Mugairiko futbol zelaian egin zen desafioaren inguruan. Argazkian kamiseta berdearekin ageri diren herriko hamar gazteek Rafa Maritxalar eta Jose Mari Zamora lasterkari haundien kontra jokatu zuten lehia. Hamar kilometro egin behar izan zituzten futbol-zelaiaren inguruan: gazteak hamar izaki, bakoitzak kilometro bana egin behar izan zuen (futbol-zelaiari lau itzuli) eta korrikalari profesionalak, berriz, bien artean beste horrenbetez, hiru itzuli Maritxalarrek eta bat Zamorak. Joan den urtean ere gazte hauek izan ziren Maritxalarren kontra lehian aritu zirenak eta herritarrek atera ziren garaile. Aurtentzen, ordea, Zamora ondoan izan du Maritxalarrek eta bi hauek irabazi zuten. Apustuak ikusmina sortu zuen eta ehun lagunetik goiti elkartu ziren saioa ikustera.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Beartzundarren topaketa

Beartzundarrek urteroko besta ospatu zuten iraileko hirugarren asteburuan. Hildako auzotarren alde meza entzun ondotik, argazkia atera eta Antxitonea trinketean bazkaldu zuten. Azken eroldaren arabera, 59 lagun bizi dira Beartzunen.

okupaturik daudenean hartu ezin diren deiei kasu egiteko. Larrialdia delarik, eriak tekla bat zapaltzen ahaliko du, eta, bere deia zuzenean joanen da egiazko larrialdietako telefonora.

Pazienteak uste baldin badu bi edo hiru egunez esperatzen ahal duela, nahi izanez gero, mezu bat uzten ahaliko du erantzungailuan, izena eta telefonoa erranik. Goizean, Osasun Etxeko

administrariak deitu eginen diote. Posta elektronikoz ere eskatzen ahal izanen da ordua (citaselizondo@navarra.es), izena eta telefonoa utzita.

Lehenbiziko orduan telefono dei guztiak ez piltatzeko, ahal dela 08:00etatik 09:30era ez deitzeko ere eskatu dute, ez bada ezinbertzea egun horretan berean hitzordua izatea. Hitzordua Internetez ere hartzen ahal da: www.citasalud.navarra.es.

GAIXOEN LAGUNTZA

Helburuak bete daitezten, laguntza eskatu die Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango herritarrei, «Osasun Etxea hobetzea denon ardura baita». Horrekin batera, Elizondoko Osasun Zentritik jakinarazi dutenez «arras inportantea da herritar guztiak ongi irakurtzea eskualdean banatuko dugun liburuxkan ematen diren aholkuak. Dударik izanez gero, aski da deitzea».

Naturarekin duzun konpromisoa

Lurra ez da gurasoengandik jaso dugun ondare bat, baizik eta gure seme-alabek maileguz utzitako ondasun bat

Esaldi horrek filosofia oso bat biltzen du gutako bakoitzak ingurumenarekin duen harremanari dagokionez. Hala ere, ez gaude pentsatzeko modu horretara guztiz ohituta. Besteek –etorkizuneko belaunaldiek barne– Lurraz gozatzeko duten eskubideak mugatzen du neuk Lurraz ‘baliatzeko’ dudan askatasuna. Azken batean, hainbestetan aipatzen dugun garapen iraunkorerrantz bideratu behar ditugu gure ahaleginak, erabakitutasun osoz.

Gure herrien natura aberastasanari eustea beharrezkoa da guztiontzat, bai orain hemen gaudenontzat bai gerora egonen direnentzat. Gozaten dugun lurraldeak baditu natura balio egiaz aberatsak. Kontserbatu beharreko natura baliozko leku batzuk (Belate, Orabidea, Artikutza, Bidasoa, Leurtza, Bertiz, eta baita beste asko ere); nork bere lekuak ditu naturarekin aurrez aurre egoteko.

Zalantzarik gabe, ura da inguruan dugun natura aniztasunaren eta aberastasanaren oinarritzko elementua. Denon eskura dago ura. Ura bizia da, eta uneoro ikusten dugu, noranahi begiratzen dugula ere. Haatik, ura kutsatzea ika-



Olio erabilia tratatu ondotik, bigarren belaunaldiko biodiesel fabrikatzeko erabiltzen da.

ragarri erraza da. Kutsadura hori oso kaltegarria da uretako bizitzarako, eta biziki mugatzen ditu ura erabiltzeko dauzkagun aukerak.

Ura araztegieta garbitzen dute, berriz naturara itzularazi aurretik. Alabai-

na, araztegieta modu eraginkor eta merkeago batean lan egin dezaten, denok kontuan izan behar genuke ezin dugula bota edozer gauza ur isurbidetik behera, ez baita batere ohitura ekologikoa.

Kalterik egiten ez duela

ematen badu ere, landare olio erabilia harraskatik behera botaz gero, urak kutsatu egiten dira. Gaur egun, oso erraza da halako oliorik ez botatzea eta berreskuratzea, kutsa ez dezan.

Gorde ezazu olioia etxean daukazu edozein ontzitan, ongi itxi, eta sar ezazu olio erabilia biltzeko edukiontzi laranjetan. Keinu txiki horri esker, mesede handia egingo diozu ingurumenari, dudarik gabe.

Modu horretan, olioia birziklatzeko kateari ekiten diozu. Zure olio erabilia tratatu eta araztu ondoren, bigarren belaunaldiko biodiesel fabrikatzeko erabiltzen da.

Zer esan nahi du horrek? Bada, biodiesel mota horrek ez die lekuri kentzen jaten ematen diguten uztei, ezta gure planeta bat eta bakar bilakarazten duten izaki bizidunen aniztasunaren birrika eta habitat diren basoei eta beste ekosistema batzuei ere. Eta merezi du gure planeta babestea, gure seme-alabek ere planeta horretaz goza dezaten eta haiek utzitako ondare hori zaindu egin dugula esateko aukera izan dezaten.

Bisita gaitzazu www.ecogras.es eta www.facebook.com/ecogras helbideetan. Zure zain egongo gara!



EKOGRAS
BERRERABILPENA ETA BIRZIKLAPENA, S.L.

902 366 251

www.ecogras.es

www.facebook.com/ecogras

SENPERE

KULTURA → EUSKAL HERRIAN, FRANTZIAN ETA BELGIKAN AURKEZTUKO DU BERE LANA

Fabian Thomé senpertarrak 'Desde el sofá' aurkeztu du Miarritzeko Maitaldian

Dantzari profesionala Madrilen bizi da eta han sortu du bere konpainia

Franck DOLOSOR

Fabian Thomé Senpereko pilota eskolan aritu zen haurra zelarik, baina pilota plazak laster utzi zituen bere zaleztasuna dantza baita. Gazte gaztea zelarik Catalina Gomezek Donibane Lohizunen duen flamenko eskolan sartu zen. Han ikasi zituen bere lehen urratsak eta berehala zerbeit berezi sumatzen zitzaion taula gainerat hupatzen zelarik dohain handia eta alderdia baitzuen tiki tikitik.

Hemezortzi urtetan Ipar Euskal Herria utzi zuen eta Madrilgo kontserbatorioan sartu zen dantzan aritzeko zuen maila hobetzeko xedarekin. Hantxe ikasten aritu zen hiru urtez eta



Fabian Thomereren ikuskizuna.

geroztik bide egin du 30 urteko lapurtarrak. Bi urtez Joaquin Cortes kordobarraren konpainian aritu da eta geroago lehen dantzaria izan da Rafael Amargo granadarraren taldean. Joan den urtarrilean aspaldiko ametsa egia bihurtu zuen bere konpainia FT sortu baitzuen Espainiako hiriburuan. Talde honekin apailatu du *Desde el sofá* Espainiako ohiko dantza, flamenkoa, dantza modernoa eta antzerkia nahastu dituen ikusgarria.

Taula gainean besaulki bat dago eta ho-

DANTZA BERE BIZITZA
«Niretzat dantza dena da, nire bizia da, nire zaletasuna, hari esker jeikitzen naiz goizero»

Fabian THOMÉ
Senpereko dantzaria

ren inguruan ari da dantzan. Eguneroko biziko historia arruntak irudikatzen ditu. Maiatzean estrenatu zen ikusgarri hau Madrilen eta orain bidez bide dabil Fabian Thomé. Berriki, Miarritzeko Colisé aretoa bete zuen Maitaldia nazioarteko dantza festivalaren karietarat. Le-



ARGAZKIAK: STEPHANE BELLOCO

hen aldia da etxean dantzatzen zuela profesional gisa. «15 urte geroago profesional gisa itzuli naiz», dio pozik. TTIPI TAPARI adierazi dioenez «ohore handia» izan da Lapurdi kostaldean dantzatzea aspaldiko partez. Bertan egon ziren orain gutitan ikusten dituen bere familia, lagunak eta lehenagoko dantzari adiskideak. Colisé jendez mukurru bete izan zen nehoiz ez bezala. «Niretzat dantza dena da, nire bizia da, nire zaletasuna, hari esker jeikitzen naiz goizero».

Thomé biziki zorrotza da zuzentzen duen konpainiako kideekin baina oraino zorrotzagoa da bere buruarekin. Zorrotzasun horri esker eta milaka orenko lanarekin lortu du dantzatzeko molde paregabea. Taula gainean sorpresa bat baino gehiago eskaintzen du flamenkoa eta Léo Ferrerren frantseseko kantuak lotuz, berteak berte.

Orain herriz herri ibiliko da *Desde el sofá* aurkezteko Frantzia eta Belgikan barna eta baita Donostian eta Gasteizen ere.

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Buztan, Urdizubi eta Malarreka 31€
- Amerika eta Australia 123€
- Ipar Euskal Herria 55€
- Leitza 15€

(0034) 948 63 54 58 • www.ttipi.net



ARMUA JAITEKIA



RESTAURANT

RESTAURANT

CAFFÈ DE LA MAIRIE



AISIALDIA → ANIMALIAK, EKOIZLEAK ETA INGURUMENAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENAK

Animalien besta iraganen da larunbat eta igande honetan

Bi egunez hainbat animazio izanen dira

Joana GUERENDIAIN

Asteburu honetan, urriak 1 eta 2, animalien besta iraganen da Saran. Ateak 10:00etan irekiko dira eta 18:00etan hetsiko. Bi egunetan animazio andana proposatuak izanen dira baserriko, etxeko eta mendietako animaliak deskubritzeko, baina baita ingurumenarekin lotuak ere: ibilaldiak, mintzaldiak, demostrazioak...

Larunbat eguerdian zintzur bustitze bat izanen da besta irekitzeko: sagarno eta pintxo dastatze bat. Eskualdeko ekoizeek ere beraien produktuak eskainiko dituzte: euskal pastiza, sagarno, ardi gasna, ezti eta bertze ainitz.

Manifestazio osoan ostatu bat ere izanen da edari eta taloekin. Sartzea urriarik da.

Antifa festibala urriaren 8an

Urriaren 8an antifa festibala iraganen da. 17:00etan hasiko da eztabaida batekin eta ondotik, 20:00etatik landa, kontzertuak hasiko dira. Bortz talde izanen dira: The oppressed, Tommy Gum, Never Surrender, Skakeitan eta gaua bukatzeko Tortuga Sound.

Sartzeak aitzinetik erosten ahal dira 10 eu-

rotan Elkar-en (Baiona), Street Warrioren (Bilbo), Donostian, Kalaka ostatuan (Garazi) eta Kanttu ostatuan (Hendaia). Mementuan berean ere sartzeak erosten ahalko dira 12 eurotan.

Zazpiak Bat eta Integrazioa

Zazpiak Bat dantza elkarteak aurten ikasturro berri bat proposatuko du larunbat goizean, 11:00etatik eguer-

dira arte, ahalmen urriko haurrak eta beste haurrak nahasiz. Irakasleak Maylis Legassa, Vincent Garat eta Delp-hine Goyeneche izanen dira. Ikastaroak omiasaindu eta gero hasiko

dira eta 6 urte eta gehiagoko haurrentzat izanen dira. Helburua haur horiek beren gorputza deskubritzeko da eta bertze haurrekin harremanetan sartzea. Elkarrekin andana kontaktatu izan dira proiektu hori muntatzeko: Integrazio Batzordea, Chrysalide...

Uso besta

Joan den urtean bezala, Uso Besta antolatuko du aurten ere Turismo Bulegoak: usotegiaren bisita, pilota partida, dantzak, Andra Mari abesbatzaren kontzertua... Urriaren 16an izanen da, 10:30etik goiti. Bezperan, mintzaldia eta erakusketa izanen dira Jacques Luquetekin *Usoaren ihizia sareekin* izenburuarekin.

Xehetasunak hurrengo aldizkarian emanen ditugu.

Kantu afaria

Kantu afaria urriaren 8an iraganen da, Lur Berri gelan 20:00etatik landa.



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

150 lagun Sara Korrikan

Urtero bezala, Sara Korrikak bere bestetako lasterketa antolatuko du irailaren 10ean. Lasterketa honek besten hastapena markatzen du. Aurten 150 lasterkari bildu ziren eta hauen artean 27 emazte. Lasterketa Camacho Jerome azkaindarrak irabazi zuen, 10,4 kilometroko ibilaldia 40 minutu eta 16 segundotan eginez. Emazteetan Carty Marie-k *Plus vite contre la muco* elkartearekin egin zuen korrika, eta bera ailegatu zen lehena, itzulia 51 minutuz eginez. Izenematean lastekari bakoitzak 10 euro ordaindu zuen eta euro bat mukobisidiantzako ikerkuntzara joaten da.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kiroi Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umortzako arnas fisioterapia

Itzea 1, beheko • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colin Fas. 8 • atzea • Tel-Fax: 943 833050 • IRUN

MONTXO OSTATUVA

Dantzarinetik 2 km-tara

TAVAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • **VRDAZYBI**

Egutemendia 10.30etik 02.30era

EZKONTZAK

Daniel Gartzia Navarro eta **Elena Mateo Perrote**, Bartzelonakoa eta Zaragozakoa, irailaren 3an Lesakan.

Eneko Rojo Merino eta **Izaskun Rodriguez Maritxalar**, Irungoa eta Lesakakoa, irailaren 10ean Lesakan.

Angel Pablo Hidalgo Hidalgo eta **Miren Nekane Etxeberria Salaberria**, Lesakakoa eta Goizuetakoa, irailaren 10ean Lesakan.

Tomas Sanchez Sanchez eta **Miriam Sainz Zozaia**, Donostiakoa eta Iganztikoa, irailaren 12an Lesakan.

Iban Arburua Endara eta **Jaione Goia Arretxea**, Berakoa eta Lesakakoa, irailaren 17an Lesakan.

Juan Jose Etxebeste Malda eta **Marie-Helene Bernet**, irailaren 10ean Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Harriet Etxepeteleku Zabaleta, Arantzakoa, irailaren 16an.

Aner del Pozo Riopedre, Berakoa, irailaren 11n.

Eneko Urrosolo Elgorriaga, Lesakakoa, irailaren 2an.

Markel Otxoteko Mihura, Lesakakoa, irailaren 10ean.

Ainara Berrueta Perugorria, Etxalarakoa, irailaren 8an.

Intzara Gurrutxaga Olazabal, Aresokoa, abuztuaren 6an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

M^a Clara Iribarren Irigoien, Erratzukoa, irailaren 8an, 86 urte.

Sor Cecilia Izaga Otxoa, Donamarian, irailaren 7an, 79 urte.

Maritxu Santesteban Santesteban, Zubietakoa, irailaren 9an, 86 urte.

Juana Danboriena Etxabide, Etxalarakoa, irailaren 8an, 95 urte.

Julian Iribarren Etxeberria, Erratzukoa, irailaren 11n, 49 urte.

Juanita Alduntzin Kanflanka, Leitzaakoa, irailaren 11n, 85 urte.

Anunciacion Moreno Moro, Berakoa, irailaren 13an, 94 urte.

Maxima Arretxea Arretxea, Gartzaingoa, irailaren 16an, 101 urte.

Juan Zestau Labaien, Ezkurrakoa, irailaren 18an, 82 urte.

Pakita Agirre Iriarte, Sunbillakoa, irailaren 19an, 66 urte.

Alvaro Carbalho Salgado, Legasan, irailaren 19an, 55 urte.



Iñaki AIZKORBE SANZBERRO

Sunbillan, 2011ko urriaren 4an

I. URTEURRENA

*Ez da haundiagoa leku gehien
betetzen duena, hutsune
haundiena uxten duena baizik.*

ZURE FAMILIA

*Urak dakarrena, urak daroa
Rekordatorioak egiten ditugu*

tipi-Itapa Anduetzeta, 12 | 01760 ETXALAR | 948635458

HERRI KIROLAK → ZAZPI HERRIALDEEN TXAPELKETA

Puntu bakarragatik Gipuzkoa nagusi Herrialdeen Txapelketan

Lau kiroletan garaipena lortu du Nafarroako taldeak

TTIPI-TTAPA

Soilik puntu bateko aldeaz irabazi zion Gipuzkoak Nafarroa Garaia irailaren 10ean Legutión (Araba) jokatu den XXIII. Zazpi Herrialdeen Arto Txapelketan, baina Bizkaia ere txapelketa aipagarria egin zuen, eta hirurek hagitz lehia txalogarria eskaini zuten.

Hamar urte igaro dira Gipuzkoak txapela berreskuratu ahal izateko, azken zazpi urteotan, berteak berte, Nafarroa Garaia gailendu delako erabat.

GIPUZKOA ERREGULARRA

Gipuzkoa hiru kiroletan nagusitu zen: koxkor-biltzen, harri-jasotzen eta txinga-eramatzen. Azken bi kiroletan espero zen gipuzkoarren garaipena, Aimar Irigoienek eta Juanjoxe Agirregabiriak irabaztea pronostikoetan sartzen baitzen, baina Eneko Garmendiak lehen aldiz irabazi zion Fernando Etxegarai beratarari koxkorrekin. Gipuzkoak erregulartasun handia izan zuen. Hiru kirol horietako garaipenaz gain, ingude-jasotzen, orga jokoan, aizkoran eta sokatiran lortu baitzuten gipuzkoarrek bigarren sailkatzea. Hirugarren postua, berriz, lasto-jasotzen, zaku-eramate lasterketan eta arpanean lortu zuten.



ARGAZKIAK: KOLDO ALDUNTZIN

Joakin Aioraak zazpi puntuak eman zizkion Nafarroako taldeari, ingudearekin irabazita. Fernando Etxegarai, Mielanjel Sukuntzak eta Iñaki Bereauk bigarren postua eskuratu zuten.

Nafarroako taldeari dagokionez, lau kiroletan lortu zuen garaipena: Joakin Aiora iturriak, Mielanjel Sukuntza leizarrak eta lasto altxatzen Iñaki Bereau igantziarra bezala. Sokatiran hirugarren izan zen Amaier. Hemen, uste-

Koxkor-biltzen Fernando Etxegarai beratarra bigarren izan zen, txinga eramatzen Mielanjel Sukuntza leizarrak eta lasto altxatzen Iñaki Bereau igantziarra bezala. Sokatiran hirugarren izan zen Amaier. Hemen, uste-

kabeen Lapurdik eraman zituen zazpi puntuak. Harri jasotzen ere hirugarren izan zen Joasetxo Urrutia leizarrak. Azkenik, orga jokoan Simon Thomas Callaghan aritu zen Nafarroa ordezkatzeko eta bosgarren sailkatu zen.

HERRI KIROLAK

Nafarroako Emakumeen Arpana Txapelketa jokatu da larunbatean Igantzin

TTIPI-TTAPA

Bi bikote ariko dira nor baino nor larunbat honetan, urriak 1, Igantzin, orduan jokatuko baita Nafarroako Emakumezkoen Arpana Txapelketa. Alde batetik, Nerea Sorondo eta Amaia Gartzia beratarak ariko dira eta Ana Lopez eta Itziar Nuñez lezaundarrak bertzetik. Saioa 18:00etatik aitzinera jokatu da frontoian eta bikote bakoitzak etzanda paratutako 45 ontzako enborrari 10 epai eman behariko dizkio.

ERAKUSTALDIAK

Aipatu, bertalde, txapelketa honekin batera proba konbinatu erakustaldia eskainiko dutela Bera eta Igantzioko herri kirol taldeek Igantzin, San Migel besten barne, eta harrijasotze erakustaldia ere izanen da ikusgai, Iñaki eta Inaxio Perurena aita-semeen eskutik.

SAILKAPENA

1	Gipuzkoa	60 p.
2	Nafarroa	59 p.
3	Bizkaia	53 p.
4	Araba	35 p.
5	Lapurdi	34 p.
6	N. Beherea	20 p.

Betidanik ongi moldatu izan da Alberto Barberena lasterka. Baina 27 urterekin afizio bihurtu eta duela hiruzpalau urte «serioago» laster egiten hasi zen. Berako Manttale Mendi

Lasterketa Taldea izan zen bere lehendabiziko taldea. Duela bi urte, berriz, Baztango Lasterketa Taldea sortzeko proposamena atera zenean, horretan ahalegindu zen. Gaur

egun, 40 bat lagunek osatzen dute Baztango Lasterketa Taldea. Gehienak 30 urtetik goitikoak badira ere, noizbait haurrentzako eskola bat sortzea gustatuko litzaioke.

Alberto BARBERENA | Elizondoko korrikalaria

«Dena ez da futbola, eskubaloia eta pilota, bertze kirolak ere badira»

G. PIKABEA | ELIZONDO

24 urte bitarte, futbola izan zuen Alberto Barberenak (Elizondo, 1978) kirolik gustukoena eta Baztan eta Iruñeko Oberena futbol taldeetan ibili zen. Gero, ordea, uztea erabaki zuen eta urte pare batez atsedean hartzea. 27 urterekin, lasterka hasi zen eta geroztik horixe maite du. «Duela hiruzpalau urte serioago hasi nintzen», azaldu digu. Halere, aitortu digunez, «betidanik gustatu izan zait lasterka ibiltzea. Ttikitan, Baztan Ikastolak antolatutako lasterketetan ibiltzen nintzen eta ongi moldatzen nintzen».

Bi kirolek «aunitz» eman omen diote: «futbolak lagun aunitz eman dizkit, koadrillan aritzeko aukera ematen baitu. Baina futbolarik lesioak izateko arrisku handiagoa du, laster egiteak ez daukana. Lasterka norbere kabuz ibiltzen da gehiago».

Errepidea eta mendia. Biak probatu ditu eta biak gustatzen zaizkio. Dena den, «konpetitzeko nahia go dut errepidea eta mendia nire kaxa ibiltzeko». Errepidean «hobeki» moldatzen dela ere erran digu: «altuagoak garenoi malda goiti gehiago kostatzen zaigu».

Astean hiruzpalau egunez entrenatu ohi du, nahiz eta batzuetan gehiago ere egin. «Ordubete inguruko buelta egiten



UTZITAKO ARGAZKIA

Alberto Barberena 27 urterekin hasi zen lasterka, lehenagotik futbolean ibili ondotik.

dut, edo ahal dena. Normalean Bertzen, Lekarozen edo Iruñean ibiltzen naiz, tarte bat dudanean lanetik aterata». Rafa Maritxalarek prestatzen dizkio entrenamenduak.

Iruñean egiten du lan, eta entrenamenduak lanarekin bateratzea ez zaiola erraza egiten aitortu digu: «lana, entrenamenduak, haurrak... *Tetrix* antzeko zerbait egin behar da». Baina gustuko tokian maldarikez. Eta orain, bere burua sasoiaren ikusten duela, aprobetxatu egin nahi du: «nahiko berandu hasi nintzen lasterka eta urtero hobetzen ari naiz». Zer hobe-

DENA EGITEA ZAILA
«Zaila da dena bateratzea. Lana, entrenamenduak, bi haurrak... *Tetrix* antzeko zerbait egin behar da guztia bateratzeko».

KORRIKARAKO GONBITEA
«Orain arte laster egiteko nahiko afizio guti izan da Baztanen eta Baztango Lasterketa Taldea gazte eta helduei korrikarako motibazioa pizteko sortu genuen».

tua baduelakoan dago: «beti hobetzen ahal da. Nik mendian maldagoiti ibiltzeko hobetu behar dut», dio. Baina badu nabarmentzeko ezaugarrikerik ere, eta hori «zankada luzea» da bere irudiko: «1,80 metro neurtzen ditut eta zankada luzea dut. Horrek abiadura ematen dit eta azken kilometrotan nahiko azkarra naiz».

Berako Manttale Taldea izan zen bere lehendabiziko lasterketa taldea: «ordura arte nire kabuz ibiltzen nintzen eta Manttalekoek beraiekin hasi nahi nuen galdetu zidaten. Arrasjendejatorra aurkitu nuen eta gustura

ibili nintzen. Oraindik ere batzuetan beraiekin gelditzen naiz laster egiteko». 2009 hondarrean, ordea, Baztango Lasterketa Taldea sortzeko ideia atera zen, eta horretan sartu zen burubelari. «Manttale mendia lasterketetan ibiltzen da eta ni horietan ibiltzen ez naizenez, eta Baztango taldearen antolakuntzan sartu nintzenez, Manttale utzi egin nuen Baztango taldea aurrerateratzeko». Horren ondorio, gaur egun, 40 bat lagun dira taldean. 2009an eta 2010ean San Silvestre lasterketa eta iaz eta aurten Elizondoko bestetan krosa izan dira Baztango Taldeak antolatutako probak eta badute errepikatze asmoo.

Etzetik kanpoko krosetan ere parte hartu izan dute eta orain, Behobia-Donostia dute jomuga. Barberenak, adibidez, ordubete eta zortzi minututan akitu zuen gan den urtean eta «ea aurten hortik jausten naizen», adierazi digu. Lehenagotik, Orreaga-Zubiri proba egiten du. Lasterketa horietarako prestatzen ari dela, jendeari korrika hasteko gonbitea luzatu dio: «orain arte nahiko afizio guti izan da Baztanen eta lasterketa taldea gazte eta helduei motibazioa pizteko sortu genuen. Baztanen dena ez da futbola, eskubaloia eta pilota, bertze kirolak ere badira».

AIZKORA → NAFARROAKO MAILA NAGUSIKO TXAPELKETA

Nafarroako finalerako aizkolariak igandean erabakiko dira Etxarri Aranatzen

Larretxea attasemeak, Erasun, Rekondo eta Saralegi ariko dira lanean bertze bortz aizkolariarekin batera

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Maila Nagusiko Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu da igande honetan, urriak 2, Etxarri Aranatzen. 13:00etatik aitzinera hamar aizkolari indarrak neurtuko dituzte eta finalerako txartela izanen dute jokoan. Izan ere, lehendabiziko sailkatzen di-

ren bortz aizkolariak azaroaren 18an Donezteben jokatu den finalerako txartela eskuratuko dute. Azken bi sailkatuek, berriz, maila galduko dute.

Hamar aizkolari hauek lehiatuko dira: Floren Nazabal (Etxarri Aranatz), Juan Jose Lopez (Lezaun), Antonio Senosiain (Olague), Aitor Senosiain (Olague), Donato Larretxea (Arantza), Oihan Larretxea (Bera), Manolo Kañamares (Arostegi), Ander Erasun (Aurtitz), Jon Rekondo (Leitza) eta Ruben Saralegi (Leitza).

Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko, 60 ontzako bi enbor eta oinbiko bat ebaki beharko ditu.



Oihan Larretxeak maila galdu du Euskal Herrikoan

Euskal Herriko aizkolari txapelketa nagusiko finaletik kanpo gelditu da Oihan Larretxea beratarra eta horrekin batera, maila ere galdu du. Irailaren 18an Arbizun egindako kanporaketan erabaki zen Euskal Herriko aizkolari txapelketa nagusiko finalerako seikotea. Nabalak egin zuen denborarik onena, eta berarekin batera, Lopez, Azurmendi, Olasagasti, Atutxa eta Txapartegi sailkatu dira azaroaren 6an Elizondon jokatu den finalerako. Arbizuko kanporaketan izan zen eskualdeko aizkolari bakarrak, Oihan Larretxeak, maila bat beherago jokatu du hurrengo denboraldian.

AIZKORA → IRAILAREN 11N LEITZAN

Eneko Saralegik irabazi du Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa

Minutu bat eta 23 segundoko aldea atera dio Eneko Otañori

TTIPI-TTAPA

Talo Egunaren barne, irailaren 11n jokatu zen Leitza Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa eta bortz aiz-

kolari aritu ziren nor baino nor. Guztien artean herriko semea den Eneko Saralegi nagusitu zen (18 urte). 45 ontzako lau enbor eta bi kanaerdiko moztu behar izan zituzten aizkolariak eta Saralegik 15 minutu behar izan zituen lanak bukatzeko (15:00.64). Proba guztietan gailendu zen leitzarra.



Aizkolari gazteak irailaren 11n aritu ziren lehiaketa Leitza.

ARGAZKIA: PABLO FEO

Eneko Otaño beizamarra (Gipuzkoa, 17 urte) gelditu zen bigarren 16:23.59ko denbora egin ondotik eta Eloy Corchero araiarrak (Araña, 18 urte) osatu zuen podiuma (17:21.62).

Laugarren postua ere Leitza gelditu zen: Julien Olano 17 urteko gaztea izan zen laugarren sailkatua, 21:43.66ko denbora eginez. Bosgarren postua ere eskualdeko aizkolariaren-

tzat izan zen, bortz aizkolarien artean gazteenarentzat, hain zuzen: Joxean Etxeberria zigarrak 15 urte bertzerik ez ditu eta 24:48.08ko denbora eginez bukatu zituen lanak.

irailak 30 - urriak 13

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



GOIZUETA | 2011.10.01

Kizki Egunean erronkaz gain, giro bikaina espero da

Astigarragan eta Oiartzunen bildutako kizki kopurua gainditzearen aitzakiarekin, besta giro ederra izanen da egun osoan, hainbat ekitaldirekin.

Ospakizunak



ELGORRIAGA | 2011.10.01-02

Onddo eta Zizen Kofradiaren besta handia asteburuan

Hemezortzigarren urtez Onddo eta Zizen Kofradiaren eguna izanen da igandean, kofrade berrien izendapenarekin. Larunbatean kaxuela lehiaketa eginen da.

Ospakizunak



ORONOZ-MUGAIRI | 2011.10.02

Herrietako eskola ttikien besta

Gure eskola publikoa, euskalduna eta herrikoa aldarrikatuz elkartuko dira igandean Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango eskola ttikiak.

BEINTZA-LABAIEN

Urriruko besta

Urriaren 8an antolatu du Ittur-Ondo elkarteak. Urteroko ospakizunekin batera, savel-dantza ere izanen da. Beintzako Ostatuak 22. urteurrena ere ospatuko du, talo dastaketa, haur jokoak... Xehetasunak 34. orrian.

ORONOZ-MUGAIRI

Herrietako eskolen besta

Urriaren 2an ospatuko da Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango eskola ttikien elkarrataratze besta. Xehetasunak 42. orrian.

SARA

Kantu afaria

Urriaren 8an iraganen da Lur Berri gelan, 20:00etatik landa.

ZUBIETA

Euskararen Eguna

Urriaren 7an eta 8an hainbat ekitaldi antolatu dituzte gazteek. Xehetasunak 32. orrian.

LEITZA

Aurrera elkartearen Eguna

Urriaren 1ean urteko pesta handia antolatu du Aurrerak: pilota, futbola, dantzak, musika, herri bazkaria... Xehetasunak 40. orrian.

Azokak

SARA

Animalien besta

Urriaren 1 eta 2an animalien besta, 10:00etatik 18:00etara. Xehetasunak 49. orrian.

Jardunaldiak

ELIZONDO

Bidelagun jardunaldiak

Urriaren 7an Bertzeen larruan jartzen izenbu-

Erakusketak

ELIZONDO

Baztan-Bidasoaldeko Anfas elkartearen 50. urteurrena

Irailaren 19tik 30era

50. urteurreneko erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean.

SENPERE

Mariemi Otaolaren lanak Larraldean

Irailaren 3tik urriaren 1era.

Artista bilbotarraren eskulturak ikusgai Larraldean.

Bestak

GARTZAIN

Pilarika bestak

Urriaren 11tik 15era.

Xehetasunak 43. orrian.

ANIZ

Arrosarioko

Amabirjinaren bestak

Urriaren 2tik 5era.

Xehetasunak 550. alean.

IGANTZI

San Migel bestak

Irailaren 28tik

urriaren 2ra.

Xehetasunak 550. alean.

URROZ

San Migel bestak

Irailaren 28tik

urriaren 2ra.

Xehetasunak 550. alean.

ERRATZU

Errebestak

Urriaren 8an.

Xehetasunak 45. orrian.

Kontzertuak

SARA

Antifa festibala

Urriaren 8an iraganen

da. 17:00etan eztabaida eta 20:00etan hasita The oppressed, Tommy gum, Never Surrender, Skakeitan eta Tortuga Sound.

ZUBIETA

Rock eta ska Euskararen Egunean

Urriaren 8an Matxinbrada eta Escandalo Público taldeekin kontzertua izanen da 23:00etan hasita. Gauerditik aitzinera dantzaldia Saguxar taldearekin.

Ospakizunak

GOIZUETA

Kizki Eguna

Urriaren 1ean eginen da. Azoka, Kizki Erronka, dantza, musika, bazkaria, herri kirolak... Xehetasunak 39. orrian.

ELGORRIAGA

Onddo eta Zizen Kofradiaren Eguna

Urriaren 1 eta 2an Nafarroako Kofradiaren Eguna ospatuko da. Xehetasunak 31. orrian.

PROPOSAMENA

BEINTZA-LABAIEN

Urriruko besta antolatu du Ittur-Ondo elkarteak

Azken urteotako ohiturari eutsiz, goizaldetik sutan erretzen jarritako aretzea afaltzeaz gain, bertez hainbat ekitaldi izanen dituzte aurten urriruko bestan: joaldunak, aizkolariak, zozketa, Iruñeko Adasha taldearen eskutik sabeldantza, dantzaldia... Beintzako Ostatuak ere 22. urteurrena ospatuko du egun horretan, talo dastaketa eta haur jolasekin.



rupean formazio taillerak antolatu ditu Bidelagun elkarteak Arizkunenean. Xehetasunak 42. orrian.

Hitzaldiak

ZUBIETA

Bi kantu, hainbat histori

Urriaren 7an *Iturengo Arotza eta Berdabioren bertsoak* kantuetan oinarrituta mintzaldia eskainiko dute Patziku Perurena idazleak eta Andres Iñigo euskaltzainak 20:30ean estalpean.

BERA

Kirmen Uriberekin solasean

Urriaren 7an *Poema berriak eta zenbait zahar* eskainiko ditu Kirmen Uribe idazleak 19:00etan liburutegian.

Bertsoak

ZUBIETA

Berto bazkaria Euskararen Egunean

Urriaren 7an Julio Soto eta Julen Zelaietarekin. Txartelak urriaren 2ra arte salgai.

Lehiaketak

BAZTAN-BIDASOA

Boluntariora eta elkartasunaz bideoak

Azaroaren 11n akituko da Bidelagun elkarteak *Bertzeen larruan jarri* izenburupean antolatutako bideo lehiaketa.

LESAKA

Beti Gazte elkartearen argazki lehiaketa

Urriaren 31n Beti Gazte elkarteak antolatutako argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Klima gogorretako animaliak

NATHALIE TORDJMAN

Ttartalo, 2011

Klima gogorretako animaliak izotz-hormako eremu izoztuetan, basamortuetako hondar berotetan, mendietako gailur garaietan, Tropikoetako sabana, baso eta ozeanoetan eta ozeano zabalean bizi dira. Deskubritu muturreko klima dagoen eskualdeetan bizi diren animalien mundu harrigarria, 500 argazki inguru, lau tolesgarri, errekorrak eta informazio harrigarri ugari duen liburu eder honetan. Bukaeran, animalia hauen inguruko bitxikeriak ere topa daitezke. Erraterako, ba al zenekien izurdea denbora luzean egon daitekeela arnasa hartu gabe bere globulu gorriei esker? Globulu gorri aunitz ditu, handiak gainera, eta oxigeno aunitz gorde dezakete. Nathalie Tordjman-ek idatzi ditu testuak, Anne-Laure Fournierrek egin ditu ilustrazioak eta Bakun Itzulpen Zerbitzuak egin du euskararatzea. 9 urtetik goitiko neska-mutikoei zuzendutako liburua argitara eman du Tartalok, Animalien Mundua bildumaren baitan.

Musika




Lehertarazi edifizioak

NAPOKA IRIA

Bonberenea Ekintzak, 2011

Jendaurrean grabatutako lan berria karrikan du azkenean Napoka Iriak. 2005eko izen bereko maketa eta 2008ko hiru kantuz osatutako bigarren maketaz geroztik ateratako kantu bilduma da *Lehertarazi Edifizioak* (Bonberenea, 2011). Urtarrileko asteburu batean, grabaketa estudioa Bergarako Zabalotegira egokitu, atea publikoari zabaldu eta bi kontzertu eman zituzten kantu zahar, berri eta hainbat bertso eskainiz. Horieta hamar piezek osatzen dute bilduma, gitarra elektriko bat, akustiko bat eta ahotsen ohiko dantzekin. Grabazioan bertako bi inprobisazio eta ukelelea eta kalimbaz jotako kantu ezagun baten bertso bitxi bat ere sartu dute. Bi egunetako emanaldiak oso-osorik grabatu eta gero, Legarreko estudioetik pasatu dira, aukeraketa egin eta lehen maketarekin egin bezala, Ander Barriusoren eskuetan txukuntzeko. Ander Mujikak bere gain hartu du diseinua.

Internet



Auzolan topaketak asteburu honetan

WWW.AUZOLAN.INFO

Irailaren 30ean eta urriaren 1 eta 2an lehenengo Auzolan topaketak egingen dira Usurbilen (Gipuzkoa), elkar topatu, ezagutu eta sarean elkarlanean hasi, ekimen autogestionatu eta horizontalak garatzeko, gizarte eraldaketa bat burutzeko bidean. Auzolan ekimenaren helburua Euskal Herriko udalerrietan auzolan taldeak eta proiektuak abian jartzeko koordinazio eta lankidetzara foro bat sortzea da eta esparru horretan zenbait proiektu sustatzen dira: ekoizpen eta kontsumo ekologikoko kooperatibak, trukea, buruaskitasun energetikoa lortu nahi duten energia-kooperatibak, etxebizitza, hondakinak, hezkuntza, osasuna eta kultura-proiektuak. Auzolan ekimenetik, proiektu honen justifikazioa egungo krisi globala dela uste dute eta «proiektua Euskal Herriko kulturari, lanari eta historiari estuki lotuta sortu da».

Nire aukera



Mikel ZABALETA
Leitzako Peritza tabernakoa

«Asia aldea ezagutzea falta zait, Txina, India eta Mongolia»

Tabernari lana lotua dela jakina da, baina Zabaletak «astegunez eta ahal denean astebururen bat libratuz» bere denbora hartzen duela aipatu digu. Orduan, mendira joatea gustatzen zaio, «batez ere Leitza eta Arantza aldean». Lehenago Pirinio aldera ere joaten zen, baina orain ez, «orain neguan eskiatzera joaten naiz Alpeetara astebetetz». Eguraldiaren eta garaiaren arabera, «hondartzara edo zinerara joatea ere gustatzen zait» aipatu digu. Eta noski, tabernaria izanik ere, «barran beste aldean egotea» gustatzen zaio, baita «lagunekin bazkaldu edo afaldu, musean aritu, pasiatu...» ere. Orain gutxiago mugitzen bada ere, garai batean asko bidaiatu duela aipatu digu Peritzak eta «urtebetetz Ertamerikan, gehienbat Guatemalan kooperatzen, Mexikon eta Hondurasen egondakoa» gorde du gogoan. Australia eta Zeelanda Berria ere ezagutu nahi lituzke, baita «sin falta, Asia aldea; India, Txina eta Mongolia».

ETXEBIZITZAK

salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

LESKA. Etxebizitza bifamiliarra salgai, prezio onean. ☎609 477277.

**ANZABAL**
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Itzea karrikan 100 m²ko pisua salgai. Oso egoera onean. Komuna eta sukaldia berrituak ditu, balkoia ere haunditua eta igogailuarekin. ☎948 580929 / 637 466110.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

ETXALAR. Herriguneari etxea errentan emateko. Baratzegatik egiteko moduan eta lorategia re badu. ☎948 635142.

ELGORRIAGA. Mobleztatutako pisua errentan emateko. Sukaldia, 3 logela, bainugela eta trastelekuak. ☎629 734263 (deitu 18:30etik aitzinera).

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

BERA. Etxebizitza errentan hartu nahi da. ☎676 691440.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

BERA. Nabea salgai Bidasoa 76an kokatua eta 19. zenbakiaren ondoan. Agerra auzoaren ondoan. ☎639 110864.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan emateko

DONEZTEBE. 200 m²ko garajea errentan emateko. Ura eta argiarekin. ☎608 978210.

LESKA. 47m²ko behe solairua errentan emateko. Komuna eta sukaldia baditu. ☎667 605233.

LESKA. Plaza Berria karrikan, etxabe edo baje-

ra errentan emateko. Bulegorako prestatua, bertze edozein lanerako moldatu erraza. Behar baduzu... diruagatik konponduko gara. ☎948 630287 / 619 530386.

**LANA**

eskaintzak

SARA. Jatetxe batean zerbitzari euskalduna eta esperientziaduna behar da asteburuetan lan egiteko. ☎(0033) 559 542131/ 686 561525.

LARRAUN, LEKUNBERRI ETA ARAITZ-BETELUn kirol ekintzetarako

monitorea behar da aerobic, pilates, gimnasia... egiteko. Irailean hasteko, euskalduna. ☎948 604545 / 649 205310.

ZUGARRAMURDI. Ansalas ostatuan lan egiteko neska bat behar da. Euskara eta frantsesa dakizkienak. ☎948 599082.

Jatetxe batean **sukaldaria** behar da, esperientziaduna. ☎686 561525.

URDAZUBI. Jatetxe batean pertsona bat behar da fregaderan eta jantokian lan egiteko, igandetan. ☎948 599222.

BERA. Kamarera behar da jatetxe batean eguneroko lan egiteko. ☎607 827309.

LANA

eskariak

Emakume bat adinekoak zaintzen edo bertze

edozein lanetan ariko litzateke. Asteburuetan lanetan aritzeko prest dago. ☎671 122776.

Emakume bat interna moduan ariko litzateke adineko jendea zaintzeko. ☎692 715608.

27 urte mutil baztandar bat edozein lanetan aritzeko prest dago. ☎678 040846.

LEITZALDEAN, goizez neska gazte bat edozein lanetan ariko litzateke: haurrak zaintzen, garbiketa lanetan, dendetan... ☎616 619542.

Igeltsero laguntzaile gisa lan egiten nuke. ☎687 333242.

MOTORRA

salerosketak

Derby cross city motorra salgai. 125 c.c. 2009ko urrikoa. 11.000 kilometro. Etxearen garrantia urria bitarte. Transmisio kit berria, tubo eskape berria eta gurpilak erdiberriak. Prezioa: 1.400 euro. ☎653 087191.



2002ko **Yamaha Banshe** motorra salgai. Hagitz egoera onean. ☎655 709553.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (irailaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 24,00 € (=)

Zerri gizena
1,223 € kiloak. (=)

Zerramak:
0,420€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,22 (+0,03)

1.koa 3,92 (+0,03)

2.koa 3,68 (+0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,30 (+0,03)

1.koa 4,02 (+0,03)

2.koa 3,90 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)
idixkoak 200,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,88/2,98
Zaldi-behorrak: 1,78/1,98
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,40/9,10
8-10 kilokoak: 7,00/7,30

Fiat Bravo JTD Sport salgai. 2001eko. 143.000 kilometroekin. Egoera onean. ☎679 759066.




Nissan Terrano II 2.7 TD Intercooler salgai. 2003koa. 190.000 KM. Kaja, enbragea eta frenoak aldatu berriak. Egoera onean. 7.000 euro (hitz egiteko prest). ☎659 098781



Opel Astra 1.6 16v 105 zaldikoa salgai, 2007. urtekoa, 76.000 kilometroekin. Hagitz egoera onean. ☎646 221837.



Toyota Runner 3.0 salgai, Egoera oso onean dago, silentblok berriak, muelle eta amoriguazioa altxatua, bi kubiarta joko, kolore berdea, tinta-tua. 174.000 kilometro. ☎653 709496.



Audi A3 salgai. 130 CV, S3 llantekin. Alcantara larua. Korrea aldatu berria. 220.000 kilometro. ☎667 605233.

Suzuki vitara 5 atekoa salgai. Aire gokitua, en-

gantxea, korrea aldatu berria, 2003 bukaerakoa, 84.000 kilometro. Konfiantzako. ☎670 251632.



Beta RRT x-series motorra salgai. 50c.c. 2006. urtekoa. 5.000 kilometro ingururekin. Oso egoera onean, mendian gutxi erabilia eta bi gurpil berriekin, pastilla berriak eta reten berriak. ITV duela hilabete batzuk pasatua. Prezioa: 1.200 euro negoziagarriak. ☎680 483927.



ANIMALIAK
salgai

Oilagar ehizerako setter-ingeles arrazako **zakurkumeak** salgai. Atta eta ama ehiztari onak. ☎662 594838/948 630238.

6 urteko **poni** bikotea salgai, hagitz politak, 5 hilabete kume arrarekin. ☎666 727889.



DENETARIK
galdu/aurkituak

GOIZUETA. Etxeko giltzak aurkitu dira. ☎948 514006.

DENETARIK
salerosketak

Estreintatu gabe dauden **3 logela eta egongela** salgai. ☎669 185858.

Fundiozko **beheko sua** salgai (Seguin Hexa 8 markakoa), 16 Kw-koa, atea alde batera eta gorra irekitzen dena, 65 cm-ko egurrak sartzen dira. Neurriak zabal-sakon-luze: 82-62-130 cm. Prezioa: 700 euro. ☎669 427571.



SUNBILLA. Su egurra

SANTESTEBAN Tailerrak

60000 ELEBERRI 1000 1.3 16V 75CV Ez lantzerako gabe	60000 SCENIC II 1300 Ez lantzerako gabe	60000 LAGUNA II 1300 Ez lantzerako gabe
SCENIC II EXPRESSION 1.9 16V 120 CV 2007 urtekoa - E.A. 2006	ETA GAINERA Magna Grand Tour 1.8 16V 105 CV Kangoo 1.8 16V 105 CV Kangoo Box 1.8 16V 105 CV Scalix Wagon 1.8 16V 105 CV Magna II Business 1.8 16V 105 CV	

DONEZTEBEN RENAULT-en KOTZE JA BERRITAN SEKULAKO EKIZANTZAK

salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

Sukalde ekonomiko salgai. Egoera onean. ☎660 081754.

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

PUNPALAPLAN
Etxean euskaraz jostetan aritzeko
GURASOENTZAKO IKASTAROA

Urriak 4, 11 eta 18 lastearteak!
Arratsaldeko 4:30etik 6:30 arte
Berako Udalaren Mukixu Hour Eskolan

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
www.bortzirietak.org

Zer ikasteko dugu!

- Etxean haurrekin aritzeko euskal jolasak, tradizionalak eta berriak.
- Izen ematen duten guztiak jolasen buruzko materiala ematen zaie epari.

Haurrak nirekin!

- Ikastetxera haurrekin josten ahal da.
- Lehenbiziko bi saioetan haurrak begiraleekin egonen dira, gurasoek ikastetxean diren bitartean.
- Azkeneko saioan gurasoek eta haurrak alkarrekin aritzeko dira.

Nork hartzen du ahal du parte!

- Gurasoek lehentasuna izanen dute, eta berriak Euskaraz ikasten ari diren gurasoek.
- Euskaraz ulertu baina ezinezko zaitzatenak dituzten gurasoek.
- Haurrak zaintzen aritzen diren aitak/amaek.
- Hezitzaile, begirale eta zaintzaileak.
- Haur Hezkuntzako irakasleak.

Nork ematen du ikastetxerik!

- Urtzintza Eskolako teknikariak.
- Urtzintza Eskolako hainetako ikastetxerak ematen esperientzia handia du.
- Bai hainean inguruzko material ugari argintatu du.
- Informazio gehiago: www.urtzintza.org

IZEN EMATEA

Bortzirietako Euskara Mankomunitatean, bi modutara:
Telefonoz: 948 634 125 - E-postaz: euskara@bortzirietak.org
Epea: urriak 3 - Matrikula: 15€
Ordainketa ikastetxera hasi baino lehen eginen da, bi kontu hauetako batera transferentzia eginda:
Euskarako Kutxa: 3035 0135 91 1350013416
Nafarroako Kutxa: 2054 0190 33 1100000029

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



EKAITZ GOMEZ ARIZTIMUNO leizarrak urtea egin du irailaren 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



MAIKEL IRIARTE ELIZALDEK urteak bete ditu irailaren 10ean. Zorionak Doneztebeko atautxi-amaxien partetik. 18 muxu.



AIORA APEZTEXEA ETXEBERRIA goizuetarak 7 urte bete ditu irailaren 24an. Zorionak polita! Besarkada eta muxu bat Xanet, atta eta amaren partetik.



Goizuetako **JOSU ALSUA YARZA** gure gizontxoak urtea egingo du irailaren 5ean. Zorionak Josu!



KEMEN ANSALAS ARBURUA etxalartarrak 6 urte bete ditu irailaren 12an. Zorionak eta muxu erraldoi bat familia guziaren partetik.



Etxalarko **KEMEN ARBURUA ANSALASEK** 6 urte bete ditu irailaren 12an. Zorionak Kamen! Ongi pasa eta berendu goxo-goxoa prestatu. Zure arreba Nahiaren partetik.




Etxalarko **OIER AGINAGALDE IPARRAGIRREK** 2 urte beteko ditu irailaren 26an. Muxu haundi bat atta, ama, Aimar, Enaitz eta amatxiren partetik.



Leitzako **INHAR ALTADILL LAZKANOK** 4 urte bete ditu irailaren 11n eta **ARITZ ALTADILL LAZKANOK** anaia urte 1 beteko du irailaren 29an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



EKHI ROJO RODRIGUEZ lesakarrak 2 urte bete ditu irailaren 19an. Zorionak Ekhi, zure bigarren urtebetetzean! Milaka muxu Maddalenen partetik



Aunitz urtez pottola! Hagitz ongi pasa zure eguna Brasil aldean. Guk putzuaren bertez aldetik tragoxka bat hartuko dugu zure omezez. Kaxkarrak.



SONIA, MARIBEL eta AITZIBER urriuko gure hiru neskatxek urteak beteko dituzte urriaren 1ean, 19an eta 21ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat kuadrilla guziaren partetik, baita Oier, Enea, Ainere eta Alaitzen partetik ere.



SONIA, MARIBEL eta AITZIBER urriuko gure hiru neskatxek urteak beteko dituzte urriaren 1ean, 19an eta 21ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat kuadrilla guziaren partetik, baita Oier, Enea, Ainere eta Alaitzen partetik ere.



SONIA, MARIBEL eta AITZIBER urriuko gure hiru neskatxek urteak beteko dituzte urriaren 1ean, 19an eta 21ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat kuadrilla guziaren partetik, baita Oier, Enea, Ainere eta Alaitzen partetik ere.



EKAITZ IRAZOKI MENDIZABAL Nere ataxi Juanitok irailaren 19an urteak bete ditu eta nik abuztuaren 19an urtea bete nuen. Entsalada on batekin ospatuko dugu, bale ataxi? Muxu eta besarkada bat.



Zorionak gure etxeko bi printzei, **ENERITZ eta IRAIDE** arantzari. Bi muxu haundi, eta berdintia Aniri ere.




Aunitz urtez **LITTLE!** Muxuak eta besarkada haundi bat Zurizatik. Euskal preso eta inehsariak etxera!




Zorionak Aizoaingo **JANIRE REMIREZ PERURENARI**, irailaren 29an 7 urte beteko dituelako. Iturengo amatxi, osaba-izebak eta Naroa eta Unax lehengusuen partetik muxu pila. A, eta guraso eta ahizpa irailaren partetik besarkada haundi haundi bat printzesa. Egun ona pasa!




ARANTXA TOLOSA eta OIER GASTESI tolosarrek irailaren 22an eta 27an 6 eta 36 urte egin dituzte. Zorionak familia guziaren partetik eta bereziki Leitzatik izeba Marijosek muxu potolo bat.



Aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat neska polit honentzat! Kaxkarrak.



Donamariako **XUBAN ERBITI BALEZTENAK** 6 urte bete ditu irailaren 25ean. Zorionak familia guziaren partetik. Merendu goxo prestatu. Ondoren bizikleta hartu eta saltoetara joan gara...



Gazteluko **ENERITZ LAZKANOK** Sanzek urtea beteko du urriaren 7an. Zorionak pottola! Lehengusuk, Leitzako familia eta bereziki atta eta ama.




Olaiztik **KIARA AGUDO SANZEK** 7 urte beteko ditu urriaren 8an. Zorionak! Anaia Enaitz, lehengusuk eta Leitzako familia. Muxux bihuri.



Sunbillako **KARMENTXU ANZIZAR IBARRAK** urteak bete ditu irailaren 18an. Aunitz urtez familia guziaren partetik eta bereziki Bittori, Garaine eta Iraideren partetik. Eskerrik asko denagatik. Muxuak.




ENAITZ PORTU ZELAIETA sunbildarrak 7 urte bete ditu irailaren 23an. Zorionak pottoko! Besarkada haundi bat familia guziaren partetik, eta bereziki atta, ama eta Nahiaren partetik. Aupa Reala!



Bulegoko gazteena ere zahartzen ari zaigula! Aunitz urtez lankideen partetik!



Sunbillako **MAIALEN ARRETXEAK OTXANDORENAK** urriaren 11n 5 urte beteko ditu. Zorionak eta bortz muxu potolo familiaren partetik eta bereziki Iradiren partetik.



Berako publizista donamariarriak urteak beteko ditu urriaren 24an. Aunitz urtez lankideen partetik.

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa
www.ttipi.net en

argazki soila 4 EURO
argazki bikoitza 8 EURO



TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

350. ALEKO IRABAZLEAK

* ARRATE ESTETIKA ZENTRIBO TRATAMENTUA

Beguria GALARREGI UORTARI | ELUZHINDU

* ELKAR 2 LIBURU

ROK jolabida du | Die NINE LETEA NIBEO | MARIYIZ

Motimor argitaletxea | M Sol ZIBIETA OT XITERO | LIZAMA

* ONDART KAMSETA

Itxaso TEELET XEA ARDIZENA | GAITZI

* 2 LAGUREN DAKO OTORDUA OIZKO POSADAN

Itxaso ZUBIALDE (GRADARINA) | ZUBIETA

* TTIPI SASKIA

Itxaso OT XANDORENA GRAZENA | DUFARINKA

**DESKONTUAK | ZOKKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan



2 LIBURU
Erein argitaletxea
www.erein.com



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquarium2a.com



GU TA GUTARRAK CDa
Lanku argitaletxea
www.lanku.com



ESTANKONA CDa
Baga-Baga musika idienak
www.baga-baga.com



KAMISETA BAT
Onddo ta-punto
www.onddotagunto.com



Irrien lagunak aldizkaria + DVDa
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.katxporrotx.com

DESKONTUAK



URRIAK

1

LUR DJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK

02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

URRIAK

8

EUSKAL JAIA_OIHAN VEGA + LURDJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK

02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

URRIAK

15

LUR DJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK

02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

URRIAK

22

ZOPILOTES
TXIRRIAOS + LUR DJOTAK

01:00 9€

Salmenta puntuak: Antxitonea eta Txokoto (Elizondo) _ El Infiernito Guitar Shop (Iruñea)

URRIAK

29

LUR DJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK

02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



garagardotegia

Ostiral, larunbata eta jaieguneko bezperetan irekia
Viernes, sábados y vísperas de fiesta abierto
ERRESERBAK RESERVAS: TEL: 948561802